BETI OPORRETAN

HARKAITZ CANO

HARKAITZ CANO

BETI OPORRETAN

narratiba Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 2015 Harkaitz Cano
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 2015eko azaroa
Edizio hau: 2015eko azaroa

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.eus
Webgunea: http://susa-literatura.eus

Zafiro, diamante, harri bitxiak, piztien larrurik garestienak... traba besterik ez digute hemen egingo honezkero. Oro zaigu pisu eta astun orain. Beti oporretan.

XABIER MONTOIA
Lurpekoen kanta

– Zergatik jarri diozu *Summer* izenburua erakusketari?

– Udan lan egitea gustatzen zait, teilaturik gabe. Udan galdetzen diot nire buruari zenbat uda geratuko ote zaizkidan oraindik bizitzeko... Hogeita hamar bat, beharbada?

JULIAN SCHNABEL
kazetari bati erantzuten

Arrokarik altuena

Kostako bideari segika arrokek inguratutako putzua zegoen. Ez zen edonor ausartzen handik jauzi egitera. Paolo arrantzan aritzen zen bertatik eta ez zitzaion umeak inguruan ibiltzea gustatzen.

– Marmokarik ba al da gaur, Paolo?

– Gutxi, baina badakite non jarri.

Gu uxatzeko modu bat besterik ez zen, guk arrantza uxa ez geniezaion. Debekatuta zeukan arren, Santik buruz salto egiten zuen handik. “Marea behera den egunen batean hondarra jo eta paraplegiko geratuko da hori”, esaten zuen gure amak. Ez zen konturatzen Mediterraneoan marea ez dela apenas lekutik mugitzen, ez daukala Kantauriko gorabeherekin zerikusirik. Amari ez zitzaion ni Santirekin ibiltzea gustatzen. “Kasta bitxo bat da mutil hori”. Santi beltzarana zen oso eta zilborra kanporantz zeukan, korapilo ezberdin bat nirearen ondoan. “Leku bakoitzean korapilo diferentea egiten diete umeei jaiotzen direnean”, esan zidan amak zilborraz galdetu nionean. Nik marinelen zilborra deitzen nion Santirenari. Bere gurasoak bananduta zeuden eta amari iruditzen zitzaion bereizita

egote horrek zerikusia zuela marmokei eta altuerari beldurrik izan gabe arroka gorenetik jauzi egiteko Santik zeukan seta kutsagarriarekin.

– Orain zure txanda da.

Urbanizaziora etorri berriei behin eta berriro errepikatzen zien esaldia zen. Niri ez, neska nintzelako.

– Badakit zertara jolastuko garen: zu nire itzala izango zara.

Ni bere itzala izatearekin konformatzen zen, eguzki galdatan ginen egun haietan. Beti bere atzetik, beti berak zapaltzen zituen harriak zapaltzen, bera gelditzen zenean ni ere gelditzen. Beti haren atzetik joan behar izaten nuen, baina ez nion putzuraino segitzen. Putzura bere itzalik gabe egiten zuen hark jauzi, bakarrik.

Hondartza handira ez joateagatik hurbiltzen ginen hara, arrokek inguratutako putzu sakonera. Apur bat igeri eginda, kala txikira ere ailega gintezkeen: hareazko mihi estu bat, apenas inor ibiltzen zena. Regina, Paoloren emaztea soilik egoten zen han batzuetan, etzaulkian jarrita. Ezpainetan zigarroa, eskuetan liburu bat. Ez zen inoiz uretara sartzen.

– Jolas berri bat: zu nire igela izango zara.

Nik makurtu eta jauzi egin nezan nahi izaten zuen Santik, bere ondoan kokoriko joatea, kroak eta kroak.

– Gizendu egin zara: zapoa zara orain. Edo are hobeto: behia. Behi aurpegia daukazu, esan dizute inoiz? Lastima oraindik titirik atera ez zaizun.

Halakoak ziren Santik niretzat asmatzen zituen jolasak. Belarra ematen zidan gero eta nik murtxikatu egiten nuen. Ez gehiegi ere, tamainan. Lau hankatan jartzen nintzen eta hura artzain.

– Nire amak dio egunen batean paraolinpiko geratuko zarela.

– Zaude isilik, behia. Ea noiz hasten zaren esnea ematen.

Putzura jauzi egin eta, ur azalera atera aurretik, arnasa hartu gabe urpean ahalik eta luzaroen egotea gustatzen zitzaion. Ez zegoen jakiterik putzuaren erdian aterako zen edo ura geldi zegoen beste ertzen batean, lepoa gora, bala-gizon baten eran. Santi urpean zen bitartean arnasari eusten nion nik ere, estu eta larri, baina ez nuen sekula hark adina agoantatzen.

Paolo ez zegoen egun hartan. Eragozpenik gabe jauzi egin zuen Santik putzura eta ni poliki jaitsi nintzen beheraino. Uretan elkartu ginen.

– Goazen kala txikira, zapo!

Hareazko mihian, Regina, Paoloren emaztea, irakurtzen ari zen, lastozko txapela soinean eta zigarroa ahoan. Bikiniaren goiko aldea erantzita zeukan eta agerian zituen bularrak. Itxura bitxia zuten, ez biribilak eta ezta txikiak ere: Santa Klausen txapela alderantzizkatuak ziruditen, haur saldo batek ongi zurrupatutako titimuturrekin.

Santik diosal egin zion Reginari eta honek soilik bekainak altxatu zituen eguzkitako betaurrekoen atzetik.

– Zapo, hau lehen sumendi bat izan zen, bazenekien? Laba lehortua dira arrokak. Agian egun batean berriro hasiko da sumendia martxan.

Santik asko zekien gauza askori buruz, nahiz eta “sumendi bat martxan” jar zitekeenik irudikatzea niri oso zaila suertatu.

– Zergatik ez zara urbanizaziora igotzen toalla baten bila? Nik hemen itxoingo dizut.

Luzea eta bihurria zen urbanizaziora oinez iristeko bidea, baina obeditu egin nion. Beti obeditzen nion Santiri.

Itzuli nintzenean, Reginaren etzaulkiaren ondo-ondoan zegoela iruditu zitzaidan. Harekin hizketan, akaso? Arraroa. Regina ez zen edozeinekin berehala hizketan hasten den horietakoa. Bere kasa ibiltzea gustatzen zitzaion. Zigarroekin eta liburuekin. Bere liburu faboritoa zein zen galdetu zion behin gure aitak, eta zerbait biblikoa aipatu zuen hark: “Adam Bovary”. Hala ulertu nuen nik.

Ikusi ahal izan nuenez, etzaulkiaren ondo-ondoan ez, etzaulkian *bertan* etzanda zegoen Santi, Reginaren alboan. Oso zurrun eta estu, hala iruditu zitzaidan. Zerbaitek gehiago hurbiltzea galarazten zidan. Mehatxu batek. Marmokak airean baleude bezala. Guztiz ulertzen ez nuen zerbait ari zen han gertatzen, senak esaten zidan ez zegokidala begira egotea. Gehiegi berandutu ote nintzen toallarekin? Alfer-biajea egin ote nuen? Berea eskaini ote zion Reginak Santiri? Ala, alderantziz, Santik –kasta bitxo horrek– eskatu ote zion lotsagabe bere toalla, nire zain egoteaz aspertuta?

Etzaulkitik gertu antzean nengoen, baina haiek ez ninduten ni ikusten. Sosegatuta zeuden itxuraz. Elka-

rren ondoan lo? Ezin zitekeen! Reginaren liburua hondar gainean zetzan, izter-zabal.

Etzaulkiaren malgukien kilker hotsa baino ez zen han entzuten, eta Santiren arnas lasterra, hasperen etenez josia. Lo bazegoen, ez zen batere lasaia haren eguterako ametsa. Tarteka, haize apur bat altxatzen zenean, Reginak lastozko kapeluari eusteko jasotzen zuen ezker eskua, besapeetako biloak nik ikusteko moduan utziz. Ilunak ziren, ia gorriak, itsas belar matazen gisako. Luze egin zitzaizkidan segundo batzuen ondoren, zerbait gertatu zen tupustean. Etzaulki guztia inarrosi zen ziztada batekin, eta Santiren burua atzerantz erori zen, aho zabalik, sosegu eguzkitsu hartan zentzurik ez zuen izu batek joa, burua gillotinaz moztu izan baliote bezala. Ni begira neukala jabetzean, areagotu egin zen haren aurpegiko beldur keinua.

Etzaulkitik derrepente altxatu eta nigana etorri zen korrika. Bainujantzia ez zitzaion oraindik guztiz lehortu, eta gerriko soka aske zeraman. Zilborreko korapiloa inoiz baino kanporago zeukala iruditu zitzaidan, baina arnasa hartzeko sabela asko puzten zuelako zen agian.

– Goazen hemendik! –esan zidan, zurbil.

– Zure neskalaguna al da? –galdetu zion Reginak, gero eta gogorrago jotzen zuen haizeak kapelua lapur ez ziezaion borrokan.

Liburuko azken atala berriro irakurri beharko zuen, aire brastada batek astindu baitzion irakurketa utzia zuen orrialdea.

Toalla eskaini nion urbanizaziora bidean, baina ez zuen hartu. Oso serio zetorren. Nik zerbait egin nahi nuen Santi animatzeko: belar sorta bat hartu eta ahora eramango nuen, nire borondatez. Lau hankatan jartzen hasi nintzen.

– Ez egin hori –bota zidan–. Ez zara animalia bat.

Apenas esan zidan txintik oporraldi osoan, baina norbait sorbaldatik heldu eta bizkarretik ni urperatzen saiatzen bazen, egurtu egiten zuen berehala. Ez zuen gehiago sumendirik aipatu, ez behirik, ez zapo itxura nuenik, ez ezer.

Azken uda izan zen irla hartan. Hurrengo urtean, gurasoek garestiegia zela ebatzi eta beste urbanizazio batera aldatu ginen.

Ez nuen marinel zilborra zeukan mutiko beltzarana berriro ikusi.

Igerilekua

– Hago, hago: trago luzerik ez... Botila bakoitzetik pixka bana edaten badugu, ez dituk konturatuko.

Botila bakoitzetik pixka bana edatea, hori zen sekretua. Bukatuko zirela zekiten gauzak nolabait iraunaraztea.

– Zer duk gauza berde hori? Puaj! Zizare bat zaukak hondoan! Nola heldu duk zizare hori horra?

– Zaporea emateko jartzen ziotek, astapotroa.

– Bizirik?

Ez daki inork erantzuna.

Eneko saiatzen da kontua ez dakien gehiegi eskuetatik joan, baina ez da erraza. Gurasoak kanpoan zeudela lasai eta airoso lagunei esan aurretik pentsatzea zeukan, orain beranduegi da jada. Zapatak kenarazi dizkie etxera sartu aurretik, baina horraino bakarrik kontrolatu ahal izan du garbitasunarena.

– Pizza zati bat erori zaidak sofan, badaukak bikarbonatoa? Urarekin nahastuta erraz ateratzen duk koipea, baina oraintxe izan behar dik.

– Jode, zer ari haiz? Nola utzi diok, Eneko? Ez al duk ikusten mantxa handitu baino ez dela egiten ari?

Norbaitek sofan kanpaia jo duela ematen dik, a ze orban puska, tio. Lefa emango dik lehortzen denean.

– Ez duk hirea izango. Nori dastatuta ezagutuko duk ba hik, Aimar?

– Hoa popatik hartzera.

Imanolek, sofan belauniko jarri, eta almohada bat ipini du ipurdian, gerri-kolpeka sofari larrua jotzen diola. Zezen mekanikoa balitz bezala hura, eta ez sofa.

– Bai ba, atsedenik gabe, emadak gogor, ez diat besterik nahi!

Dakota sofaren kuxinak berezko eite karratua galtzen ari direla pentsatu du Enekok. “Izan dadila hori larriena”, otu zaio gero, bere profeta dohainetan federik batere gabe.

Esperantza dauka neskak iristen direnean kontua apur bat zibilizatzen hasiko ote den; horrela izaten da eskuarki; nahiz eta hormona jarioa gehitu inguruko mutil asaldatuen baitan, basakeria maila jaisten dute emakumezkoek. Ez da neskek basati izaten ez dakitenik, basati izateko modu ordenatuagoa daukatela baizik. Haiek geratu dira edaria ekartzekotan: zorte apur batekin, gurasoen tekila botila bakean utziko dute hartara. Hamaika bider aurreikusia du jada txikizioa:

Oaxacatik ekarritako botila preziatua mila zatitan, eta barruko harra alfonbra gainean mortu.

Txirrin-joka datoz Tania eta Ane. Azkenean.

Taniak plastikozko poltsa bana dakar esku bakoitzean: “vodka eta rona”, bota du, berarekin datozen bi lagun aurkeztuko balitu bezala, balantza-emakumearena eginez. Eskote ederra dauka. “Justizia itsua da”, pentsatu du Enekok, “baina ni ez”.

Aneri ez dio zapatak kendu beharrak graziarik egin. Gorriak ekarri ditu, takoi luzedunak. Behatzetako azazkalak ere gorriz margotuta izan arren, nortasuna hankamotz, biluzik edo menostuta sentitzen da oinutsik, edo hori baino gehiago: apur bat erresumindu-ta. Ez dio etxeko ugazabari laidoa berehalakoan barkatuko.

– Txantxa bat al da, Eneko? Derrigorrezkoa da zapatak kentzea?

Masailgorritu egin da une batez Eneko.

– Ez da ezerengatik... Batez ere igerilekura joango garelako berehala.

Igerilekuaren aipamenak salbatu du. Lagunen artean etxean halako luxua daukan bakarra da bera. Izatez, horixe du haien estimazioa biltzeko kapital nagusia. Hori eta motoa. Igerilekuko uraren kolore urdin

berbera eta pieza kromatuak dituen Vespa distiratsua, argi tuneatu eta guzti, Loreak Mendian pegatinarik falta ez zaiona ipurdian, *¿San Sebastián? ¡Sansestabien!* stickerrarekin batera. Klasean lokartu zen batean San Siestaman hots egin zioten bolada batez, baina zorionez iraganeko kontua zen hori.

Landare igokariei, kaktusei eta loreontziei begira dago Ane.

– Ziklamenak dira?

– Ez dakit: nik *loreak* esaten diet.

– Zozoa zara gero.

Hormetako akuarelei jarri die Taniak arreta, ron botilari prezintoa kentzen dion bitartean.

– Ze pornoak, ezta? Zer du zure aitak hankak zabalik dituzten emakumeekin?

– Mallorcako pintore batek egiten ditu, amaren laguna da.

– Peor me lo pones.

Anek ekarritako poltsak miatzen ari da Imanol. Seme bakarra da, Eneko bezala, eta bere buruari sekula galdetuko ez dion arren, zerbaitegatik erabaki zuten gurasoek mundura gehiago ez ekartzea.

– Hau al duk igerilekua? Handiagoa espero nian.

Aimar izan da jauzi egiten lehena. Belaunei eskuekin helduta bonbarena egin eta igerilekuaren perimetro guztia zipriztindu du, artezilari baten eran edariak nahasten ari den Imanolen konbinatuari kloro ukitua emanez. Horrela izan ohi da. Badago jendea tokatzen zaiona baino gehiago okupatzen duena munduan, oinez dabilenean, hizketan ari denean, inoren ohean. Baita igerileku batera jauzi egiten duenean ere.

– Jode, Aimar, doritos guztiak blai utzi dituk! Ez zagok hauek jango dituen amaren semerik!

Imanolen kexuak entzunda, supermerkatuan XXL poltsa hura erosi duen uneaz gogoratu da Eneko: bere une hartako poz estreinatu gabea, balizko errotaren indarra. Dena izorratzen da, ordea, urak errota mugitzean. Eta aurreikusitakoa ez da heltzen. Doritos sorta bat ur kloratutan beratzen. Horra, nerabezaroa.

Igerilekuko eskailera ondoan jitoan geratu dira Imanolek Aimarri burutik behera botatako litxarreriak, intxaur oskolen gisa. Agirika egin dio Anek, rona zuzenean botilatik edan eta ezpainetakoaren marka beirazko lepoan utzi arau.

– Ez izan zerriak. Begira nola laga duzuen ura.

Salabardoaren bila doa Eneko, baina doritos uzta biltzen hasi denerako barreiatuegi dago jada, eskaile-

ra ondotik igerileku osora. Gainera, behin biltzen hasita, hostoak ere jaso beharko lituzke. Eta hori bai ezetz. Hori lan handiegia litzateke.

Azkar samar irten da Aimar igerilekutik.

– Ostia, hotza zagok.

Eguraldi ona iragarri zuten arratsalderako, baina ez dute asmatu. Erabat lehertzen ez duen sargori baten aurreko behelaino astun eta gogaikarri batek iluntzen du zerua. Likatsu dago airea, baina, hala ere, ez hain bero. Igerilekuak iparraldera ematen du, gainera. Enekoren aitak beti gogorarazten dio amari: “Noiz betetzen ditu urteak zure lagun arkitekto horrek? Brujula bat oparituko diogu”. Mallorcakoa da arkitektoa, asmatu duzue. Bere denbora librean akuarela erotikoak egiten dituen berbera.

– Erne, mutilak: norbaiten patrikakoa joka ari da.

Imanolena.

– Adrian da, bidean dela.

Enekoren gelan lardaskan ibili da bitartean Imanol, bere txikitako jostailuen bila: gezurrezko pistola bat eta pailazo sudurra ekarri ditu, iseka artean.

– Inauterietakoak dira –defendatu du bere burua Enekok.

Zorionez, Imanolek ez ditu panpinak aurkitu.

Neskekin geratu da Aimar, igerilekuko etzaulkietan hizketan, rona deusekin nahastu gabe edaten. Imanolek, pailazo sudurra jarrita eta pistola eskuan, besotik darama Eneko kristalezko ate irristagarrien ondora.

– Festa hau mierda bat duk. Zergatik ez diagu musika apur bat jartzen? Adrian etorri aurretik, esan nahi diat: hura bere kunbia eta bere ostikeriekin hasten baduk, neskek berarekin bakarrik igurtzi nahiko ditek, ulertzen? Bazagok speakerrak kanpora ateratzerik?

– Ez diat uste...

Saiatu da Imanol bere garaian Iparraldetik estraperloan ekarritako Akai katearen bi bozgorailu handiak arrastaka eramaten, baina ezkerrekoaren kablea laburragoa izaki, eten egin da bidean.

– Bueno, berdin ziok. Mono izan behar badu soinuak, ba mono. Aparatu honekin, ongi entzungo duk, hala ere, a ze musikatxarropotea!

Kexu dira neskak.

– Ze ostia duk hau?

– Glaukoma, ez al zaizue gustatzen?

– Badakizue zer den glaukoma bat?

– Aimarren nota maximoa: glau koma bat!

Eneko ur ertzeko etzaulkian dago eserita, salabardoa altzoan: bi doritos heze desegin zaizkio hatz artean. Inor begira ez duela probestuz, ahora eraman eta jan egin ditu, zer diren jakin gabe, autoflagelazioaren eta kontrizioaren estereotipoak bere kasa berrituz.

– Txibiak bere tinta askatzen duenean bezala: pum! Zain bat lehertzen zaik begian.

– Glaukoma bat ez duk hori...

Txirrina, berriz. Ding-dong-dang.

– Ze hortera, ez? Hileta-etxe bateko doinua ematen dik.

– Adrian izango duk. Ona ekarriko ahal zian...

– Adrianek beti ekartzen dik ona.

Atea Enekok ireki badu ere, Aimarrek egin dio ongietorria: kanpoko edozein behatzaile objektibok pentsatuko luke harena dela etxea.

– Qué pasa moro.

– Moro tu puta madre.

– Bale, bale, ez jarri horrela... Ekarri duk?

– Non dago igerilekua?

Seinalatu egin diote. Igerilekua baino lehen, Enekok eskuetan duen salabardoa ikusi du.

– Zer hoa, safari batera, Livingstone? Ez nekian Tania eta Ane etortzekoak zirenik. Jakin izan banu bainujantzia ekarriko nuen.

–Tania eta Anerengatik ez moztu. Ohituta zaudek buztanak ikusten.

Adrian: azal eztikara leun-leuna, ezpain mamitsuak, aho handia, tamainaz eta funtzionalki. “Hauek dira nire lagunak”, pentsatu du Enekok, zigor bat altxor batetik bereizi nahi duenaren kinkan.

– Zer duk sofako mantxa hori?

– Hi ere konturatu haiz, ezta? Esan diat, Eneko: mesede baino kalte gehiago egiten dik bikarbonatoak.

Jolasak utzi eta erretzekoa prestatzen hasi da Adrian: hainbeste kiribildu ditu bere bizitzan, begiak itxita egin baititzake. Miresgarria zaie gaitasun hori gainerakoei. Elektrizista trebea izango da urte gutxiren buruan, bertan diren lagunen artean soldatarik onena irabaziko duena.

Hasia da gaua eguna xurgatzen. Are gehiago freskatuko du laster. Eta iparraldera ematen duen piszinak ospel kutsua hartzen du ilunabarrean. Enekok badaki. Baina hori nola konpondu ere badaki. Karta bat dauka mahukan ezkutatua. Argiaren giltzari sakatu eta piztu egin ditu piszina barruko fokuak.

– Buatxa balke txulo!

– Orain bai baietz! Goazen!

Ane eta Taniak di-da erantzi dituzte soinekoak, mutilei bizkarra eta ipur-mamiak oparituz: laranja haragikoi bereko lau ilargi erdi. Buruz jauzi eginda sartu dira uretara, erabat biluzik.

– Honek kalada bat merezi dik.

– Lehortu eskuak erre aurretik, desegin egingo didazue bestela torpedoa.

Adrianek piztu, lehen dasta-lanak egin, bekainak goratuz bere egoaren erroak finkatu, eta Aimarri pasa dio turutatxoa. Enekok dzanga eragin dio azken vodka kondarrari, botilaren tapoitik bertatik, txupito edalontzirik ez denez beretzat geratzen. Gero eztul egin du lehen kaladarekin eta barre egin dute lagunek bere lepotik.

“Arrotzak paradisuan”, pentsatu du Enekok, aitarekin joan zen astean ikusitako filma gogoan. Izen hori jarri nahi lioke musika taldeari. Urtebetetzerako eskatu du gitarra elektrikoa. Lagunei gaur kontatzea espero zuen, baina ez du momentu aproposa aurkitu.

– Ez zatozte, ala?

– Porroa bukatzean, laztanak.

– Koldar hutsak zarete!

Lotsatiak ez daki nondik ateratzen duen indarra, baina bikoitza balio du haren balentriak. Enekok ez daki nondik atera duen ausardia, ez, baina, agian, haxixa erre duenean eztul egiteak eragin dion lotsatik izan da: lotsatik erator daiteke erabaki ausart bat, bi egoera lotsagarriren artetik bat hautatu beharretik ateratzen den txinparta liteke kemena. Ez da alferrik etxekoa, Eneko. Ez da alferrik bere igerilekua. Territorioa markatzearekin dauka zerikusia. Harrituta begiratu diote gainerako mutilek, patxadaz eta presarik gabe biluztu eta igerilekura dotore jauzi egin duenean.

Taniak eta Anek txaloka hartu dute. Sorbaldatik helduta daukate Eneko, uretan txapeldun: mami bereko lagun dira, olinpiar jokoetako dominadun, urpeko podiumean. Segundo batzuez, bera da errege. Adrian, Aimar eta Imanol dira orain, piszinatik at, lekuz kanpo eta biluzik sentitzen direnak. Igerilekuan daudenekiko aurrez aurre biluztu beharko dute, publikoarekin, eta badakite zaila izango dela hori naturaltasunez egitea.

– Porkulo hartzera.

Adrian izan da arropak eranzten lehena. Bere azal beltzarana baino are ilunagoa den buztan malgua dilindan duela jauzi egin du uretara. Ekintza, momen-

tua, egikera, gauzen ordena. Eta jada bi baino ez dira lehorrean geratzen. Imanolek eta Aimarrek zeharka begiratu diote elkarri. Agian goizean goiz masturbatu izanaz penatzen da Imanol, zakila kizkurrago izango du orain, ez hain itxuroso. Inpentsan, Aimar jada bere bainujantzi bustia eranzten ari dela ikusita, harekin lehiatu da, nor lehenago biluzi. Elkarri bultzaka erori dira uretara, nor baino nor, erdi besarkatuta, bataren biluztasunarekin bestearena guztiz estaltzea lortu gabe.

– Tio, tio: marikonadarik gabe!

Ura hotz dago eta haien ezpainak urdinkara. Direna baino are umeago bihurtzen ditu azaleko oilo ipurdiak. Ume gihartsua eta gizona ez baita gauza bera. Nahiz eta ezer gutxik narritatzen duen gehiago aita bat, semearen gihar gazteak maileguan hartuta egin ahal izango lukeena egiteko gai jada ez izateak baino. Gurasoak urrun daude, ordea.

Mutilek tarte batean elkarren buruak errugbi baloitzat erabili ostean, jada ez dakite zer gehiago egin. Kirol urtarrari uko eginik, igerilekuko eskailera ondoan txutxu-mutxuka hasi dira bi neskak.

– Anek eta biok zerbait proposatu nahi dizuegu. Baina banaka izan behar du.

Lehortu, jantzi eta barrura sartu dira.

– Zein da zure gurasoen logela, Eneko?

– Goian dago, zergatik?

– Gurasoen logelan izan behar du.

Hortzak zorrotz dauzka Aimarrek:

– Promete.

Mutilak erabat aztoratuta daude. Hatzak igerilekuko uretan busti eta entxufe batean sartzeko eskatuta ere, berdin obedituko lukete.

– Jode, jode, jode! Zer ditek bi hauek buruan?

– Hiri zer iruditzen zaik?

– Daukatena edozer dela ere, ez daukatela buruan, preziso.

Izutzen hasita dago Eneko. Gurasoen gela, pentsatzen du. Gurasoen oheko kaxmirezko estalkia. Bere ama den pertsona txukunarekin. Doritosak. Kloroa. Sofako orbana. Bozgorailuaren kable etena. Albo kalteak. “Izan dadila hori larriena”.

Amaren kaxoiak ez ukitzea espero du: nahita ere, simetria hura berregitea ezinezkoa suertatuko litzaioke. Eta Guadalupe ez da egun hauetan garbiketa egitera etortzekoa.

– Nor sartuko duk lehenbizi?

– Enekok izan beharko dik, ala? Azken finean, bere etxean gaudek...

– Inporta ez bazaizue, neroni sartuko nauk. Erikarekin geratu nauk hamarretan. Gainera, nik ekarri diat erretzekoa.

– Ze zerikusi ote dauka horrek, Adrian?

– Hiri berdin zaik, ezta Eneko?

Adrian sartu da gurasoen logelan.

Hogei minutu daramatza goian. Ez da txintik ere entzuten. Arduratzen hasita daude gainerako hiru mutilak.

– Moro kabroia. Siku utziko dizkik gu igotzerako.

– Hik uste txortan ariko direla? Hirurak? Bai zera!

– Zertan, bestela? Txispatuta zeudek eta berobero. Gu bezalakoak dituk, ze uste duk.

– Jakin izatera ez nian lehen kanpaia joko: tekila botilako zizarea baino ximurrago zaukaat.

– Laster pixkortuko zaik, hago lasai.

Baina pazientzia galtzen ari dira.

– Tio, bost gutxi dituk, ez al zen Erikarekin hamarretan geratu?

Hamarrak eta laurden dira Adrian eskaileretan behera datorrenerako, irribarretsu, erabat jantzita, aha-

legin fisiko ttipienik egin izanaren arrastorik gabe. Lebitazio puntu bat iradokitzen du haren ibilerak.

– Eta?

– Ezin diat ezer kontatu. Baldintza hori jarri zidatek.

– Moro... faborez!

– Sentitzen diat, zin egin diat. Hurrengoa igo daiteke. Ni Erikarenera noak. Zorte on!

Aimarrek hartu die aurre. Imanol eta Eneko bakarrik geratu dira behean. Kirioak airean dago Imanol. Enekoren aurrean bakarrik, ez du itxurak egin beharrik sentitzen, oilar-lehiatik kanpo dago-eta hura. Inoiz lagun-min izan daitezkeela otu zaio Enekori, beti ere, inguruan beste inor ez egotekotan. Badira lagunak artaldeak lagun izaera lausotzen dienak, eta, aldiz, bakardadeak zure besoetara desesperatuki jaurtitzen dituenak. Laguntasunaren kosketako bat da hori: asmatzea zenbaten konpainian urtu daitekeen adiskidetasun bakoitza. Entzulearen tolerantzia gradua eta partekatzeko prest dagoen intimitate maila asko aldatzen dira mahai jiran dagoen lagun kopuruaren arabera. Beti adiskide direnak eta baldintzarik gabeko babesle, ez dira agian lagun goren, santu degradatu baizik. Eta

ez gara santuen sasoian bizi. Santu degradatuak izanagatik.

– Hik ze uste duk izango dela, Eneko?

– Nahi duk gora igo eta belarria atean jartzea?

– Zelatan harrapatzen bagaituzte... Ez dezagun azken unean zapuztu. Ez da kontua gu saririk gabe geratu eta bi putakume horiek izatea larrua dastatzen bakarrak, ez zaik iruditzen?

Adrianekin baino are denbora luzeagoa pasa dute Aimarrekin. Edo luzeagoa egin zaie, behintzat, hura eskaileretan behera agertu arteko tartea.

– Brutala.

Hipnosi egoera antzeko batean dator Aimar ere. Sonanbulo baten gisa zeharkatu du etxeko atea eta iluntasunean galdu da. Imanolek erlojuari begiratu dio, betazalak zabaldu eta itxi ditu, epileptikoki, lekutu ezin diren tximeletak.

– Berandu duk, Eneko... Aimarri autobusera lagunduko zioat. Lehen elkarrekin etorri gaituk eta ez dik bidea ongi ezagutzen. Urbanizazio hauek, denak igualak dituk.

– Bakarrik utziko nauk? Eta neskak?

– Ya les vale, ez gaituk beti haien eskutik jaten ibiliko, ala? Argi ibili bi horiekin.

Paradisuko zuhaitzekin egindako urkabe bat. Zur berarekin eginak leudeke Eneko une honetan igotzen ari den eskailerako oholak. Estasiaren promesari emana pauso bat, beldurrari hurrengoa. Plazer irudikatuari bat, izu-laborriari bestea.

Dardaraka eta zurbil, sentituz arrotz bere etxea eta sentituz arrotz bere larrua, kax-kax jo du Enekok gurasoen logelako atea.

Ez batek baizik eta bi ahotsek erantzun diote. Ez bi ahots kalkatuk, ez bi ahots berdinek, bi ahots bereizik baino: “aurrera”. “Hau”, eta “urre”, eta “era”, estereofonia gozoa. Eta horixe egin du. Gelara sartu.

Ukigabe dago gurasoen logela. Ohea eginda, aulkiak txukun. Lurrean eserita daude Ane eta Tania, belaunak gurutze, siouxen edo zen pentsalarien eran, edo Enekok siouxak eta zen pentsalariak irudikatzen dituen eran, bederen. Zabalik dago leihoa, eta freskura sartzen den arren, ez du hotzik egiten. Epeltasuna dario giroari eta abegi ona haien keinuei. Enekori naturalena bi nesken ondoan esertzea izango dela otu zaio. Zangoak gurutze sinatu du ituna, zebra larruz egindako alfonbraren gainean.

“Mutilak joan dituk”, otu zaio euforia puntu batekin, “eta zizareak botila barruan jarraitzen dik”.

Botila bakoitzetik pixka bana edatea, hori zen sekretua. Bukatuko zirela zekiten gauzak nolabait iraunaraztea.

Aitaren gorbata beltz batekin estali dizkiote begiak. Zutitu eta estropezurik ez egiteko eskuekin lagunduta gelan barrena oinez ibiltzeko eskatu diote gero. Neskak entzun ditzake elkarri xuxurlan eta arnasa hartzen, bere belarritik oso gertu. Ez dute ukitzen, hala ere. Arnasa hartu eta hasperen baino ez dute egiten bere ondoan. Ez da hain erraza plazerezko suspirio bat pairamenezko hasperen batetik bereiztea: akaso Tania Aneri iletik tiraka ari ote zaio? Inoiz ez bezala, hatz puntekin hautematen du Enekok gela, hormetako paper pintatua. Itsu bakarrik ez, biluzik ere sentitzen da. Lehen igerilekuan baino askoz biluziago. Beste nonbait balego bezala. Ez dirudi gehiago hark bere gurasoen logela. Ezin saihets dezake pentsatzea aitak eta amak ere biluzik ernalduko zutela han, orain ilunpean haztatzen duen ohe hartan bertan, akaso: bi oilasko lumatu badaezpadako harmonian, kopula zoroan elkar igurzten, sua asmatzera jolasten, benetan trantze hark deus biziduna eman dezakeenik guztiz sinetsi gabe.

– Bilatu iratzargailua orain.

Enekok eskuekin amaren aldeko gau-mahaitxoa haztatu eta ertzetik hormarantz altzaria laztanduz topatu du kuerdarekin dabilen iratzargailu zaharra, Aneri emateko. Aneren hatzak sentitu ditu segundo batez bere hatzetan, eta maitemindu egin da bereak baino leunagoak diren esku estralurtar haiekin: harrigarria da nola izan daitezkeen bi esku elkarren hain ezberdin. Presioa, hezetasuna, heldu eta askatzeko gaitasuna edo gogoa, sinestezina da zenbat aukeraren atariko dauden han. Pertsona heldu baten eskuak iruditu zaizkio. Harentzat nahi lituzke.

– Oso ondo. Orain bilatu ezkontza erretratua.

Hori erraza zen. Atetik gertu zegoen zintzilikatuta. Atearen markoa bilatu du lehenbizi, eta koadroarena gero. Kontu handiz jaitsi du eskegita zegoen kakotik eta Taniaren eskuetan jarri. Lehorragoak eta zimurragoak haren hatzak, baita Anerenak baino luzeagoak ere.

Horrela aritu dira, gozamenak denbora neurtzea eragozten dien tarte batez, jolasean. Eskean Tania eta Ane; gelan topatzen zituen altxor xumeak jainkosei opaldu eta opaldu Eneko. Ohe gainean ipintzen joan dira neskak objektuak, bidaia luze baterako edo mudantza baterako gauzak pilatzen ari direnak bezala:

despertadorea, ezkontza erretratua, orrazia, gau-mahaitxoko amaren liburua. Gero dantzan erabili dute, txandaka, musikarik gabe. Hain motel ze, dantzan badakiela sinetsarazi baitiezaiokete. Bat, bi, hiru. Bat, bi, hiru. Erraza da dena haien eskutik. Bat, bi, hiru. Erlojuetako orratzak gelditu dira. Polaroid baten kirrizka entzun da orduan. Argazki bat atera diote.

Anek ezusteko bat esan dio belarrira:

– Sutan dagoen adiskidetasuna da maitasuna.

Eta berriro bere buruan: oilasko lumatuak badaezpadako harmonian, kopula zoroa, sua asmatzeko argibideak eta erre gabe sutan irautekoak.

Eta kito. Hori izan da dena. Ez diote deus gehiago eskatu.

– Ken dezaket antifaza?

Ez da erantzunik izan.

Nesken hasperen eta arnasarik ere ez du jada entzuten.

Gela hutsean bakarrik dagoela jabetu da, gorbata kendu duenean.

Ate-joka ari dira behean. Ding-dong-dang. Hiletaetxe bateko doinua dirudi, baiki.

Ez da Enekoren ohiko janzkera, baina tanatoriotik zuzenean etorri delako dauzka trajea eta gorbata.

Txaleta ikustera datozenak laurak arte espero ez bazituen ere, aurreratu egin dira itxura guztien arabera. Nola gauzak iraunarazi, jendeak ez badauka pazientziarik.

Zaila izango da erosleek etxeak balio duen guztia ordaintzea. Agentziakoek diotenez, “ongi legoke prezioa apur bat jaistea”.

– Ikus dezakegu igerilekua?

Non ote dago Polaroid hura? Aspaldi ez du ikusi, baina begien aurrean balu bezala dauka akorduan. Ohe gainean utzi zioten neskek isilka alde egin aurretik. Eneko nerabea begiak estalita. Taniak plastikozko errebolber batekin destatzen du lokian jolasti, beste eskuarekin argazkia ateratzen duen bitartean. Eta Anek Enekoren belarritik oso gertu dauzka ezpain irekiak, pailazo sudurra jarrita. Irribarrez ari dira hirurak, arrazoi ezberdinengatik.

– Bitxia da igerilekuak iparraldera ematea, ezta? Inguruko txaletetan ez daude horrela.

Piszinara bidean tekila botila harekin gogoratu da berriro.

“Nola heldu duk zizare hori horra?”.

“Zaporea emateko jartzen ziotek, astapotroa”.

“Bizirik?”.

Erosleei sukaldera aurreratzeko eskatu die Enekok:

– Berehala naiz zuekin.

Igerileku hutsean sartu da. Eskailerak banan-banan jaitsi, eta orbelak hartutako hondora iritsitakoan, barra metalikoari helduta, erdi-erditik pitzatu du negarrak.

Ospakizuna

Amaiera agonikoa izan zen, baina zein amaiera ez da agonikoa. Txirrindularitzan, azken hatsa da kontatzen duen bakarra.

Tropela Les Deux Alpes magalera erabat apurtuta heldu arren, sailkapen nagusia zegoen han jokoan, ez zen aurrean zihoanarekiko errukirik. Benetako egurra partitzen hasi zenerako, ordea, helmugatik gertuegi zegoen Iraola, eta Croix de Ferren gora ihes egin zuenean lortutako errenta nahikoa suertatu zen aldats behera luzean hari eutsi eta Ullrich, Pantani eta gainerako izar guztien aurretik ia berrogeita hamar segundoko aldearekin iristeko. Besoak altxatu zituen, garaile eta garaitu, meatzetik atera berri den hilzoriko kaskajo zoriontsuenaren gisan.

“Harrapa ezak, harrapa ezak hori ahal baduk!”. Txema euforiko zegoen telebista aurrean zutik, bere egongelan brankako maskaroi eta euforiaren abangoardia bilakaturik. Aldare bat zen telebistaren ingurua bera: tamaina guztietako argazkiak, egunkari ebakinak markoetan, Bidasoako Itzuliko irabazlearen maillota. Banesto taldearen aurkezpen eguneko argazki

ofiziala Iraolak sinatuta ("Txemarentzat, bihotzez, bere animo ikaragarriengatik"); Iraola umea kadeteetako podiumean irribarretsu, lepoan zinta zuri-berdez segurtatutako urrezko dominari kosk egiten diola; Iraola afizionatuetan, Txemaren beraren eskutik Gipuzkoako txapeldunaren kopa jasotzen 91n; *Avanti Iraola!* peñako azken afarian muxika zukua edaten KAS etxeko bisera jantzita, inguruan, whiski bana eskuetan eta belarri-muturrak gorri, Txema eta gainerakoak papar-harro ageri direla. Gregorio Iraola da denetan diskretuena argazkian, Fredi Iraola txirrindulariaren aita, oraindik itzalita daukan puruari apal-antza eusten, kamerari semeaz zein harro dagoen erakustera guztiz ausartu gabe.

Fredi Iraolak helmuga zeharkatu orduko, telefonoa hartu zuen Txemak Gregoriori hots egiteko.

– Komunikatzen ematen du.

– Zer espero zenuen? Deika izango du-eta jende guztia.

Blanca ez zen bereziki txirrindularitzazalea, baina Tourra bai, ikusten zuen urtero, mendiko etapak behintzat, horiek sakratuak ziren. Gazteagotan Pirinioetako etapetara joan ohi ziren senar-emazteak elkarrekin, kanpindenda eta guzti, asteburu pasa. Ibai txi-

kia zen orduan, eta atzera begiratzean, sinesgaitza egiten zitzaion txango haietarako indarra nondik ateratzen ote zuen pentsatzea. Sasoiko izatea zer den.

– Non dago gure rastafaria?

– Lagunekin geratu da, hondartzara jaisteko.

“Eta eskerrak”, pentsatu zuen Blancak, senarrari esaten ausartu ez arren, biolento samarra iruditzen baitzitzaion senarrak Iraolarekiko erakusten zuen kar bizia. Are gehiago, etxeko salan Iraolaren argazki gehiago izatea Ibai semearenak baino. Ibaik ez zuen sekula bizikletarekiko atxikimendu izugarririk izan, aitak hamabi urte bete orduko Reynolds taldeko ekipazio osoa eta karbono aleazioko Peugeot bizikleta oparitu zizkion arren, Look pedal automatiko eta guzti. Gogotik saiatu zen semeari zaletasuna kutsatzen; seme-alaben poz iturriak ez dira, ordea, gurasoen berberak izaten, eta horren jakinaren gainean egoteak ez du geure ezpalekoen bereizketaren berrespenak sortzen digun dezepzio intimoa jasangarriagoa egiten. Txirrindulari bilakatuko ez zela aspaldi igarriagatik ere, Txemak disgustua hartu zuen joan zen udan semeak Peugeot bizikleta zaharra beltzez margotu eta boleiboleko baloia eramateko saskia ipini zionean.

Goiz jaiki zen Gregorio bezperan. Zapatua zen eta bazekien jendeak haragi gehiago erosten duela zapatu goizetan. Ez zituen kondarrak eraman nahi. Bretxako merkatuan arkume txuleta eder batzuk hartu zituen, saiheskiak ere bai, eta bi untxi, erditik moztuta, parrillarako zirela esanda. Arrandegian txitxarro parea eta sardina handiak eskatu zituen, beti egoten da-eta haragia baino arraina nahiago izaten duen arraroren bat.

– Fredi Iraolaren aita da!

Harakinak Gregoriori txuletak mozten zizkion bitartean, Banesto taldeko egutegia seinalatu zion laguntzaileari, denek sentitzen baitzuten Frediren garaipena eurena ere bazela apur bat. Ispilukeria iragankorrak izanagatik garaipenak, jendeak gustuko du irabazleen igurtzia bosteko pare bateko distantziara egon daitekeela irudikatzea, munduarekin eta gaurkotasunarekin bat sentitzeko dugun modua da, olatuaren txanpan partaide garela, gurea dela apar koilarakada bat bederen, aldez edo moldez. Bere buruari ez aitortu arren, haragia aukeran izateaz beste, merkatuan ahalik eta ezagun gutxien topatzeko nahia zen erosketak egitera hain goiz atera izanaren arrazoia.

Gregorio harro zegoen semeaz, jakina harro zegoela; zorionak etengabe jaso eta eskerrak behin eta berriro eman beharra zen gogaikarri zitzaiona. Nekagarriak izan ziren azken egunak. Telefonoaren haria ateratzekotan ere egon zen, nahiz eta azkenean zintzo-mintzo burutu zuen guardia aparailuaren alboan, otordu txukunik apenas egin gabe, kazetarien, lagunen eta familiako kideen dei guztiei banan-banan erantzuteko. Fredirekin, aldiz, apenas egin zituen bi hitz, bazekien-eta semeari kontzentratuta egotea gustatzen zaiola. SER irratiko kazetariek hots egin ziotenean soilik entzun ahal izan zuen haren ahotsa, zuzenean sartu zutenean, pribatutasunik gabeko tarte llabur batean.

– Fredi, zure aita daukazu telefonoz bestalde.

– Aita...

– Seme...

Apenas esan zitekeen fundamentuzko ezer malkozukutzaile izaten saiatzen ziren egoera faltsuki emotibo haietan, kazetariaren banpiro letaginak lepoan beti. “Euskaldunak ez gara horrelakoak”, pentsatzen zuen Gregorio Iraolak, bere kautan, beste bat zenez malkoa eragiten zion telefono ondoko argazkia. Yurre andrearena. Urtebete zen alargundu zela, eta horrek

atsekabetzen zuen gehien: emaztea semearen garaipenik handiena ikusi gabe joan izanak.

– Ez daramazu janari gutxi... Ospatzeko bilduko zarete?

– Landetara goaz bihar peñakoekin. Barbakoa agindu diet, nire kontu.

– Kontuz kiskali gabe... Zuek, esan nahi dut: bero egiten du paraje haietan.

Zentzuzkoena

Tourra amaitu arte itxarotea zatekeen arren, ospakizun ofiziala baino lehen “zerbait informala” egitea adostu zuten Txemak eta Gregoriok. Peñako *inkondizionalak* batuko ziren soilik, dozena erdi, euren seme-alabekin eta emazteekin, iraolatarrek hondartza ondoan zuten karabanan. Plan biribila: lehenbizi saiheski jana, gero elkarrekin ikusiko zuten Grenobleko erlojupekoa.

Lezon geratu ziren peñako gainerakoekin. Ez ziren guztiak iraolatarren Landetako etxean egonak, eta denak elkarrekin joatea adostu zuten. Bateko eta besteko, dozena inguru batu ziren azkenean, lau autotan.

– Ez dik merezi hik heure autoa hartzea, Goyo. Hator gurekin. Blanca eta Ibai ere etorriko dituk.

Sargori iragarri, sargori etorri. Landetan haize apur bat izango ahal zuten, baldinbaitere. Karabana inguruan apenas zen itzal txukunik eta ez ziren eguzkitarako kremaz barbakoarako saltsaz bezain agudo akordatzen zirenetarik. Gaitz erdi, Banestoko biserak behintzat aukeran izango zituzten denentzat.

Beti zegoen norbait txirrindularitzara mugatzen ez zena:

– Atrebentzia ez bada... Kreditua eskatzeko erraztasunak ematen dizkizute Banestokoek zuri ere?

Parrillakoak maletalekuan sartu eta Txemaren ondoan kopilotu eseri zen Gregorio.

– Ziur ez duzula zuk joan nahi, Blanca?

– Faborez... Ibai eta biok primeran goaz atzean. Ezta, Ibai?

Ibaik baiezkoa egin zuen buruaz: ez hainbeste amari arrazoia emateko, kaskoetatik Ziggy Marley & The Melody Makers taldearen disko bat entzuten ari zelako baizik.

– Ederra egin dik oraingoan, Goyo. Balentria egin dik. Euskal Herriko Itzulikoa ere ez zuan makala izan, baina hau... Donostiako Klasikora etorriko duk, ala?

Gregoriok sorbaldak altxatu zituen. Baietz uste zuen. Baina ez zegoen seguru.

– Ez duk semearekin hitz egiterik izan?

– Ez fundamentuz.

– Jakina, Tourra beste gauza bat duk. La Grande Boucle! Datorren astean kontatuko zizkiguk denak: soziedadea hartu diat hilaren 25erako. Lehenbizi harrera udaletxean, eta afaritara gero. Oraingoan utziko zioagu whiskia edaten, e? Gaur ere bustiko diagu, jakina: Sebastianek ekarriko ditik Cardhu botilak, ea bere ume zorrizto horrek bake pixka bat ematen digun!

– Txema, faborez –protesta egin zuen Blancak.

Hendaia atzean utzi ondoren ere, ongi entzuten ziren hegoaldeko zenbait irrati kate autoan. Ez denak, jakina. Bat lausotu ahala, beste bat bilatzen zuen Txemak dialean, sukaldean hasi aurretik pospolo bat bestearen atzetik itzaltzen zaion gizon baldarraren setarekin, Tourreko albisteen atzetik beti. Goiz zen orain-dik, ordea. Erlojupekoa ez zen eguerdira arte hasiko. RNE katearen uhinak ziren irismenik handiena zutenak. Hura ere amatatu zen azkenerako. Frantsesari amore emanda, etsia hartu eta France Bleu jarri behar izan zuen dialean. Hamabiak inguru ziren albistegietan Federico Iraola izena esan zutenean.

– Ihes eginda al doa?

– Esan nizun gaur erlojupekoa dela, Blanca.

Ez zen frantses gehiegi jakin behar albistearen mamiaz jabetzeko.

– Ireki leihatila mesedez, Txema.

Gregoriok eta Txemak aldi berean jakin zuten berria.

– Aire girotua jarrita zaukaat, Goyo. Leihatila irekiz gero...

Ez zen Gregorio Iraola iniziatiba hartzen zutenetakoa izan inoiz. Horregatik zen aski esanguratsua agindu-panelean bere leihatilari zegokion blokatze-botoia topatu eta hark jaistea, kopilotuaren leihatila erabat zabalik geratu arte. Kanpora atera zuen burua Gregoriok. Igurtzi errea suertatu zitzaion haize beroaren bafada, ez inondik inora aringarria.

Ibai ere jabetu zen auto barruko ezinegonaz. Musika itzali eta kaskoak kendu zituen belarrietatik. Amak eragotzi egin zion ezer esatea, eskua belaunean jarrita. Zerbait harrigarriagoa ere egin zuen: kaskoak jarri zizkion berriz semeari belarrietan. “Orain, ixo”.

Ikusi zuen lehen restopean geratu zuen autoa Txemak. Beste hiru ibilgailuak ere haien atzetik sartu ziren, gangsterren film txar batean legez. Ez zen inor

bere autotik irtetera ausartu. Jakinaren gainean zeuden seinale.

– Zertan ari zara, Txema?

– Buelta hartu beharko diagu, ez? Etxera joan nahiko duk.

– Haragia erretzekotan ez gara ba geratu?

– Barbakoa? Benetan aurrera egin nahi al duk, Gregorio? Ez daukak zertan...

– Haragia alferrik galduko da bestela.

– Goyo...

– Arrankatu.

Txemak autoa arrankatu eta iristeko batere gogorik gabe gidatu zuen Vieux Boucau sarreraraino. Aspaldi konturatu zen, atzerako-ispilura so eginda, atzetik zetozkien hiru autoetatik bik jira hartu eta hanka egin zutela egoeraren deserosoa ikusita. Peñako *lagunak*. “Traidore zikinak”, pentsatu zuen amorratuta. Inguruko urbanizazioetan ere erlojupekoa ikusten ariko ziren laster, baina iraolatarren karabana apur bat aparteago zegoen, hondartza pinudiekin elkartzen zen gune basatiago batean. “Bizilagunik ez, Jainkoari eskerrak”.

Gregorio izan zen autotik irteten lehena. Maleteroa ireki, eta haragiz betetako bi freskerak hartuta,

karabanara eraman zituen, makur sorbaldak, inoren laguntzarik onartu gabe.

Bigarren autotik Ihintza atera zen, Sebastian eta Pilarren sei urteko alaba, gertatu zenaz jabetu gabe zegoen bakarra, irribarretsu, flotagailu arrosaren erroskila gerri bueltan zekarrela.

– Aita, noiz puztuko dugu koltxoneta?

Sebastian Txemarengana hurbildu zen, Gregoriok ez entzuteko moduan, ahapeka.

– Zer egingo dut Cardhu botilekin?

Txemak hasperen egin zuen. Guztiz abailduta zegoen.

– Putetxeko madrea. Ederra putadoia. Ospa egin behar genikek, baina ez dik nahi.

Pilar eta Blanca karabanarantz abiatu ziren poliki, laguntzeko asmoz baino gehiago, karabanan topatuko zutenarekin izututa. “Bi bat baino hobe”, irakurri zuten elkarren begiradan. Emakumezkoen Kontsolamenduzko Brigada.

Ibai, hondarretan lasai demonio etzan eta komiki bat irakurtzen geratu zen.

Burugogorra zenez burugogor –osoko tauro bat–, Gregoriok ez zuen inoren laguntzarik onartu. Edatekoa karabana barruko hozkailuan sartu ondoren,

denak eserarazi zituen karabanari erantsitako toldoaren itzalean. Parrilla karabanatik aparte samar zegoen, eguzki galdatan, eta berak arduratu nahi zuen lan zikin guztiaz. Nola ez zen, bada, semeaz akordatuko? Berak izan nahi zuen meatzearen ahotik ateratzen zen kaskajo hura. Bera izatea merezi zuen.

– Egingo diagu bion artean, Goyo. Egosiko haiz, bestela.

– Gaur ez. Ez kezkatu nigatik. Nire gonbidatuak zarete.

Isilune deseroso bat sortu zen arestian ereindako deserosotasunaren gainean. Gainjar daitezke balio bereko bi isilune, ñabardura ezberdinak dituztenak, eta bazkaltiarrak sosegu ezaren uzta oparoaren zain utzi. Noraez hutsa zen haien arteko keinu eta begiraden katramila. Federik ez zieten hitzekin ere egin zuten saiakera:

– Agian akats bat duk dena. Kontranalisiari itxoin behar genioke.

Alferrik zen.

Artezia handiz piztu zuen Gregoriok sua. Keroseno parrastada on batek sugar luzeak aterarazi zituen parrilla herdoilduaren gainean.

– Sardinak eta txitxarroa ere ekarri ditut. Inork nahi al du arrainik?

– Bakarrik egon nahi du... –jakinarazi zien Txemak gainerakoei, Indiak deskubritu dituenaren larritasunarekin.

– Normala da, gu ere egongo ginateke lotsatuta –Pilarrek.

– Lotsatuta, zergatik? –Ihintza txikiak.

– Puztu duzu azkenean koltxoneta? –Sebastianek alabari, Cardhu txorrotada edalontzietara isuriz.

– Oraindik ez, han utzi dut.

Gregorio haragia erretzen ari zen lekua seinalatu zuen Ihintzak. Izerdi patsetan zegoen hura, burusoila gori-gori. Une batetik bestera kopetatik adarrak aterako zitzaizkiola ematen zuen. Txemak ezin izan zuen Claudio Chiappuccirekin akordatzea saihestu. Haren goitizenarekin, zehazki: *Il Diavolo.*

– Ez al genioke txapel bat eraman behar?

– Biserak bakarrik dauzkagu. Ez dut uste ideia ona denik.

Ibaik bat zeraman buruan. Kokoteko galanta eman zion aitak konturatu orduko, tiradizo batekin Banestoko txapela burutik erauzi aurretik.

– Egizu zerbait, Ibai: zoaz koltxonetaren bila eta ekarri umeari –Blancak.

– Ezta pentsatu ere –Sebastianek–. Koltxoneta Ihintzarena da. Doala bera eta ekar dezala. Neska handia da. Nork bere gauzak zaintzen ikasi behar du. Ez da hala, Ihintza?

Esaneko abiatu da Ihintza barbakoarantz, eskuarekin kopetan biserarena eginez. Bere parera heldu denean, paineluarekin masailak xukatzen harrapatu du Gregorio.

– Negarrez ari zara?

– Ez, laztana: izerdia da.

– Begiek ez dute izerditzen.

– Baina izerdia begietan sartzen da eta negar egiten duzu.

– Orduan negarrez ari zara.

– Izerdiarengatik.

– Har dezaket koltxoneta?

Hor jabetu da Gregorio freskeraren azpian dagoen koltxoneta laranjaz. Altxa egin du freskera, umeak koltxoneta har dezan.

– Nahi al duzu nik puztea?

Baiezkoa egin du Ihintzak buruaz. Gregoriok, parrilla gaineko untxi erdibituak zilar paperaz estali duen azpil handira pasatu eta koltxoneta hartu du eskuetan.

– Zertan ari da?

– Gregorio koltxoneta puzten ari zaiok hire alabari.

– Erotu egin al da? Puztekoa autoan daukat!

– Utzi, ongi etorriko zaiok. Arindu egin behar ditik barrenak. A ze putakeria! Eta Tourrean, gainera. Ziur taldekoen segada izan dela. Derrigortu egiten dituzte-eta edozer hartzera!

– Zuen errua da: hainbeste peña eta hainbeste...

– Zaude isilik, Pilar.

– Egia da-eta... Ezin zaizue futbola gustatu, mundu guztiari bezala?

– Ez da bidezkoa. Mutil hauekin egiten dutena ez da bidezkoa.

– Hain kirol gogorra eta...

Ihintza lasterka batean heldu da, alegera, bera baino handiagoa den koltxoneta laranja arrastaka dakarrela.

– Gregoriok puztu dit!

Haren atzetik dator, txuletak, untxia eta saiheskiak dakartzala.

– Oraindik ez al duzue ardorik zabaldu?

Sebastianek Cardhu botila seinalatu dio. Hori da bere estrategia arratsalde partean gidatu behar duenean. Gogorrenetik hastea, graduazioa gutxitzen joateko.

Isilik egin dute otordua, gogoz kontra janez. Ez eguraldia, ez urdaila, ez gogoa daude oturuntza handietarako.

– Guk itzuleran pentsatzen hasi behar genuke, Gregorio –Pilarrek, Sebastianen harridurarako–. Bihar goiz jaiki behar dugu: udalekuetara doa Ihintza.

– Ongi da.

Errudun sentitu da Sebastian.

– Hemen utziko dizkizuet Cardhu botilak.

Laurak bakarrik geratu direnean, animatuago dirudi Gregoriok. Bertan iraun eta jendea alde egiten has-

tea bataila bat irabazteko modua dela iruditzen zaio agian. Tropela, hori da behar duen azken gauza.

– Haragi gehiago norbaitek?

– Nigatik ez.

– Gutxi gelditzen da. Bukatu beharra dago.

– Nik hartuko nuke.

– Ondo, Ibai, hik balio duk hik.

Txemak hilko luke semea begiradaz, baina komikian murgilduta jarraitzen du hark. Banestoko bisera jarrita dauka berriz, atzerantz, raperoen estilora.

Haragia bukatu dutenean, arraina ere erretzeko eskaini du bere burua Gregoriok.

– Afari merienda –esan du–. Alferrik galduko da bestela.

Alferrik eta galdu, hitz gogorrak dira horiek. Inork ez du desadostasunik agertzeko kemenik izan. Parrillarantz abiatu da berriz.

– Egin zerbait, Txema. Zoratzen ari da...

– Zer nahi duzu nik egitea?

– Bederatzietan geratu naiz lagunekin –bota du Ibaik, komikia amaitu duenean.

Ez dira seiak oraindik. Eguzkiak, apur bat beheratuagatik, zuzen-zuzen apuntatzen du haien begietara. Dorreetako zaindarien ikusmenari traba egingo lio-

keenez argiak ordu horretan, ez litzateke kartzelatik ihes egiteko unerik txarrena.

– Donostiara bueltatu beharko genuke.

– Bueltatu zuek. Nik hemen pasako dut gaua.

– Nola?

– Ez kezkatu nigatik, Txema. Ondo nago. Autobusa hartuko dut bihar.

– Ezta pentsatu ere, Goyo, hori bai ezetz, ez haugu hemen bakarrik utziko!

– Zoazte. Benetan. Ondo nago. Nahiago dut bakarrik egon.

Gregoriok Cardhu botila seinalatu dio Txemari. Hori dela behar duen konpainia guztia. Ez da egia, baina –eduki behar zuen abantailaren bat– topikoek ongi funtzionatzen dute peñako lagunen artean.

Autoaren moteltasunarengatik asma daiteke, gidaria ez dagoela ez bere buruaz eta ez bere urruntze abiada eskasarekin bertan geratu denari eman nahi liokeen mezuaz oso seguru. Ibilbide hareatsuan urrundu da, hala ere, errepideak irentsi duen arte.

Bakean sentitu da Gregorio, bakarrik geratu denean. Bigarren freskeratik geratzen diren sardina apu-

rrak atera eta haiek erretzen hasi da, nahiz eta badakien gehiegi direla berarentzat, ez daukala goserik, ez duela bakar bat ere jango. Pattal samar sentitzen da, hori bai. Apenas edan duen ezer –urik ere ez–, eta itzala da gorputzak eskatzen dion elikadura bakarra. Eguzkiaren zigorkadak merezi dituela iruditzen zaio, bestetik. Eguzkipean, argia eta takigrafoak, bere lotsa urtu egiten dela sentitzen du; auzo-lotsa, seme-lotsa, alderantziz heredatutako lotsa sakon eta lingirdatsua gainetik ken dezakeela, izerditzearen izerditzez. Gaurdaino inoiz ez zuen pentsatu lotsa eta eromena txanpon beraren bi aldeak izan daitezkeenik. Ondoezik sentitu arren, lurrundu egiten zaio lotsa, edo lurruntzen zaiola sentitu nahi luke behintzat. Erretzen den parrillako ikatz begetalak ematen dion beroa gehiegizkoa da, ordea. Bero-kolpe bat den edo gorputzak aski dela esan ote duen, batek daki. Konortea galdu eta ziplo erori da Gregorio Iraola.

Patrikakoa jo eta jo ari da, sintoniarik gabe, ardiaren beea dirudien bibrazio beti berdinarekin. Zomorroren bat dabilkio eguzkiak gorritutako belarri-gingilean bestelako bibrazioak sortzen. Ez dirudi ez gogaitzen ez esnatzen duenik zomorroak hondarretan eroritako gizona. Berea ez dirudien arren berea den zurrunga

batek iratzarri duen arte. Non dagoen jakin gabe zutitu da, eta segundo batzuk baino ez ditu behar bizitzak duen gaiztoa ametsak kendu ez diola jabetzeko. Sardina belztuak bildu ditu parrillatik.

Iraolak birentzat jarri du mahaia. Semea besoak altxatuta dago. Giharrak beltzaran, baina argazkian besterik uste lezakeen arren, ez da urrea meatzetik atera duena. Argazki bat besterik ez da, bezperako egunkarikoa.

Bina sardina kiskali daude aurrez aurre jarritako plater banatan.

– Gogoan daukak, Fredi, nola gorrotatzen huen gure pareko bizilaguna? Baloia kentzen zizuen beti arkupeetan jolasten harrapatzen zintuztenean. Oroitzen duk nola lapurtu hizkion behin gutunak buzoitik? Igogailuan harrapatu hinduen, bere korrespondentziaren gainean txiza egiten. Ez diat inoiz halako lotsarik pasatu. Gogoan daukak, ezta?

Gainean duen plateraren koipe eraztuna xukatzen ari da zuri-beltzezko argazkia. Haizeak egunkariko orriak astintzen ditu.

– Badakik, Fredi? Hau ez duk hura baino okerragoa izango.

Kiskalitako sardinei bizkarrezurra kentzen hasi da, tentuz. Zuriguneak mamian. Salba daitezke zati batzuk.

– Baina jan ezak zerbait, seme. Hezurretan hagoeta.

Koltxoneta laranja ahaztuta utzi dute karabana ondoan. Galerna heltzen denean, haizeak eramango du, arin, urrunera, galdutako baloi bat bezala, hondartza basatietako beste batera. Ez baita hau bakarra, hondartza basatia. Asko daude halakoak inguru hauetan eta garrantzitsua da hori horrela dela jakitea. Hondartza hartan haur batek aurkituko du, beharbada, eta denok noizbait egin dugun keinu hori bera egingo du, koltxoneta muturra askatu eta berau besarkatu ahala husteko. Aire kamera bigun eta erori geratu orduko, plastikoak iragazitako haizea aurpegira etorriko da, betazaletara agian, sudurrera edo masailetara gero. Igarotako egunaren sargoria apur bat ahaztu eta inoren arnasaren hatsa sentituko du bere azalean, indartsu hasieran, ahulago ondoren, hauspoa galduz, poroak gozoki zulatzen dizkion jostorratza baino finagoa den hari batean desagertu arte.

Gero, halakorik baldin balu, trizikloa hartuko du neskatilak, hondartzatik gurasoen karabanaraino.

Gurpil sendoak izan ohi dituzte triziklo horiek: ez dira sekula zulatzen.

Sapore di sale

Gehiago erakutsi zezakeen eta gutxiago ere bai, ia hamabost urterekin eta bikini erosi berriarekin. Erabaki du, ongi pentsatu ondoren, ez gehiago eta ez gutxiago, erakusten ari den doia erakustea. Grazia eta kalkulua, bere ditu. Begira nola jarri duen toalla estreinatu gabea hondartzan eguzki izpien diagonalari jarraiki, egitura bat eraiki eta ordena bat bilatu asmoz, ez etzateko leku soil eta eroso bat bakarrik. Belaunen erpinen triangelua, aire zabalean da gaur geometria lezioa. Eskuak harean pausaturik dauzka, teletransportatua izateko zain. Izango da, egon lasai, pazientzia. Taupatu eta taupadarazten duten bi bihotz gorri dira eguzkitako betaurrekoak, biniloa bezain distiratsu atzerantz orraztutako ilea. Marra horiak eta zuriak dituzten parasolak dauzkate ingurukoek: berak ez du behar halakorik. Bizitza bazar turkiar bat da eta tratu bat tratu bat: eguzkiak indarra ematen dizu eta zimurra erantsi. Inork ez dio oraindik ohartarazi azal zurbilegia duenik eguzkitan luze etzateko. “Goazen gabarroira” esaten diotenean, “Geroxeago” erantzuten du

berak. Printzeak ez dira urdinak, itsasoa bai. Sapore di sale, sapore di mare.

Haren azaletik aparte ez dauden zenbait hitz edo esamolde: Txernobil, almendra, epidermis, la prueba del algodón. Gehiago ere aipa litezke.

Iraungitako espeziea da hondartzako saltzaile ibiltariena, ederra litzateke haiek berriz ujuka entzun ahal izatea: “Hay patatas, coca-cola y fanta, cerveza”. Edo, zirtolaria bazen saltzailea: “Hay coñac, whisky, champán, ginebra”. Nivea kremen garaia da, eta Niveak oparitutako baloi puzgarri erraldoiena, egokiagoak zirkuko itsas-zakurrentzat beste edozeinentzat baino. Suma ditzake hondarrezko gazteluak egiten: bereak izan dira agian. Ez dira gazteluak bereak direnak, ulertzen da. Txima bustiak lehoiek bezala astinduta zipriztindu dute mutilen kalparrek uretatik atera berri; haur traketsek hondarra bota diote lasterka doazela, eta ez bereek bakarrik. Toallatik harea aleak astindu ditu hasieran, baina gero ez. Ikasi egin du inbaditua sentitu eta ez haserretzen. Etzatea da bere lana. Nahikoa du ahoz gora; buelta eman du, ahuspez hainbeste denbora agoantatuko ez duela jakin arren.

Mila nobela lodi irakurri ditu bata bestearen segidan: errusiarrak hondartzan leitzea maite du, hori da

bere mania. *Gerra eta bakea*. Pospolo baten buru gorria bular ondoan. Ejertzito bateko kide sentitzen du azalean atera zaion pinporta bakoitza, etortzear den borrokarako prestatzen. Ez da konturatu inork zapaldu duenik, baina behatz ttipiko azazkala belztu egin zaio eta domino pieza sorta bat bezala erortzen eta hedatzen joango den ubeldura baten traza dauka. Agian belztu zaio, bizitza osoan behatz horrexen gainean eutsi diolako bere pisu guztiari. Haizeak pitzadurak eragin dizkio orkatiletan eta liken arrastoak utzi belaunen pean. Nabigagarritasun urriko txalupa denik ez du oraindik jakin nahi.

Borondate indar handia behar da eguzkiak alde egin eta denak zutitzen hasten direnean zuk etzanean eusteko: arriskua sentitzen duzu, zeure alboan mugitzen ari diren horiek zuk baimenik eman gabe beste norabait garraiatu edo lekualdatuko ote zaituzten beldurra. Mundua tokiz aldatzen ari da. Sendiak builaka, puskatu den familia auto barruan Ming dinastiako jarroi bat bezala itsasten. Mundua tokiz aldatzen ari da eta berak eutsi egin dio, heroikoki.

Gizon solteroak neguan metal-detektoreekin altxor bila. “Ez al nauzue, bada, ni ikusten?”. Beretzat ez da negu oraindik. Udazken ere ez. Uda betea da,

nahiz eta itzal bat suma dezakeen, hotzikara baten ertza. Hondartza sarrerako arbolaren bat izan behar du, itzalak luzatu egiten dira ilunabarrean. Arbolak ere bai, urteen igaroan.

Arrasteluaz berdindutako dunak, behin eta berriro arrasteluaz orraztuak. Hondartzan lortu nahi den marrazkiaren arabera, hortzak dituen aldetik pasa daiteke eskuarea edo hortzik ez duen aldetik. Txandakatzea onena. Ildokatu edo berdindu. Ereite edo lugorri. Piszina batean balego, igelak entzungo lirateke. Alpeetako aterpetxe batean balego, hotzaren oihartzun minerala. Baina hondartzan dago, olatuak entzuten dira. Eta hondartza bahe bat da, abrikot hezurrak eta sagarren haziak iragazten dituena. Saiheska albo batera ere etzan daiteke, nahi izatera. Betaurreko handiagoak ditu orain, Onassis Jacqueline. Ukabil bat bezala kizkurtu da bere gorputza; ez, ordea, inor kolpatzeko. Umeki esateko beste modu bat da ukabil.

Goiz berbera dirudi beti, baina ez da. Marea gora datorrenean, toalla hartu eta ertzetik urrutiratzeko joera dute udatiarrek: ez berak. Bustitzen bada bustitzen da eta kito. Badaki marea igo den bezala jaitsiko dela. Ez duela bera handik eramango, zorte apur bat badu, behintzat. Zortea bilatu egin behar dela, eta

zorterik behar ez dela dioena gezurretan ari dela. Zortea beti behar izaten da, eta isil-isilka eta emeki-emeki haren alde eskatzeak ez dauka otoitz egitearekin zerikusirik.

“Zuentzat posatzea nahi duzue? Ba jarri ilaran”. Eta jartzen dira. Galerna baten ondoren izterrak eta pubisa hondarrez estalirik, gerria laukitu zaio. Rubik kuboago da orain sagar baino. Batzuetan gertatzen da hezurren zurruntasuna nagusitzen zaiola beste guztiari, eta ahaztu egiten duzula soinean zer zeneraman. Begiak zabaldu behar lituzke gaur ekarri duen bikinia zein koloretakoa den oroitzeko –gaur goizean izan da, ala?–, baina ez du begirik zabaldu nahi. Zesarri Zesarrena, eta hareari harearena.

Ez dago bikinirik gehiago edo haragi kolorekoa da orain, haizeak higatu diolako.

Abia zitekeen farorantz. Baina zertarako, berarenganaino heltzen bada itsasargiaren segaren puntaren punta?

Hondartza bat norberarena. Sabela leku delikatua da. Zirku horretan, sedimentua diren hosto ttipiak –hautsa ia, baina ez zehazki– eta hondar aleak, zilborraren bila zirimolaka dabiltzanak. Urakan baten begia

nahi dute, bakea topa daitekeen leku bakarra baita urakanaren begia.

Letagina du okerra, eta lehen ez zion horrek enbarazurik egiten. Orain bai. Horren zergatia ulertu baino, nahiago du bere gainerako hortzetan arreta jarri. Hatzarekin ukitzen du bere hortzadura osoa: okerra, zuzena, zuzena, zuzena. Hortz zuzenen gehiengoak kontsolatzen du. Mila bider egin lezake, azazkalekin hortzak ukitzearena. Azazkalak, hortzak: hil ondoren irauten duten zure zatiak dira biak. Non dago esku-liburua, dena den? Inork ez zion abisatu egunek aurrera egin ahala ezpainak desagertzen hasiko zitzaizkionik. Sapore di sale, sapore di mare, sapore di te. Titimuturretaraino sartu zaizkion hondar aleak badaki zehatzmehatz zenbat diren, mentalki zenba ditzake, eta museko tantoak bezala gatz aleetatik bereizi.

Milaka postal idatzi ditu, buruz, “Adiskide maitea” hitzekin hasita ia beti. Bizpahiru gutun luze beste era batera hasi ditu, adiskide hitza erabili gabe.

Zaparradak iragarri dituzte eta heldu dira. Purifikatzea beti dago ondo, horrek esan nahi dezakeen arren lokatz bihurtuko dela hondartza, arrisku hori ez dago saihesterik. Hondartzaren eta zingiraren artetik

ziztuan doan piztia zein den, zakur izan ala ez, nekeza da ezagutzen, azkarregi doanez.

“Laztantzen banauzue, ez naiz hain azkar zahartuko. Ukitzen bazaituztet, urte gehiago biziko zarete”, horiek bezalako egia single eta biribilak, noiz frogatuko ditu zientziak eta nola? “Bolondres eskaintzen dut nire burua”. Nik ere eskainiko nuke.

“Larrua jo nahi didazue? Ba jarri ilaran”. Eta jarri dira. Jada ez da biluzik sentitzen, mailegatutako azalarekin egindako amantal bat soinean balu bezala baizik. Seme-alabekin gertatzen zaiona: ziur dagoela denborak ernaldu dizkiola eta hiriak, uretatik ateratzean tximak astindu eta urez zipriztindu duten mutikoek eta eman dituen pausoek ernaldu dutela, alegia, bere sabela, ezagutu dituen ofizioek, eta ez, sekula, gizonezko batek. Batzuetan karramarroa izan da alutik atera zaiona eta zailtasunak izan ditu neska ala mutila ote zen jakiten. Konturatu da berari baino gehiago inporta zaiela hori inguruko parasolen azpian bizi direnei.

“Jipoitu nahi nauzue? Ba jarri ilaran”. Ekaitzak zigortutako emakumea, haurrek gorputz-adarrak erauzi dizkiotena, tximistak jotako arbola, enbor bat zen jada zuhaitza gainera etor zekion baino askoz lehenago

ere. Tximista batek harrapatu du arbola edo nahita aizkoratu dute? Edozein kasutan, espero ez zen lekuan erortzera doa, edo agian espero zen bertan erortzea, baina ez dute neskatila ikusi eta ez diote abisatu. Bere gainean erori da bete-betean. Berak ez du zirkinik egin. Alderantziz: besarkatu egin ditu zuhaitza eta haren etorrera. Berriz ere igoko da marea, enbor erori bat ez da bizileku txarra, barruan edo azpian egonagatik, ze alde dago. Flotatzea da kontua.

Hondartzan geratu den enborrak bere kobra azala galtzen duenean –esan dugu denbora kontua dela dena–, eseriko dira bere gainean Valeria eta Paola, Stefano eta Enricori buruz hizketan, forse solo chi non può camminare può veramente volare, ipurmasailak eta eskuak enborraren leunean bermatuta –enborrek ere badute euren taupada, bazenekien?–. Hondar hezean agertu diren txirlei begira daude, edo haiek baino bi urte zaharragoak diren gorputz gazteei. Koko bizarrak, apar urrunak. Neskatxa italiarrak txalupei begira, txalupak ikusi bai baina txalupa barruan gertatzen dena guztiz igarri gabe ideal ezkutu bat irrikatzen dutela, etorkizunari begira, nola esan, ez etortzeke dagoen sasoiari bezala, hara joan eta handik itzultzea aukerakoa den leku bati bezala baizik. Beste leku as-

koren artean leku bat gehiago besterik ez balitz bezala hura.

Jarri dituzte berriz Gurutze Gorriko postua eta igeri-eremua bereizten duten buiak. Sapore di sale, sapore di mare, sapore di te. Begiratu hobeto. Benvenuto eta arrivederci. Hondartza ez dago sekula hutsik eta zazpi ezberdintasun daude ongi etorri eta agur hitzen artean. Are gutxiago, agian. Hala ere, ez ditu oraino inork asmatu.

Ezta hondarretan etzanik eskuarekin agur-agur egiten dizun neskatila horrek ere.

Maiatzaren 1eko zubia

I

Izan daiteke haren susmoa edo izan daiteke zure nekea. Hura ez delako zurekin fio edo zuk haren aurrean guardia jaisten duzulako. Maisutasunez edo tentu onez saihestu ahal izan dugun xehetasun horietakoren batek ezkutuan egoteari uzten dio. Lehen ez zekien eta orain badaki. Eta, hara, tupustean dena aldatu da.

Ohetik albisteak ikustea gorroto nuela bazekien arren, telebista piztu zuen Raulek.

– Raul...

– Bederatziak jo berri dira. Titularrak bakarrik.

Erloju bat bezala funtzionatzen zuen. Ordura arte ezagutu nituen gizonezkoetarik bat bakarrak ez bezala, autokontrol miresgarria zeukan, porno izarrei suposatzen zaien eusteko gaitasuna. Gustatzen zitzaidan, zertan uka, nahiz eta sekula ez niokeen hori aitortuko, nahiz eta batzuetan apur bat izutu ere egiten ninduen bere kontrol ahalmen hark, hain zen diferentea senti-

pena denbora baino lehen urtzen zitzaizkizun gizonezko babesgabe eta bat-batean-urritu haien alboan. Lau hankatan larrua jo ondoren (“la postura de la lavandera”, esaten zion Raulek), nire bizkarrean isuritako hazia lehortu gabe artean, beste nonbait zeukan berak burua. CNT, UGT, CCOO, ELA, LAB. Maiatzaren 1eko manifestazioen berri ematen ari ziren albistegian. Langilearen Eguna: urtebetetze tarta bateko kandelen gisako banderatxoekin sindikalista burumakurrak kalean behera. Itzalitako kandelak, beti ere. Euskal sindikatu abertzaleak, azken zazpi urteetan lehen aldiz, elkarrekin mobilizatu zirela azpimarratzen zuen Espainiako kate publikoak.

– Euskal sindikatuak. Horiek jarriko nituzke nik legez kanpo hurrena.

Prest egon behar nuen halako baterako. Ez dakit zer beste espero nuen, baina esaldi hori ur txarro izoztua izan zen kolkoan behera. Harritu egin ninduen nire haserreak, Raulek gutxi inporta zitzaidan niri buruzko zerbait gogorarazi izan balit bezala. Edo, gutxi inporta zitzaidala *uste nuen* zerbait gogorarazi izan balit bezala. Nire haserreak harritu egin ninduen, lehenbizi, eta nire harridurak haserretu, gero. Raul ez zen jabetuko akaso, baina nire sedukzio ahalmenen dominatzat

hartu ohi nuen gerri pareko lingirda izaren kontra igurtzi nuen, bat-bateko azkura batek erasanik. Handik urrun egotea gura izan nuen.

Purrustadari erantzutea izan zen nire lehen akatsa.

– Sindikatuak besterik ez dira, Raul.

– Separatista bazternahasleak eta terroristen laguntzaileak, esango nuke nik.

Isilik geratzeko zuhurtzia izan nuen hasieran. Dena ahaztu, telebista itzali eta Raulen lepoa musuka jatea izango zen onena, haragiari haragiarena eta politikari politikarena, ez zegoen zertan biak nahasi, azala eta mamia. Zer zen azala eta zer mamia, ordea? Ez ote zuten biek bietarik? Musukatzen den lepo bat, kasu, mamia da edo azala?

Leihora hurbildu nintzen begiak malkoz bete zitzaizkidalako amorraturik. Ez nuen nahi Raulek ni horrela ikusterik. Eta, batez ere, ez nuen Raul begi bistan ikusi nahi.

Leihoaz bestalde, Madrilgo teilatuak. Eraikin erlijioso eta monasterio gehiegi nire gusturako: onuragarria zatekeen elizaren eragina paisajearentzat, ez hainbeste oinezkoen bizitzarentzat. Raulek esan izan ez balit sekula bereiziko ez nukeen etxe arre, soil bat

ere ikusten zen handik: “Han bizi izan zen zure herrikide Pio Baroja”. Samurtasunez bota zidan oheratu ginen lehen gauean, duela mila urte, eta nire xalotasunean, iruzkin soil hartan harreman bat merezi zuen norbait ikusi uste izan nuen. Ez dut gogoan orduko hartan oheratu ondotik albisteak jarri ote zituen telebistan.

– Nire osaba bat hil zuten, badakizu?

Ez. Ez nekien eta ez nuen zertan jakin. Ez, arren, ez. Ez nuen hortik segitu nahi.

Hura entzun ondoren oin puntetan muin ematea esperoko zuen agian, leihotik apartatu eta entzule ulerbera bihurtzea, osabaren heriotzak bere etxean eragindako traumak eta herrak justifikatuko zituzten hitzak xuxurlatzea, “ez dago eskubiderik, laztana; putre bihozgabe horiek”, edo, nork daki, “heriotza zigorra berriz ere indarrean jarri behar litzateke dohakabe horiei txanpon berarekin ordaintzeko”. Leiho ondoan segitu nuen, ordea. Behazunez bildutako hitz zinikoak baino ez zitzaizkidan atera.

– Sindikatuek hil al zuten zure osaba?

– ETAkoek, jode. Autobus militar bat zartarazi zuten. Ni umea nintzen, artean. Lehen ilaran zihoan eserita. Atzekoak soilik atera ziren onik.

Isilik geratu nintzen, zirkinik egin gabe.

Raul zerbait susmatzen hasi zen, itxuraz, sumintzera egin zuen-eta haren haserreak, hark aurreikusitako jarrera ulerbera, haren saminarentzako kontsolamenduzko burko bilakatu behar ninduena, gauzatu ez zela ikusita. Zer nahi zuen, bere mendeku goseari eusteagatik kondekorazio bat ematea? Agian hobe zuen behingoz mendekatu, edo squash-ean bere bortxakeria guztia hustu. Baina ez. Ongi pentsatuta, horretarako zeukan sexua.

– Ondo al zaude? Zer gertatzen zaizu?

Galderak baino gehiago, zaunkak.

Ahulegi sentitzen nintzen elkarrizketa hari jarraipena emateko. Horren ordez, ohera itzuli eta Raul besarkatu nuen. Haren hatzak sentitu nituen gerrian nire azal oiloipurditua laztantzen, hazia isuri zuen lekutik gertu. Garbitu arren han jarraitzen zuten hazi-ezkata haiek, berak ernaldutako arrain bihurtzen nindutenak.

Babesa sentitu nuen. Eta nazka.

– Bakarrik egin al duzu bidaia? Ez zinen autoz etorriko...

Baietz eta ezetz esan nion. Bakarrik etorri nintzela, baina autobusez. Ez, ordea, berak espero zuen autobusean.

– Badakizu nahiago dudala nire kasa etorri eta ez presoen kolektiboak antolatutako busean. Badakizu zubia dela, atzo iritsi nintzen.

– Atzo?

– Madrilen igaro dut gaua.

Zimurtu egin zitzaion ahizpari kopeta.

– Hotel batean? Arruinatuko zara...

– Ikasle garaiko lagun baten etxean. Zerbaiterako balio behar du Opusen ikasi izanak, ala?

Karrera Bilbon ikasteko aukera izanda Iruñea hautatu izana leporatu ohi zidan ahizpak. Gurasoei zenbat gastarazi nien unibertsitate pribatuarekiko nire hautuaren *erruz*. Alferrikakoa zen ideia aitarena izan zela gogoraraztea. Kartzelara egin beharreko bisita guztietako errutina zen hura: ahizpak arrastoan sartu nahi ninduen, *kolektibokoekin* harremanik ez nezala galdu, baina gero eta leunagoa izaten zen haren erretolika.

Ez zuen merezi zenbait gai behin eta berriro aletzea, espetxera sartzeko funtzionarioek ezarritako umiliazioak aitatzea merezi ez zuen bezala. Ez nion esan, esate baterako, birritan biluztu nintzela azken hamabi orduetan; baga, Opusen ikasitako nire ikaskide ohiaren ohean sartzeko, eta biga, funtzionarioek hala behartuta, bera ikustera kartzelara sartu ahal izateko. Nahi nuena lortzeko ordaindu beharreko prezioa: biluztea.

– Kolore ona daukazu. Nola daramatzazu ikasketak?

– Datorren astean datoz azterketak egitera.

Magisteritza amaitu ondotik, Historia ikasten ari zen Aitziber kartzelan. Nork esan behar zuen, gaztetan eskola herio suhar gorrotatu eta orain hain gogotsu ekingo zionik. Bikietan nik jaso omen nituen ikasteko dohain guztiak, hala zioen amak, baina denborak erakutsi zuen ez zela egia.

– Nola dago ama?

– Hainbestean. Jada ez dabil Ferminekin, emaztearengana itzuli da hura, aurreikustekoa zen bezala.

– Jakina, zuk dena aurreikusten duzu.

Hazi-ezkatetatik arnasa ezin hartua. Ez nion amu hari heldu nahi.

– Turismo agentzia batean lan egiten duen tipo batekin hasi da. Ama baino zortzi urte gazteagoa.

– Bejondeiola. Galdetzen al du nitaz?

Azken eztabaida izan zutenetik ez zen ama Aitziber ikustera jaitsi. Gezur bat, noizean behin:

– Bi aldiz deitu du gaur goizean. Esan diot eguerdira arte ez zintudala ikusiko.

– Ziklo politikoa aldatzera doa, horrek goxatuko ahal du.

Ziklo politikoa aldatzera zihoan, bai. Oraindik ez zegoen guztiz garbi, baina ika-mika askoren ondoren, Auzitegi Konstituzionalak ezker abertzalea udal hauteskundeetan egotea ahalbidetu zezakeen. Nire senarrak fede itsua zuen legalizazioan. Ikasle garaian Zigor Zuzenbideko irakasle izan zuen magistratu bat zegoen, nonbait, Konstituzionalean: epaile progresista bat, bilbotarra, “izan genuen irakaslerik onena”.

– Niri ez dit gehiegi eragingo. Bestela ere hiru urte falta zaizkit kondena betetzeko. Baina presoen kontuak bultzada jasoko du beharbada.

Bikiak elkarren pentsamenduak mintzatu gabe bereizteko gai zirela esan ohi zen, kontinente ezberdinetan egonagatik aldi berean gaixotzen zirela, izaten zutela besteari gertatuko zitzaizkion gaitzen aierua, te-

lepatikoki elkarren heriotza igartzerainokoa. Ez zen gure kasua. Gaua eta eguna bezalakoak ginen. Nolatan hartu zuen Aitziberrek hartu zuen bidea? Politikaz etxean txintik ere entzun ez zuena, familia apolitiko batekoa, ez nuen sekula ulertu nola hasi zen, berak zioen bezala, “militatzen”. Jarraiko mutilen batekin zebilela, gau giroa, festa, gurdia eta ipurdia nahastu zituela, auskalo... Ez genion horri buruz sekula galdetu, ez amak eta ez nik, ez Aitziberri eta ezta, nire senarraren gomendioen kontra, kasua eraman zuen ezker abertzaleko abokatuari ere.

– Ez al da gazteegia abokatua? –galdetu zion amak Aitziberri.

– Zaharrak kartzelan daude, denak.

Nik fakultatean apunteak hartzen nituen bitartean, apunteak hartzen zituen ahizpak ere; gure auzoko zinegotzi sozialista baten ordutegien berri, zehatzmehatz. Komunikabideetan agertu ziren berak egindako *txosten* horien zati batzuk, udan non bainatzen zen ere zehazten zutenak. Bereziki doilorra eta auzo lotsa eragiteko modukoa iruditu zitzaidan detaile hura, “Hendaiako eta Hondarribiko hondartzak gustatzen zaizkio”. Bonba jarri zioten zinegotzi hari autoan, baina ez zen lehertu. Urte parrastada erori zitzaion

arren, txar-txarrean, ez zen hain larria ahizparen kasua, odol deliturik egin ez eta berak emandako informazioarengatik ez baitzen inor hilik suertatu. “Gutxienez, orain badaukagu hura non bisitatu”, esan ohi zuen amak harekin haserretu aurretik. Berrogeita bat urte izango zituen askatutakoan. Bizitza berri bati ekiteko ez hain berandu, finean.

– Izan al zinen Basteroren omenaldian?

ETAk urtarrilean su-etena aldarrikatu eta bake prozesua ahalbidetzea posible egin zuten kideetako bat zen Bastero. Eta ez. Ez nintzen haren omenaldian izan. Beldur nion Aitziber irtengo zen egunari, zentzu askotan: ez zezala, behintzat, haren omenaldia antolatzeko nirekin kontatu.

– Badakizu Bastero aitaren laguna zela, ezta?

Jakina, aitaren laguna zen: baina aita duela hogei urte eraman zuen biriketako minbiziak, “zorionez garaiz”, pentsatzen nuen batzuetan.

– Ez etsi, Idoia.

Zer esan behar nion? Ez zela hura hitza? Ez nengoela, inolaz ere, etsita? Segitzen nuela, berak bezalaxe, nire erara “borrokan”, itota nengoela lanarekin, enpresa-zuzenbideak zurrupatutako senarrarekin eta bi urteko alabarekin, gustura etortzen nintzela Madri-

lera Raulekin larrutan egitera eta Reina Sofia Museoan zer zegoen ikustera? Koartada ederra zela bera niretzat, nahiz eta ahizpa nintzen aldetik nion maitasuna aspaldi apaldu eta epeldu? Duela urte asko bihurtu zela harekiko nire samurtasuna automatismo afektibo urruna; elkarrekin txikitan ateratako argazkiak ulergaitz zitzaizkidala orain, ez nuela nire burua ezagutzen, eta ez nuela bera ere ezagutzen nire ondoan barrez, biok elkarren hain antzeko eta ordezkagarri, garai bateko erretratu haietan?

Biki guztiei gertatzen zaien legez, nahastu egiten gintuzten askotan. Bikiak izateaz gain, oso gara biok amaren antzekoak, ahotsa ere ez zaigu telefonoz apenas bereizten. Harri eta zur geratu nintzen behin Donibane Lohizunen ikusi eta kasurik egin ez niela leporatu zidaten ezagun batzuekin. Ahizpa zen ikusi zutena, jakina, ez ni. Urduri jarri zen Aitziber Donibanen zer egiten zuen galdetu nionean. Nola ez ote nintzen orduan jabetu?

Etakide guztiak bezala Madrilgo Auzitegi Nazionalean epaituko zutela jakin nuenean, ezin izan nion Rauli deitzeko tentazioari eutsi. “Aspaldiko”. “Bai, aspaldiko”. Esan gabe doa, Rauli ez niola sekula egia ai-

tortu: lan bilerak aitzakiatzen nizkion beti. Edo oporretako zubiak, oraingoan bezala.

Bizpahiru urte lehenago Frantziako kartzela batera anaia bikia bisitatzera joan eta harekin trukatu zen gizonarekin akordatzen nintzen tarteka. Anaiarekin bisean bisekoa izan eta gero, bisitaria geratu zen espetxean anaia kartzelatuaren ordez, arropak aldatuta. Filmetako ihesa, baina benetan gertatu zen. Hogeita lau ordu geroago, iheslaria jada leku seguruan zegoenean, egia aitortu zuen anaiak: “ez naiz ni preso egon behar lukeena”. Ihesean laguntzaile izateak Frantzian zenbat urteko kondena duen ez dakit, baina ekintza pagaezina iruditzen zait anaia modu soil hartan askatu izana. Zenbat maitatu behar da anaia bat hori egiteko? Sinestezina neritzon halako eskuzabaltasuna izateari. Nik ez nuen sekula Aitziber horrenbeste maitatu, ezta hurrik eman ere. Larrua jo bai, baina maite ez nuen gizon batekin oheratzeko aitzakia bezala erabiltzen nuen. Lotsatu egin behar nuke eta lotsatzen naiz. Ez dit, ordea, horrek bizirik segitzea eragozten.

Musu eman diogu elkarri. Estu besarkatu nau Aitziberrek.

– Maite zaitut.

– Nik ere bai.

Konturatuta ote dago Aitziber agurreko erritual horretan “nik ere bai” esaten duena ni izaten naizela beti?

III

Luze egiten da Aranjuezko kartzelatik Raulen etxerainoko joan-etorria. Autobus urbanoa lehenbizi eta hiru ordu laurdeneko tren bidaia ondoren, Soleraino. Gainera, jai eguna bada, hobe trenik ez huts egitea, hurrengoaren zain asper-jorran geratu nahi ezean. Itzulerakoan, ezin dut kartzela zigorra trukatu zuten bikien istorioa burutik kendu. Demagun guk ere gauza bera egin dugula. Demagun Raulena kontatu diodala eta haren etxean lo egin behar duena Aitziber dela gaur gauean eta ez ni. Lortuko ote luke Raul engainatzea? Eta, ahal izatera, jasango ote luke Aitziberrek? Eutsiko ote lioke mihiari suminari amore eman gabe, Raulek euskal sindikalistak iraindu eta haien ilegalizazioa eskatzean? Eta nik? Lortuko ote nuke nik kartzelara egokitzea, zigorraren nire zatia betetzea, egun bakar bat espetxeko zulo ilunean igarotzea?

Raulen apartamentura heldu naizenean bera ez dago etxean. Sukaldeko mahaiaren gainean, inpresoratik atera berri diren tinta usaineko orrialde batzuk baino ez. Internetetik hartuak, jakina. Denok barruan daramagun fiskala, komisario-burua, Anaia Nagusia: Aitziberren argazkiak, haren atxiloketaren albistea, epaiketaren kronika... Googleren kortesia. Gertatu behar zuen lehenago edo geroago, eta gertatu da. Ez da inprimatutako paper horietan abokatuarekin hizketan agertzen naizen argazkia ere falta, “causó estupor el gran parecido de la terrorista con su hermana”. *Bikiak* esaten zaio horri, adiskideok, Madrilen ez al daukazue halakorik?

Post-it bat ere utzi du Raulek. Ohartxo hura gabe dena aski garbi ez balego bezala.

“Zortzietan itzuliko naiz. Ez zaitut berriz ikusi nahi”.

IV

Zineman eman dut arratsaldea. Ez nuke halakorik egin behar, gerora ere Donostiara doan autobuseko besaulkian jesarrita pasako ditudalako bost ordu,

baina ez zait hoberik bururatu. Paolo Sorrentinoren film bat da: *This Must Be the Place.* Talking Headsen aspaldiko kantu baten izenburu bera zuelako sartu naiz. Ezustean, mendekuari buruzko tesi bat topatu dut pantailan. Sean Penn grotesko bat bere aita kontzentrazio esparru batean torturatu zuen nazi zaharraren bila dabil AEBetan barrena. Bilaketa luzearen ondoren, Utahko lautada izoztu eta isolatu batean topatu du ehun urtetik gertu den aitona nazi jada ezgaia. Kontenedore itxurako borda batean bizi da orain. Betaurreko beltzak janzten eta kentzen ditu etengabe naziak, egindako astakeriak aitortzen dizkion bitartean. “Infernuaren aurretik, bizitza bat neukan nik ere”. Sean Pennek eguzkitako betaurrekoak kenarazi eta, agure naziari argazki bat egin ondoren, basamortu izoztura aterarazten du arrastaka, biluzik, gizon hebaindu ezin axalago, ezin zimurtuagoa. Dardarka dago, eskuekin bere lotsariak tapatuz, ahotik lurruna dariola. Umiliazio pribatua al da antzinako mendekuaren ordezko zibilizatuagoa? Ez du hirurogeita hamabost metroko distantziatik gizaseme bat inpunitate osoz hiltzeko erosia zuen prezisio handiko pistola erabili beharrik. Beste bat da Sean Pennen mendekua, teatralagoa. Kontzentrazio esparruko eszena errepi-

katzen da, borreroa biktima bilakaturik, hirurogeita bost urte geroago: gizon bat, hezur eta axal, elurretan oinez. Denbora bada, berez, aski kontzentrazio esparru. Denbora larregi igarotzea bera bada, berez, nahikoa Auschwitz.

“Hiltzeko modu asko daude eta bizirik segitzea da denetan txarrena”.

V

Patrikakoa jo eta jo ari da. Segi dezala. Ez dut erantzuteko asmorik.

Autobus geltokiko tabernara sartu naiz.

– Muy buenos días, señorita.

Ni bizi naizen lekuko gaztelania ez da horrelakoa. Gutxitan esaten didate *señorita*, eta egun onak ere, egun onak dira, *buenos días* soilik. *Muy* hori, bakan.

– ¿Desea usted tomar algo, señorita?

Desea hori atsegina egiten zait, halaber, nahiz eta Madrilen batzuetan narritatu egiten nauen gehiegizko atentzioak. “Esango banizu zer desio dudan benetan”.

Ardo bat. Ea urtekoa nahi ote dudan. “Crianza”, nik.

Ardoa botilaratu zuten urtea irakurri dut: ahizpa kartzelan sartu zuten urte bera da. Zenbakiek badute nigan botere halako bat, ez dakit azaltzen oso ongi zergatik. Numerologo amateur bat naiz, beharbada. Urtea osatzen duten lau zenbakiak batu egiten ditut bi lortu arte. Gero bi horiek berriro batzen ditut, bat bakarra izan arte. Ez du horrek ezertarako balio, badakit. Gauzak kaxoietan ezkutatu edo armairuak txukuntzearen antzeko zerbait da, hala ere. Garai batean gauza bera egiten nuen telefono zenbakiekin. Orain jada inork ez daki telefono zenbaki bakar bat ere buruz.

Patrikakoak enbarazuan darrai barra gainean. Ardo kopa ukitu du bibrazio batekin. Topa mikatza. Kamareroak, dena baleki bezala, susmati begiratzen dio mobilari. Susmati mobilari, eta konplizitatez niri.

– Insistente el chaval, ¿eh?

Dei ote dakioke irribarre egin dudan imintzio honi? Raulen enegarren SMSa.

Post-it-a ez da, nonbait, nahikoa izan.

“Nor zara?”.

Demagun oraingoz, Madrildik etxera eramango nauen autobusean besterik bururatu bitarte, “nik ere bai” esaten duen bihozgabea naizela.

Idatziko ez dudan SMS bat, Rauli erantzuteko: “Gehiegi egin dut zugatik baina ez zaitut faltan botako”.

Gustatuko litzaidake munduaren alde edo nire buruaren kontra zerbait egiten saiatzea. Momentuz, ardoaren prezioa bikoizten duen eskupekoa uztea da autobusa hartu aurretik egin dezakedan bakarra.

– ¡Muchísimas gracias, señorita!

Intermitentea martxan du autobusak; ezin, hala ere, argiaren ñirñirra konplizitate keinutzat hartu. Txoferraren paretik igarotzean Real Madriden banderatxoa ikusi dut kristalean zintzilik. Etsipen irrazionala eragin dit milaka askotako talde baten partaide sentitu ezinak. Nahi dut, baina ezin dut. Zergatik ez uko egin indibidualitateari, nortasunari? Zergatik tematu “jende” ez izaten? Zergatik ez utzi masak irents gaitzan?

Norbait dago nire eserlekuan eserita. Gominaz orraztutako gazte bizardun bat.

– Ze zenbaki daukazu?

– Hamazazpigarrena.

“Nik ere bai”, nik ere horixe daukat, bat gehi zazpi zortzi, hamazazpigarrena. Baina testuinguruak hitz horiek erabiltzea eskatu arren –“nik ere bai”–, badira

hain denbora tarte laburrean birritan erabili ezin diren esaldiak.

Ez daukat gominaz orraztutako bizardunarekin eztabaidatzeko gogorik. Gainera, azkeneko ilaran bada sobera leku libre. Harantz noa zuzenean, otzan. Nigeriarrak, marokoarrak, errumaniarrak dira nagusi. Adineko emakume bakarrak konplizitate keinua egin dit: “Konturatu al haiz? *Zuri* bakarrak gaitun hi eta biok azken ilara hauetan”. Sorrentinoren filmeko agure naziarekin gogoratu naiz: urteren bat gorabehera, atso hau izan zitekeen haren emaztea.

Poliki arrankatu du autobusak. Tarte bat beharko du oraindik Madrildik irteteko. Diotenez, zenbat eta atzerago eseri, orduan eta aukera handiagoa zorabiatzeko.

Erreka

Kanpin aulkietan eserita zeuden bi bikoteak, termoko kafeari azken hurrupak kendu berri, errekako ura ilunen eta geldien den gunetik gertu. Kanpotik gorriak eta barrutik zuriak ziren katiluetan, uholdeek garajeetako hormetan utzi ohi dituzten lokatz markak. Kafea azukrerik gabe hartu zuten, eta, agian horregatik, erle lehiatsuek errespetatzen zizkieten oraingoz bazkalostea eta euren janari hondarrak. Zomorroek ez dute kafea maite.

– Kristaletik ez, Unai, heldu betaurrekoei patillatik –esan zion Edurnek semeari.

Kermanek kontu handiz sartu zituen meloi azalak ongi korapilatutako plastikozko poltsara. Ramonek gaitzespen txiki baten eran sentitu zuen keinua, aurreko igandean azalak jaso gabe kanpoan utzi baitzituen berak, inurri gudaroste aski ongi antolatua erakarriz azken burukoetan. Txantxa baterako balio izan zion: “*Efecto llamada*, esaten dio horri Barne ministroak”, baina konturatu zen Kermani ez ziola inurriak barrandan izateak batere graziarik egin. Txukundadea eta diziplina garrantzitsuak ziren harentzat, geratzen

zitzaion ile apurra arretaz orraztu edo bizarra egunero errotik egiteko zeukan ohituratik beretik hasita. Kermanenak baino nahasiagoak beti Ramonen txima luzeak, zaindu gabea behiala hippie izandako bizarra.

Kerman eta Ramon, elkarrekin zerikusirik ez zuten bi gizonezko, kanpin aulkietan jarrita, aulkiok duten bi egokieren artean bana aukeratuta (deseroso/etzanik), horretan ere hain ezberdin: luze etzanik Ramon, deseroso eserita Kerman. Interesgarria zatekeen alde bateko zein besteko bizitzako gertaerek euren itxuran eta jarreran zenbat eta nola eragin ote zieten haiek hausnartzen entzutea, baina ez zuten sekula horri buruz hitz egingo.

– Garbitu dizkizut, baina aurrerantzean saiatu patillatik heltzen.

Edurnek semearen betaurrekoetatik hatz markak ezabatu bezain pronto, txotxez eta adarrez egindako etxeari teilatua jartzen ari zitzaion lehengusuarengana itzuli zen Unai lasterka, eraikitzen ari ziren etxola bertan behera ez erortzeko gakoa bera handik sobera ez urruntzean zetzala uste balu bezala. Gutxitan ikusi zuen amak Unai ardura bati hain lotuta.

– Pozik dirudi.

– Ez du inoiz poz faltarik izan, jainkoari eskerrak. Poza ez. Hori ez zaio falta izan, ezta Edurne?

– Ikerrekin gustura ibiltzen da.

Lehengusuen gurasoak ezin izan zitezkeen bata bestearengandik diferenteago. Izatez, bikote bakoitzeko kideak berak ere ezberdinak ziren elkarrekiko; ez zen han, urte luzez elkarbiziagatik, bikoteak senidetzen dituen mimetizaziorik gertatu. Elkarrena adostetik baino, norberarena ezabatzetik etorri ohi da sarri konpartitutako zorua, simetria goxoarekin nahasi arren, kamuste mikatzarekin zerikusi gehiago daukana. Ez bikote bien artean, ez bikote bakoitzeko kideen artean gertatu zen halakorik, ordea.

Edurne musika irakaslea zen, anglosaxoniarra janzkeran, luteranoa ez esateagatik; aurpegi zurbil orinez betea, Eskozian egindako ikasturte hark zurrupatu izan balu bezala betirako eta molde zurrun eta iraunkor bat hari ezarri, bere bizitzan bizi izandako atzerriko abentura bakarrak zizelkatua berau, duela ia hogeita hamar urte. Kermanek, senarrak, aurrezki kutxako sukurtsal buru ohia, berrogeita hamabost urterekin lortu zuen erretiroa eta Behar Berezidun Haurren Gurasoen Elkarteari ematen zizkion geroztik bere onenak. Ikerren gurasoak medikuak ziren biak: gine-

kologoa Ramon eta psikiatra Belen. Osasun publikoan lan egiten zuen Belenek, bere kontsulta pribatuan Ramonek.

– Iker ere gustura ibiltzen da zuenarekin.

Profesionala ala ez, deformazio bat bazen, behintzat. Belenek ezin saihestu izan zuen azken hitzen analisia. Beti egiten zuen, etengabe: esaten zuena aztertu, kinkan jarri, bere buruari errieta egin. Bazekien ez zela osasungarria, jakina, baina urte gehiegi zeramatzan bere buruarekiko mesfidati eta alerta egoeran. Hain sentitzen zuen nortasunari atxikia portaera masokista hura, ezaugarri hori erauziz gero mamirik intimoena arantza harekin batera kenduko lukeela uste baitzuen.

“Zergatik esan duzu hori, Belen?”.

Lehenik eta behin, Unairi izena ukatu eta “zuena” atributo posesibo bilakatzeak zekarren deserosotasun inplizitua zegoen. Eta bigarrenik, eta okerrago, beharrik ez zegoen lekuan gezur bat esatekoa: Ikerri Unairekin ateratzeak kasketak eragiten zizkion garaia aspaldi igaro bazen ere –ahaidetasunak laguntzen zuen horretan–, “gustura ibiltzea” ez zen egiari zehatzen lerratzen zitzaiona. “Ume bat bezala portatzen da”, kexatzen zen Iker, eta barregarri bezain samur suerta-

tzen zen iruzkina, Unaik zortzi eta Ikerrek zazpi urte baino ez zituzten garaian. Edurne eta Belen ahizpak ez izatera, joango ote ziren igandero elkarrekin txangoan bikote biak eta bi mutikoak? Ez, alajaina.

– Ez sartu uretara hortik. Sartu hemendik, ura ez dago hain sakon. Eta kasu egin zure lehengusuari, ez putzurantz urrundu.

Sasoia izatera, norbait ibil zitekeen izterrerainoko botak jarrita arrantzan, baina ez zen amuarrainetarako garaia. Errekako urak soilik duen tintaren izaera lodi, eta aldi berean berdea nagusitzen zen putzuan. Tintaren kualitatea nagusitzen zitzaiola, alegia, koloreari. Ortzadarrean dauden kolore ahul horiez erabat bestaldera, egiazkoa zen hura, benetakotasuna zerion. Egia zahar bat zen putzuaren infusio sasia, nolabait, itsasoko olatuez oso bestelako murmurio bat: ez errepikapenarena, emariarena baizik, joan bai, eta, behin eta berriro berritu arren, itzultzen ez zen zerbait. Lasaigarria, baina aldi berean larria, erantzunik eta bai-bainarik ametitzen ez zuen egia bat. Erdibiderik gabeko isuri bat. Hala esatea gustatzen zitzaion Ramoni:

– Errekako seme gara gu. Ez al da hala, Kerman? Utikan hondartzak eta hondartzaondoak.

Ura jostorratzek legez ziztatu arren, putzuaren leuna astintzen ez zuten eltxo finen egia zegoen. Hegan egiten zuen zomorroaren tamaina eta pisua ezin hobeto adierazten zuen liztorren bibrazio gizenaren egia. Zaldirik egon ezean gizakiaren odolarekin konformatzen diren ezparen egia. Asfaltoari geure arima aspaldi salduagatik bihotzeko taupadak moteltzen dizkigun adarren kulunka lasaiaren egia. Euli bakarlariak basoaren sinfonia urratzen.

Purua atera zuen Ramonek eta Kermani beste bat eskaini, hartuko ez ziola aurrez jakinda ere.

– Badakizu ezkontzetan bakarrik erretzen dudala.

Kermanek azken ezkontza noiz izan ote zuen galdetu zion orduan Ramonek bere buruari, puru merkeari sua ematen zion ahala. Eta hurrengoa? Hurrengo ezkontza? Izango ote zen beste ezkontzarik Kermanen bizitzan?

Belenek, bere zigarroetako bat piztu zuen.

– Inporta zaizue?

Non eta naturaren erdian erretzeko ohitura hura. Ramonena bost, baina Edurneren ahizpak erretzea ez zitzaion Kermani batere gustatzen.

– Medikuen gremioa, beti eredugarri –bota zuen.

– Kasko-petrikiloa nauzu, Kerman: tabakoak prozesu mentalak, kontzentrazioa eta erreflexuak handitzen dituela diote zenbait ikerketak.

– Ikerketak, jakina. Denerako badira.

Iker eta Unairi zeharka begiratzeari utzi gabe, sagardo botilari tantarik ba ote zerion ziurtatu nahi izan zuen Ramonek. Bat bera ere ez. Belenek, nola ez, ongi baino hobeto zekien senarraren deserosotasun keinu hura interpretatzen. Umeak gustura zebiltzan, ordea, sagardo botilako beira baino ilunagoak ziren uretan murgil, eta gustura ibiltze hark orekatu eta desegin egiten zuen bi bikoteen arteko asperkeria, ezinegona. Indar oreka hartan, haiek eta haien lasaitasuna ez ziren inportanteena.

– Ez urrundu hainbeste putzurantz, Unai!

– Utz iezaiezu, Kerman. Urak bare daude gaur.

– Urak bai, umeak, ordea...

– Ume barea ez da ume...

– Esan zuen psikiatrak.

Kanpingasa desmuntatu, mahaia eta aulkiak tolestu eta etxerako itzuleran pentsatzen hasteko tenore zen arren, orduantxe eskaintzen zituen beherantz zetorren eguzkiak kilimarik txinpartatsuenak hurritzek eta haltzek osatutako adar-sarearen korapiloetan dir-

dir, edozein zume negarti alaitzeko moduan kasik. Balego zume negartirik inguruan. Baina ez zegoen.

– Kontatu dizuet zer gertatu zen Unairen ikastolan joan zen astean?

– Zer?

– Enararen aitona-amonak etorri ziren umearen bila. Txinatik ekarri berria duten ume bat da Enara.

– Eta?

– Enara ez, beste bat hartu zutela etxerako haren ordez, deskuidoan. Susmatu behar zutela zerbait haren kasketa ikusita, baina biak oso antzekoak zirela.

– Aitona-amona gaixoak. Nahikoa egiten dute.

Unai eta Iker elkarren sorbaldetan eskuak jarrita zebiltzan, dantza afrikar bat itxuratzen. Batak bestea hondoratzen zuen, baina ez indarrean, erritmikoki baizik. Bost segundo urpean bata, bost segundo bestea, antzinako film mutuetako trenetan palankarena egiten aurrez aurre jarritako bikote batek beso-indarrarekin mugiarazten zituen bagoi solte haien eran. Unairen bizkarrera igo eta jauzi egin zuen Ikerrek uretara buruz behera. Paperak trukatzeko asmoa zutela igarririk, Kermanek deiadar egin zion, ozen:

– Ez, Unai. Zuk ezin duzu gainean jarri. Mina egingo diozu.

– Ez dit minik egingo! –kexatu zen Iker.

– Egin kasu Kermani, Iker –Belenek, zer gerta ere–. Eta zuk ere ez berriro hori egin, harriak egon litezkeeta ikusten ez den lekuan.

Ramonek eta Belenek hitz egin izan dute pribatuan: debeku gehiegi ezartzen dizkiote Unairi gurasoek, larregi babesten dute. Haren kezkak eta nortasuna askeago garatzen utzi beharko liokete, gabeziak gabezia.

Uretatik irten, lehortu, eta adarrekin egindako etxolara itzuli dira mutikoak. Garoa biltzen hasi dira, egitura hobeto estaltzeko.

– Otsoak putz eginda ere ez luke gure etxea botako! –dio Unaik, eta gero putz egin du bere indar guztiarekin.

Labana suitzarrarekin zuritu eta zorroztu dizkie Ramonek adarren puntak lurrean iltzatu aurretik. Sendoa da egitura, dardara txikienik ere ez du egin.

– Biok elkarrekin orain, ea –Ikerrek ere putz egin dio etxolari, putz eta putz.

Baina etxola atera da garaile. Ikerrek ezin izan du lehengusuaren poza bere sentitzea saihestu. Txokala

egin eta adar kraskatuaren hotsa atera du bostekoen talkak. Onartu beharra dauka ongi pasatzen dutela batzuetan.

Garoa biltzen segitu dute, lurrarekin sokatiran.

– Ez garo berdea sobera atera, min hartuko duzue eskuetan tira eta tira. Gainera, garoa ere izaki bizidu-na da.

– Utzi egiezu, Kerman.

– Jakina, zuk zer esango duzu ba...

– Nola nik zer esango dudan?

– *Garoa besterik ez da*, *ez du pentsatzeko ahalme-nik*, ez da hori?

– Kerman, laztana...

– Egia da-eta, Edurne. Ingurunearekiko errespe-tuaz ari naiz. Hori besterik ez.

Baina ez zen hori bakarrik. Eguzkia behera etorri ahala, argi etzanak beste geruza batzuk egiten ditu ikusgarri, esanez bezala: “gorostia, hire txanda”. Ba-dira hostoak nagusi diren eguneko uneak, eta badira adarrak nagusi diren uneak. Arantzen puntak landa-reetatik bereiz daitezkeela dirudien unea da hura.

– Hasten zara garoarekin, euli bat hurrena, eta ja-rraitzen duzu zakur bat hiltzen, gaixorik dagoen aitza-kian. Eta, gero, batek daki non amaituko duzun.

– Arren, Kerman... zertara dator hau orain?

– Bagatoz betikora.

– Gaur goizean ere egunkarietan zetorren: Madrilen gutxienez, itxi egiten dituzte klinika horiek.

– Hara, askotan hitz egin dugu horri buruz, eta ez gara ados jarriko.

– Txinatarrak ez aipatzearren, horretan ere legez kanpo aritzen omen dira. Jaio eta *ezjaio*. Biak legez kanpo. Auskalo zenbatgarren astean, gainera.

Belenek miresten zuen ahizpa bere garaian hartu zuen erabakiarengatik. Arrisku taldean egon arren, frogarik ez egitea hautatu, eta, gero, ondorio guztiekin hazi eta hezi zuten Unai. Haren adin mentala eta haren itxura bat ez etorri arren, haur zoriontsu eta sasoikoa zen, gurasoen babesa eta zurruntasuna gorabehera.

– Erabaki oso pertsonalak dira horiek.

– Pertsonari dagozkionak, esan nahi duzu?

– Bikoteari, bai. Eta batez ere amari.

Basoak saretutako zeru urdina ari da apurka-apurka akitu eta zurirantz itzaltzen. Goroldioak auskalo noiz xukatutako ihintza kanporatzen du, zeukanik ez genekien geruza baten distira.

– Erabaki *pertsonal* hori hartu izan bagenu, zure semeak ez luke gaur hemen ez etxola egiteko laguntzailerik, ez igeri egiteko kiderik.

– Gauza batek ez dauka zerikusirik bestearekin.

– A, ez? Nik baietz uste dut ba.

Ramonek berriro irauli du sagardo botila, sare izaera porotsua galdu eta bere basatia berreskuratzen ari den oihanpea bezain ilun. Lehen ere ez bazerion tantarik botilari, hain gutxi orain. Elkarri begiratu diote Belenek eta Edurnek, aurrehistoriatik datozen bi hari mutur korapilatzeko gaitasunaren jabe.

– Etxeratzea izango da onena.

– Non daude umeak?

Elkarrizketaren beroan, utzi egin zioten begi ertzarekin errondatxoa egiteari.

– Garo bila urrunduko ziren.

Iker mutiko azkarra dela pentsatu zuen Belenek, eta, agian, eztabaida ez entzuteko propio aldenduaraziko zuela handik lehengusua. Maleterora bildu zituzten aulki tolesgarriak, mahaiak, kanpingasa, esterillak eta ontziak. Platerak garbitu. Freskerako ur izoztua errekara isuri. Zabor arrasto ttipienik ere lagatzen ez zutela ziurtatu.

– Kezkatzen hasi behar ote genuke?

– Urrutira ez ziren joango. Basoan begiratuko dut.

Dugu. Kermanek ez du Ramon bakarrik utzi nahi.

– Zurekin noa.

Apalik doaz elkarren ondoan, deus esan gabe. Minutu gutxiren buruan, gehiago ezin eutsi eta deiadarka hasi da Kerman. “Unai!”. Badira fruitu samurrak nagusi diren uneak, eta badira pinaburu gordinek beren burua aldarrikatzen duten uneak. Orbelaren unea da basoan. “Iker!”, oihukatu du Ramonek. “Unai!”, Kermanek, ozenago. Nork-maite-hau-gehiago lehia, eztarriaren helmenera ekarria. Ramon zeken sentitu da. Nork bere semearen izena besterik oihukatzen ez duela jabetu denean, ezin izan dio bere buruari halako elkartasun falta zikoitza barkatu: “Iker!”. Hirugarren aldiz deiadar egitera doanean, jasanezina egin zaio berekoikeria hori, eta ilobaren izena oihukatu du bere semearenaren ordez, urduritasuna igar dakion axola gabe: “Unai!”. Isilune luze eta trinko samar bat etorri da gero, orbel zapalduaren txistu sigi-sagatsua. “Iker!”, oihukatu du Kermanek segidan. Aldaera horrek balio izan du aurreko eztabaida jada ahaztuta dagoela berresteko. Familia bat direla eta hori dela garrantzitsuena.

Umeen arrastorik ez da, ordea.

– Ez ziren ba piszifaktoriako ubidera igoko?

– Badakite debekatuta daukatela.

Handik ez oso urrun, zentral hidroelektriko bat zegoen: argindarra sortzeko erabilitako ura ubide estu batera isurtzen zen gero. Tarteka mailakatu eta baretzen zen ubide hartara askatzen zituzten arrain-haztegiko amuarrainak, korronteari segika errekan amaitzen zutenak. Ubideak porlanezko pasabidea zeukan, metro erdi inguruko zabalerakoa, ibilguarekiko paralelo. Pasabide horren ondoan, mendi pendiza, eta, tartean-tartean, amildegi ttipi batzuk.

Urrunetik ikusi dituztenean, ezetz dio batek eta baietz besteak, makila batekin hildako suge baten azala astindu eta barruan sugerik ba ote den eztabaidan ari dira Iker eta Unai. Ikerrek, makila eta guzti, ekilibrista bat itxuratu du ubide ondoko pasabidean, eta postura bera imitatzen saiatu da Unai makilarik gabe. “Oreka galduz gero, uretara egin, badaezpada, ez amildegirantz”, esana zion Ramonek semeari, elkarrekin arrantzara joan ziren batean. Horretaz gogoratu zen une hartan, eta nola erantzun zion Ikerrek beste hainbatetan bezala, “ez naiz tontoa”. Ergela ez izatea eta lezioa ongi ikasi izana espero zuen.

Basoa beste bat zen orain, soinuetatik hasita. Soinuetatik hasten zelako zen, hain zuzen, beste bat basoa. Zomorroek hegaztiei egin zieten leku. Ikusi ez, baina entzun zitezkeen haien hegadak, dardara leuna egiten zuten adarrek luma astinduen hersturak dantzaturik. Kontua ez zen txorien kantuak bereiztea soilik, baizik eta hauen txistua txistu ote zen benetan edo adarren kontra hegoak astintzean egindako purrustadaren hotsa. Kontua zen igartzea noiz nahasten ziren bata eta bestea, haizearen higadura igarrezina eta hegoen purrustada mesfidatia; bereiztea hostoen firfirari zerk eragiten zion aldiro. Ez zegoen deiadarra norena izan zen jakiteko modurik, baina Unai nola izutu zen ikusita, Ramon ia ziur zegoen “Unai, jaitsi hortik!” oihukatu zuena Kerman izan zela. Ramonek beste zerbait esan nahi lioke. Badaki, ordea, buruan daukana luzeegia dela ujuka adierazteko. “Oreka galduz gero, uretara egin, badaezpada, ez amildegirantz”.

Deiadarrak berak eragin dion asaldurarengatik edo aita suminduarengandik letorkiokeen haserrearen beldur, zergatik galdu duen Unaik oina, zaila da esaten, eta ez hain garrantzitsua horrezkero. Aitortu beharra dago, gainera, oreka ez dela sekula bere bertu-

te nagusia izan. Jantzita eta mendiko botak soinean, bere besoen txapladak eragindako aparra alferrikakoa da hondoratzen ari den gorputza ur azalean mantentzeko.

Belarririk ere ez zaio jada ikusten kanpora nahi lukeen aurpegiari. Ukondoa izan da urak irentsi dion azkena.

Ikerrek, “Aita!” baino ezin izan du oihu egin, *aita* hitzak, hainbestetan bezala, *egin zerbait* esan nahi duen arren, argi eta garbi.

Lasterka bizian abiatu da Ramon ubiderantz, estratari uko egin eta zuhaitz txikiz betetako malda pikoan gora, enborretan eskuak bermatuz gora azkarrago iristeko, estropezu egin eta lauoinka ubiderantz jarraituz, pendizari eta pendizean makulutzat har ditzakeen urki gazteen enborrei esker fiteago zutituz erortzen den aldiro. Orbela orkatilekin eta orpoekin trakets goldatzean beltz eta heze ageri da lurra, inoiz baino arnasgarriago birikei dena eskatzen dien Ramonen sudur-mintzetan. Amaigabea begitantzen zaio goraino iritsi, zapatak erantzi eta arrapataka uretan murgildu arteko tartea.

Hatsa galduta eta betzuloak izerditan heldu da Kerman Ikerrengana, kostata, eta iloba estutu du, arnasestuka, bularraren kontra.

Ramonek tarte bat eman du urpean, baina ezin du gehiago. Airea hartzera atera behar izan du, estu eta larri. Birikak guztiz bete gabe murgildu da ostera, eta atzera berriro atera da handik lasterrera. “Ez da ezer ikusten”, zezeldu du, “ez da ezer ikusten”, murmurikatu du bigarrengoz arnasa sakonago hartzeko.

Kermanek pentsatu nahi luke ilobak besarkada estuarekin eragozten diolako dagoela paralisiak jota, eta horregatik ez duela berak ere uretara jauzi egiteko adinako adorerik izan.

Hirugarrengoan bai: besapeetatik helduta dakar Ramonek Unai, eta Kermanek askatu egin du Iker, semea uretatik ateratzen laguntzeko. Ilea aitak bezala albo batera orraztuta eraman ohi du, baina bustitzen zaionean erabat aldatzen zaio aurpegia, noizbait izango den gizon heldu burusoilera hurbildu. Ikerrek sekula ito bat ikusi ez badu ere, iruditzen zaio ito baten bisajea daukala lehengusuak.

– Jainkoarren!

Altzairuzko eskailera herdoilduta dago, hodi baten bidea baliatuz bertan jarria, eta hara hurbildu da Ramon, Unai nekez tiraka dakarrela.

Kermanek lagundu dio eskaileran gora umea ateratzen: indar gehiago dauka Unairen aitak besoetan jasoaldirako, zangoetan pendizean gora lasterka egiteko zeukana baino.

– Utzi niri.

Ubideko pasabidean alboka jarri eta kolpe lehor batekin irentsi duen ur guztia okarazi dio Ramonek. Doi-doi zabaldu du betazala, baina bortitza eta luzea izan da eztularen ondorengo ur korroskada.

Hatsanka egiten du, begiak itxita. Dena aho. Dena sudurzulo.

– Jainkoari eskerrak, Unai! –esan du Kermanek.

– Ondo zaude, aita? –galdetu dio Ikerrek.

– Bai, zer ba? –erantzun dio Ramonek.

– Odola daukazu kopetan.

Ramonek eskailera herdoilduan gora hodiarekin hartutako kolpea besterik ez da. Ez dirudi larria. Errekari txikiprezioan ordaindutako zerga ezdeusa. “Gaurkoz hori da dena. Joan zaitezkete”.

Argindarraren kableak teink, eraikin karratuak basotik bereizten. Korrontearen marmarra. Urkien zilarra

errepide ertzean dir-dir. Piszifaktoriako argiak atzean utzi eta etxera bidean, Belen doa gidari, eta atzean, kotxe banatan joateari uko egin dioten bi lehengusuak.

– Erreka begietan sartu zait.

– Betaurrekoak galdu dituzulako diozu hori, Unai.

– Ez. Erreka da. Begietan sartu zait.

Belenek eta Ramonek ez dakite horri zer erantzun. Usaina behintzat han dago, auto barruan. Errekaren usaina.

Kerman eta Edurne bakarrik doaz beste autoan. Ez diote elkarri hitzik esan, emazteak, semaforo batean, autoko leihoa ireki eta Beleni kendutako zigarroa piztu duen arte.

– Serio ari zara, Edurne? Nor zigortu nahi duzu orain?

Basoko egun hartatik, denborak apurka-apurka bibrazio mingarriak motelduko zizkien oroitzapen begi bistakoez aparte, garoaren sustraiak lurrari heltzeko daukan indarra eta seta geratuko ziren. Zurtoin berdeekin sokatiran aritze hark eskuak nola gorritu zizkien. Eta etxe bat adarrekin eta txotxekin eraikitzeko abilezia gauzatuaren oroitzapena ere geratuko zen, jakina. Sekula berriro egingo ez duzun zerbait egiteko

gaitasuna daukazula jakiteak eman diezazukeen abantaila.

Hori edozer delarik ere.

Boeing 767

hainbeste beldurtu, pasatuko da hau ere, zer gertatuko da ba, merezi izan du eta aski da, Harry Potter dirudi, baina Harry Potter pakistandarra, kimioterapia egin beharrik ez, onartzen dut jainkoen zigorra, ez, mesedez, ez, zergatik joanerakoan, itzulerakoan gertatu besterik ez, nork esan dezake Metropolitanean *La Bohème* ikusi duenik ohaide izan dituen bi emakume zoragarri albo banatan izanda, Walter Pensacola alua nirekin batera hilko duk behintzat, putakumeak aurre hartu nahi zidaan Sintasolen salmentekin, orain ikusiko duzue zer den ona, orain ikusiko duzue zer den garrasi egitea, kendu ba labana, kakanarru bat duk, itxaropena da galtzen den azkena, oraintxe galdu dudalako dakit, trilogiako azken alea nola bukatuko ote da, bye bye, gizontxo, que os den, jainkoarengan ez dut federik, baina aukeran nahiago jainko asko dauzkaten erlijioak, montaña rusa al da, ama, montaña rusa al da, beste mezu bat utzi behar nion Orlandori erantzungailuan, ez hain patetikoa, eta mobilean grabatzen badut, aurkituko ote dute onik trastea, bada giltza bat armairu gaineko sobre gorri batean, giltza ho-

rrek zerako tiradera irekitzen du, esango dut, bizitza asegurua eskaini zidatenean, klikatu genuen ala ez genuen klikatu, badaezpada hobe da hegazkin txartelak beti Visarekin ordaintzea, suge larruzko bota zuri horiek bai ederrak, eder direnez zapatak, ederra behar du haiek soinean dituzula hiltzea ere, edo ni bezala haiei begira, bitxia hauxe, hil beharrak berak baino gehiago izorratzen nau ondoan zokormazo inpresentable hau dudala hiltzeak, larrialdietako irteeraren ondoan, beharrik, okerragoa litzateke hiesarekin gaixotuko banintz, konparazio, leuzemia, esklerosi anizkoitza, si tú me dices ven, ez dago koberturarik, sesio bikoitza Bellas Artes zineman, ikusiko dugu egia ote den zure bizitza film batean bezala begien aurretik igarotzen zaizun kalaka hori dena, hogeita zazpi, Amy Winehousek eta Jim Morrisonek bezala, heganeskak batez bestekoa baino zaharragoak ziren, azafatoak homosexualak dira denak, susmatu behar genuen zerbait ez zihoala ondo, hamahirugarren ilaran nago, agidanez, Lifevest Under Your Seat, beharrik, hijo de la chingada, hijo de la gran chingada, chinga a tu madre, Walt Disney, ñam ñam, grask grask, guau guau, bua bua, snif snif, contigo mi vida quiero vivir la vida, superbotereak dauzkat, this is a perfect day,

drinking sangria in the park, behin bakarrik izan nintzen desleial, baina beranduegi da orain inkesta batean aitortzeko, haurdun geratu ez banintz ez niokeen nire buruari hiltzaile esango, asesino, haxix hitzarekin zerikusia duen hitz bat da, Smoking in the Lavatory is Strictly Forbidden, zein ote da zeraren batez bestekoa hegaldi honetako bidaiari guztiak kontuan hartuz gero, zera zer den, ba zera, zer izango da ba, erre egin behar nituen gutunak, neskapote ederra zegoen ahizpa txikia, eta ni zaharrenarekin kateatu behar, arima ihesi doakit azken esaldi honekin, Boeing bat da hau, ala Airbus bat, konpañero, Fokker bat, fucker bat, fuck bat, zer kostatzen da telefono dei bat, ei zu, berradiskidetu egin behar genuen, garaiz berradiskidetu, business class, oh, my darling, oh my darling Clementine, heriotza dugu zain, bidaiari sarriaren Golden txartela izan arren, ez dut lagun gehiago galduko, ni galduko nauzue, aldiz, tú a Bostón y yo a California, galtzaile bat naiz, beti jakin izan dut, garaiz onartu behar nuen hori, gafitas hori talibana al da, zulatuta daukat galtzerdi bat, ezabatu egin behar nituen ordenagailutik Jenniferrekin atera nituen argazkiak, errapeak miazkatzen nizkiona behintzat, ez ni besarkatu, beltz zikina, you nigger, baina Yetia existitzen da, bai ala ez, y lo

que me queda de vida quiero vivir contigo, are you talking to me, hondoratu baietz denak ni gabe, enpresa, familia, hondoratu baietz, orain jada beranduegi da, arre edo iso, testamentua egiteko ordua, King Kong izan al da, ama, zer da profezia bat, desio dugunaren kontrakoa da profezia, ume, eta aurresaten dugu bete dadin desio duguna eta ez profezia bera, ez dut ulertzen, ama, Coral Gableseko etxeak bilobari uzten dizkiot, bakarra baino ez zitzaidanean geratzen, laugarren mailakoa, procesal, suerte que mis pechos son pequeños y no los confundes con montañas, lero, lero, lero, hau nik adina merezi duenik ba ote batere hegazkin honetan, nik ere aitortzen diat bizi izana, Pablo (eta edan izana, edan), dos gardenias para ti, con ellas quiero decir, eskala gehiagorik ez JFKko itxarongela nazkagarrian, David Brubeck Take Five, Herbie Hancock Cantaloupe Island, you sinner, stand up and clap your hands, uste baino lasaiago ez ote dago, bada, jendea, esan nahi dut, dadas las circunstancias, I’m Spiderman, nadie es perfecto, Carolina del Norte está más muerta que, Municheko Paulaner gozoa, litro bete goizeko seietan dastatzen duten broker eleganteak arraiaz orraztuta, gomina, gomina, gomina, banekien, behin bakarrean larrua jo gabe hilko nintzela,

non daude mentazko fisherman’s karameluak behar dituzunean, kale edo bale, autoz joan behar genuen bakantzetan, zapore metaliko hau ahoan, pasta or chicken, and you, madame, chicken or pasta, yes, of course, we do have tomato juice, do you like it with pepper, salt and lemmon, sir, zertara dator hainbesteko iskanbila, ezin al du hemen kristauak lorik egin, kristauak hain zuzen ere ez, bihotza geratuko zaidan une exaktoa, bizarra moztu behar nuen, hora de la muerte halako eta halako, asmatu du horoskopoak, Rosaura, zaude isilik haurra, ez egin negarrik, zergatik dira gonbito egiteko poltsak paperezkoak, eta Beatrizek hiru urte baino ez ditu, bete gabe, izan gaitezen krudelago, izan gaitezen samurrago, har ditzagun arrisku gehiago, eta egin ditzagun hiru gauzak aldi berean, everybody now, CIAk edo herederoek nire e-mailen arrastoa ez segitzea espero dut, ezabatutako e-mailak ere ikertzen omen dituzte orain, askoz interesgarriagoak, jakina, esadazu zer botatzen duzun zaborretara eta esango dizut nor zaren, cinco sirenitas te llevarán por caminos de algas y de coral, otorrinolaringologo, zein harro sentitu nintzen hitz hori esan nuen lehen aldian, azioa ederra, gaztetxoaren pozak eta bizitza fantasia enormea da oraindik, urre kolore-

ko baldosen bideari segi, zertarako egin nintzen odol emaile, nire odola unibertsala delako literatura ona bezala, orduan, esan dezaket gutxi batzuei jo niela behintzat, milikaldia egin eta erdi haserretu zitzaidan Denverreko kontrabaxu-jotzailea aintzakotzat hartuta hamaikari, zehazki, aire girotua ederki dabil, zorionez, honetarako ipini zidaten giltzurrun berria, bidaiatzeko, ezta, Erromako Trastevere auzoan primitivo ardo hura, Veneziako hoteleko gela hartan euria sartzen eta gu leihoko maratilarekin borrokan, hori zen paradisua, maratila bat da paradisua, garaiz heltzea da paradisua, maratilari garaiz heltzea, ez goizegi baina ezta beranduegi ere, leku egokian une aproposean, Emergency Exit, haragia da paradisua, trenak eta zaldiak estimatzea, gonaduna belauna belaunaren gainean pausatu eta gero agerian geratu zen belaun zatia gona beherantz tiratuz ezkutatzen, eklipse totala Machu Picchun, Empire Stateko ikusmira, *Le* Big Mac, Stonehengeko kromletxa, lehen koka lerroa eta azkena, ile-lehorgailua etxean ahaztu nuen, edonola ere, eso que te, eso que nos, baldin bait ere hegaldia galdu izan banu, Dusseldorf 1 Terminaleko komunean Milango fisio harekin txortan egin nuen hartan bezala, connecting flights, flights and more, oh my God, oh

yes, oh, don’t stop now dear, Monteverdi, Haendelen kantatak, Albert Camus, baggage claim, beti ahazten zait, oporrak Cuscon edo Jaliscon, buffet libreko pultsera, baina zertarako saiatu, dena ahaztura izango bada jada, labirinto bat, hilkutxa bertikalak, Montblancera igo nintzen, behintzat, eta Cervinora, segurtasun ziztrin baten truke bere askatasunari uko egiten dion herri batek ez du ez segurtasun ez askatasunik merezi, esloganik ez orain, faborez, luzeegia da gainera eslogan izateko, nork esan zuen hori, Benjamin Franklinek, baina eslogana ez bada zer, hilartitza, barka ez altxatzea, komunera joateko da, arren, the walk of life, ventanilla o pasillo, aireportutik erdigunerainoko taxiaren hirurogei dolarrak aurreztuko dituk, pagotxa, Washingtonen gurasoak ikustea zen asmoa eta zeruan aitona-amonak ikusiko ditugu azkenean, laztana, txikitxo, nire begietako nini, asaba zaharren baratzeko kalabazatxo, izango al da Quebec independente inoiz, it’s a cold and it’s a broken hallelujah, baina inoiz ez dut jakin zer den hallelujah zehazki, egia esan, propinak kalkulatzearen nekea, krediturren amortizazioa, zergak, kontabilitate saileko Rachel, berriro hasi beharko dugu, da cappo, akabo, hori zen dena, beraz, deus ez pentsatzea omen da meditatzea,

bazkari batean umiliatu egin ninduten behin pentsatu eta meditatzearen arteko ezberdintasuna ez nekielako, eta orain saiatzera noa, ezertan ez pentsatzen saiatzera, meditatzearen eta pentsatzearen arteko ezberdintasun horretan ere ez pentsatzen, Psikosia eta dutxako labana, Nusrat Fateh Ali Khan, ali maula ali maula ali dam dam, harrapatu eta kendu horri labana, Matt, edo iltzatu lepoan borborka geiser hasi arte, txarriboda, hay una guerra, yes indeed, there’s a war, hori beti, bi potrorekin, where the streets have no name, yoga, yoga egitea onena, hanka sartze gehiagorik ez, lagunei hozkia emateko moduko txerrikeria desatseginik egiterik ez, Fasten Your Seatbelts, etxetik estututa etorri naun ni, estropezu gehiagorik ez altzariekin eta kaleko espaloi ertzekin, bracketak hortzetan jarri beharrik ez, ez dut anaiaren eztei egunean speechik bota beharko, bota ditzatela nitaz speechak eta laudatioak nire hiletan, a zer deskantsua, bai mutil ona, beti kasu egiten zuen igogailuan, igogailurik ez geneukan, eskaileretan orduan, zer da errukia, ama, errukia granada bat eskuetan lehertzen zaizunean ingurukoak zipriztintzen dituena da, eta bitartean, bitartean heldu eskutik, I wanna hold your hand, nire diskorik onena grabatu gabe eta nire traje bakarra tinto-

rerian, karu ordaindu nituen eta ez ditu ahizpak nik ekarritako erronbo berdeko txapin zuriak sekula estreinatuko, inork ez du hildako maskotez hitz egiten hegazkin istripuetan, oporretara joateko mania aluba, igualeko geunden gu etxe zuloan goxo, pues vale, pues eso, ilea tindatu behar neketsua, aurten urdina zegoen modan, azul eléctrico azul petróleo, Pasoliniren nobela amaigabea, zenbat gauza amaitu gabe eta ze nezesidade dago amaitzeko, ezta, utzi erdizka mitina, joan ta bila, fini, agur Nobel sariari, hura bai kontzertua, Brucek urte hartan eman zuena, it don't mean a thing if you ain't got that swing, non dago nire ezpainetako rougea, ea nork daukan orain txalekua jartzeko barrena eta umorea, urdaila edo gibela, oxigeno maskarak, xanpaina eskatu behar nuen, Lufthansan beti egiten dudan bezala, aizu, baina hau American Airlines da, aizu, baina ni mekazalea izateak ez du esan nahi honekin ados nagoenik, trenkatu, trenkatu zintzurra horri, zerotik hastea nekagarriegia zen, errepikakorregia zen dena jada, jainko maitea, jainko potoloa, mila esker suizidio lagundu honengatik, ni ez nintzatekeen sekula nire kabuz ausartuko, aitaren, semearen eta izpiritu santuaren izenean, amen, amen, amen, more tea anyone, bai mesedez, hartuko

nuke more tea, holly ghost, holly shit, holly crap, hirutasun santua, with or without you, mierda, mierda, mierda, le llamaban Trinidad, nik aitaren antza daukat, baina nork izango du nirea, ongi merezia daukagu, hegan egitearen harrokeriak ezin zuen beti doakoa izan, a zer putakeria, beka lortzeko pasatu dudan uda eta gero, du du du, da da da, it’s all I want to say to you, templanza, chico, templanza, ez dut merezi, putakumeok, ez dut hau merezi, zergatik niri, zergatik guri, niri bai, niri bale, baina zergatik nire alabari, because the night, born in the USA, fake empire, trouble will find me, inshalla, arimen elkarte bat da hau, kongregazio aeronautikoa, tipo sentibera izatea zer den, betileak diala balira bezala astinduz gero inguruko guztiek pentsatzen dutena sintoniza dezaket, hegazkin bat lehertzea zer da, abiaduraren tenpluari eginarazi nahi diote zapart, izan nituen, egun zoriontsuak ere izan nituen, nahiz eta orain denak oroitzea kostatu, saia nadin bakarren bat bederen oroitzen, izotz hockeyko atezain nintzela hanka puntarekin in extremis geratutako penaltia, arranguren murruan harrien zurrumurrua entzutea Jerusalemen, Iowa City neguan, elurrez goraino eta egurra gurea ez zen etxe hartako estufan kixkaltzen, Discover Iceland dioen aldizkaria,

malko guztiek zapore antzeko eta itsasoa itsasoa besterik ez da, dormida, Alfonsina, vestida de mar, handitzen handitzen, hasi naiz handitzen, non eroriko gara, erori ere eroriko ahal gara ala bidean lehertu, parabola bat, Imposible Germany, unlikely Japan, baiezkoa atera da, zorionak, bikiak dira, positibo eman du, sentitzen dut, sei bat hilabete, gorputz bakoitzak diferente erreakzionatzen du, pertsona bakoitza mundu bat da, esperimentala da tratamendua, sinatu hemen arriskua zure gain hartzeko prest bazaude, Loreen eta Darlene, bi alaba, nireak zirenak gaurtik aurrera munduarentzat, hurrengo bizitzan Hello Kitty, hurrengo bizitzan Doraemon, Plutok ezin du zakur izan bi oinen gainean badabil, ezta ama, ze zakur mota da ba hori, eta ni bermuda eta sandaliekin, Karate Kid, bedeinkatua zure sabeleko fruitua, Jesus, etc., esan nizun nola masturbatu nintzen Rambletako pentsio hartan zuk postaz igorritako gonazpikoekin, aitortzen dut, zaborraren minutuak dira, izorrai ispilu bestaldeko demonio, el espejo se quebró, onena ni neroni izan naiz nire bizitzan, mistakes of my youth, superego baten inplosioa da hau, ahaztura baino ez da geratuko, zulo beltzak, hori ez da berez txarra, akorda zaitezte nitaz tarte batez, inoren minaz pozteko hitz bat bada ale-

manez Schaudenfreude, eta egin negar, exajeratu gabe, hamar edo hamabost minutuz, ez derrigorrez segidan, koordina zaitezte, txandaka zaitezte negarraren arte noblean eta lana elkartasunez banatu, nire bilobak, nire biloba koitaduak, edo nire seme-alabak, nire seme-alaba zozo eta motzak, fundamentalista zikinak, agur ba, maite zaituztet (oraindik), this is it, ez al zen hori Michael Jacksonek egin ez zuen biraren izenburua, fucking muslims, a zer kiratsa, tapiz horren gaineko gonbitoak Pollocken koadroa dirudi, hasieran kendu behar nion labana, what the hell, putos moros, zergatik ez dio inork labana kendu, nola pasatu du kontrola lehenik eta behin, qué sé yo, tatatá, bizitza ez da hainbesterako, baina ez dago besterik, zer nahi duzu esatea, nire buruari hitz egiteko mania puta hau, es lo que hay, just do it, pilotuak salbatuko gaitu, entrenatuta daude muturreko egoeretarako, militarrak izan ziren lehenago, estatistikoki, zeintzuk ziren aukerak, what are the odds for Christ’s sake, psikofonia bihurtzeko zorian, entzumena da galtzen den azken zentzua, bazenekien, nik ere ez baina orain biok dakigu, judutar ortodoxo batzuk ikusi ditut lehen xerlo kiribil eta guzti, bizar eta guzti, esaldi gorrotagarri gehiago, dena bezala da, es como todo, ya si eso nik

deituko, kasu egingo didate, erraustuko naute, ala ez da erraustekorik ere geratuko, confutatis, maledictis, flammis acribus addictis, baina nahiago dut aukeran Verdiren Requiema, requiem hau niretzako idatzi nuen, esan zuen Mozartek, bizitza hau niretzako bizi izan dut, diot nik, esan nezake, egia ote, bai ala, hori esateaz hain ziur zaude, nahikoa izan da, ez dut gehiago behar, dena digitala, zeroak eta batak, batak eta zeroak, me hago una idea, tío, me hago una ligera idea, el todo por la parte, la parte por el todo, foulard honek ez dit sekula zorte onik ekarri, gauza koloretsuegirik ez janztea hobe hurrena, bidaiari ekin aurretik barruko arropa garbia izatearen garrantziaz amak zioena oroitu hurrena, baina zer hurren, zer oroitu, flower power, paz hermano, hitz xaloak ere ironiko bilakatzen dira larritasun uneetan, momentua estutzen denean edo zu estutzera datorrenean, edo datozenean, nortzuk, haiek, polizia zelestiala, pentsatu behar da katastrofeetan distantzia minimo batekin, beti gertatzear baleude bezala, baina hala ere zoriontsu izan eta dotore portatu, till the bitter end, azken orduan etor daiteke barkamena edo inspirazioa edo biak batera, krudelkeria eta samurtasuna eta arriskua batera etor daitezkeen bezala, zuretzat balio badu

nahikoa, niretzat balio izan du, kontua ez da biharamunik ez balego bezala bizitzea, etzirik eta batez ere etzidamurik, eta batez ere etziko damurik ez balego bezala bizitzea baizik, zer nahi duzue esatea, ironia da desesperatuen kortesia, gezurrik ez orain, azkena izango da, otra muesca más en el revólver, Trinidad, azken unean etor daitekeena izan liteke sarkasmoa ere, hitz gehiago ez, keinu bat, hartuta dago esaldi hori ere, verrà la morte e avrà, etorriko da heriotza eta izango ditu, izango ditu Afganistango herri galdu batean ahuntzak zaintzen dituen gazte baten begiak, korta usaina, gainean egin dudala uste dut, barka, baina hauta ote nezake azkena, azken esaldia, azken pentsamendua arimen konfederazio honetan superni, Kasia izan zen dudarik gabe onena, hirugarren mailakoa, banatu ondoren berriro ere senarrarekin itzuli zela uste dut, zesta-punta jokalariekin hori gertatzen da, quien tuvo retuvo, eta orain alaba bat daukate, jai-alai blues, youtube, kaligrafia polita eta biribila zeukan, instagram, flickr, polita zegoen haurdun, why me, por qué yo, no sos vos soy yo, zergatik egiten dituzte hegazkinak horren handiak eta astunak, jada ez da gehiago egongo, hegazkin gehiago ez nire bizitzan, c’est tout, c’est fini la comedie, où sont les neiges

d’antan, ezkutuko kamera bat balitz hau dena, musu emango banio, luzeegi doa amesgaiztoa, oraintxe eta hemen, barka, jainko maite, bekataria izan naiz, barka nazazu, edo ez, ya total, gutxienez elkar aurkitu dugu bizitzan, laztana, beste batzuek ezin dute hori ere esan, ez dut beste munduan sinesten baina bokazio bat izan dugu, dei bat, sinesmen bat lurrean, garai zaharrengatik, los viejos tiempos, for the old times sake, laburra izan da baina ongi egon da, arkumetxo, si es breve dos veces, maite zaitut, xomorro, handia da Ala ala Ala handia da, xomorro handia, zergatik hago hain hurbil eta hain zurbil, hain zuhurbhil Alhazmi adiskidea, non hago, zer larretan, kendu galoiak kapitainari, zertan geratu ginen ba, zenbat ziren azkenean delako esnezko ibaiak, zenbat emakumezko birjinak, zenbana, gu bion artean fifty fifty banatzeko, ez dago zertan

Suedia ez da dirudiena

Hobe zaldunak eskuetan duen ezpatak hoteleko buffeteko pastramia moztuko balu. Toki turistiko seinalatuan estatua bat, soldadu bat, ezpata eta guzti zaldi gainean, garai bateko heroia, usoek euren buruei galdetu behar ez diezaioten nora. Jeneral batek bataila irabazi behar izan zuen Ingridek eta biok hitzordua egin genezan zaldi gaineko estatua haren ondoan. Militarrei eta bataila aberkoiei esker daukagu leku horietako bat ia hiri guztietan, turistok ardatza eta argazki kameraren oina non iltzatu izan dezagun, bake garaian galduegi ez sentitzeko. *Koordenadak* ere esaten zaie, eta bizitzan falta izaten ditugunak dira. Izan zitekeen Göteborg edo izan zitekeen Stockholm. Suedia zela bai, edozein kasutan: pazientzia gutxiko vikingoak, ilaratan itxaroten ohituta ez daudenak, guk gutxi ezagutu eta asko miresten ditugunak, hala ere, eta uste baino presakago zebiltzanak harat-honat. Gerrarik balego simetrikoen eta asimetrikoen artean –eta badago– simetrikoen aldean leudeke haiek. Denak elkarren berdinegi direla ikusirik –ilehoriegi, begi gardenegi, azal leunegi– hegoaldetik gatozenon haiekiko li-

lura erlatibizatu egiten da. Liseriketa egiteko modu bat besterik ez da inbidia. Ahalegindu horretan: inbidiari aski denbora emanez gero, ailegatuko zara miretsitakoaren kamustasuna besterik ez ikustera.

Baina zibilizazioa da hau, mundu aurreratua dira, inork ez dizu aurpegi arrarorik jarriko kafe hutsa kreditu txartelarekin ordaintzea bururatu zaizulako.

Nudistak, toleranteak, ongi heziak. Alderantzizko arrazakeria modu baten errudun sentitu nintzen jendeari begira; inoiz entzuna nuen esamoldea nerabilen kolkoan –“ale nordikoak”–, eta berdin mintza gaitezke hori esatean laztanak, bizi kalitatea eta ugalketa sustatua merezi duten zaldi eredugarrien hazia laborategietan preserbatzearen komenigarritasunaz, zein salbatu beharreko edertasun *ale* horiek ezarritako kanon eskandinaviarraz; greziarrek zizelkatua, bai, baina Europako iparraldean hezurmamitua zen gure nerabezaroko edertasunaren eredua. Gure ijito begi beltzei, lekuko izatea baino ez zitzaien geratzen.

Selfieak perspektibarekin ateratzeko smartphoneak ziriei lotzen hasi ginen urtean izan zen. Niri, ordea, ziriak fusta ekartzen zidanez gogora, makila teleskopiko horietako bat ikusi orduko, zaldiren bati –zaldiren baten estatuari, sikiera– izterrean zigorkada

emateko gogoa pizten zitzaidan. Edo turistari berari, bestela. Alderantzizko bastoiak ziren haiek, funtsean: itsuak lurrean bere bidea topatzeko bezala, ikusmendunak airea lardaskatzeko erabiltzen zituen makuluak. *The Age of Self*. Segi makilaren lerro zuzenari. Azken helburua: ni.

Luzea egin zitzaidan hegazkin bidaia. Eta, gauez ailegatzearen ajeak, azkenean hiriko argiak bereizi uste izan nituenean, hegazkinaren hegoaren argia baino ez zela jabetu nintzen. Domaia. Ez dakit zergatik, iruditzen zait hegalaren ondoan bidaiatzea tokatzen zaidala beti. Lo susta egin eta zuhaitz baten atzean ezkutatzen saiatzen zen gizon batekin egin nuen amets lur hartu aurretik. Zuhaitza estuegia zen eta gizona lodiegia. Ametsetan, gauzak gertatzeaz gain, pentsatu eta arrazoitu ere egiten da batzuetan, eta arrazoitu nuen, ezkutaketa jolas hartan, zuhaitza gizonaren atzean ostentzea zela aukera logiko bakarra, eta ez alderantziz. Amets sinplea zen, baina akatsik gabea bere premisetan.

Ez dut ia alkoholik probatzen, hegan egiten dudanean salbu. Buruan zerorren deskonpresio kabina partikularra izateko modua da, bi aldiz hegan egitekoa. Hegazkinean zer edan askorik izango ez dudan jaki-

tun, goiz iristen naiz horretarako aireportuko kafetegira. Berdin hegazkinetik jaistean: lehen aldiz zapaltzera noan hiriko gau hotzak zurrupa nazan baino lehen, saiatzen naiz ni izaten zurrupatzailea, euforia likido gehigarri bat zintzurreratzen taxiaren bila hasi aitzin, letorkeen hura gertatu aurretik gozatzeko edo errealitatearen talka gordina atzeratzeko, bietarik bat. Ameskeria da, badakit. Zuhaitz mehar baten atzean ezkutatzen saiatzen den gizon lodi bat.

Enpresak ordaintzen duenez dena, tranbiarik ez. Taxiak beti. Asiriarrak, kurduak eta irandarrak dira abegi onez hartu nauten gidariak, suediarrek beraiek ere abegi onez hartzen dituztenak itxuraz, suediar bilakatzeko haien izapideak bidean egon ala ez (baietz pentsatu nahi dut, suediarrak jende serioa direla paper kontuekin).

– Nire senarra zinegilea zen.

Interpretatu hori. Uler liteke Ingriden senarra jada ez dela zinegile. Edo jada ez dela senar.

– Asko bidaiatzen genuen lehen. Baina orain edonork bidaiatzen du, ezta? Zoragarria zen.

Interpretatu hori ere. Uler liteke zoragarria zela iragana. Edo senarra zela zoragarri. Eta jada ez dela. Ez zoragarri eta ez senar. Edo inork bidaiatzen ez zuen

garaian bidaiatzea zela zinez zoragarri, *low costa*ren eta hegazkin bidaien demokratizazio bulgarizantearen aurretik.

Ni baino altuagoa zen, ez ederra kalean ikusten ari nintzen jendea eder zen zentzuan, eta hori eskertzen nuen, puntu bateraino. Simetrikoa bazen, hori bai. Jantzita zeraman soineko zabala, bigarren eskukoa izan ez arren, bigarren eskuko denda batean zegokeen ondoen, beste jabe baten zain eta bila.

– Barregarri sentitzen naiz hemen, zurekin hizketan. Ezkutaketan ariko bagina bezala.

Eta hala ari ginen. Ni ez nintzen bere ametsetako gizona eta bera ez zen nire ametsetako emakumea, baina nire ametsetako gaiaz ari ginen: ezkutaketan ibiltzeaz, zuhaitz txikien atzean ostentzen diren gizon mardulez. Horri atxiki behar nintzaion, kosta lain kosta.

– Zein da sekula izan duzun ametsik arraroena?

Ezustean harrapatu ninduen galderak. Gezurrik asmatzeko denborarik ezean, hegazkinean izandakoa kontatu behar izan nion.

– Ez da hain arraroa ere. Nik behin nire semeak haurdun uzten ninduela egin nuen amets.

Aurpegia ere halakoxea jarriko nuen, berehala igarri baitzuen eragin zidan zirrara. Penduluaren eta aizkoraren irudia etorri zitzaizkidan burura, baina ezin izan nuen isiltasun deseroso hartara, ez penduluaren ez aizkoraren hotsik ekarri.

– Oraindik ume zelarik uzten ninduen haurdun, esan nahi dut. Semea ipotx bihurtzen zitzaidan eta estali egiten ninduen.

“Ipotxak ipotxak egiten, edo ipotxak egiteko ahaleginean”, pentsatu nuen nik. “Edipo greziarra lur suediarretan”. Eta plazerik? Sentitu ote zuen plazerik batere? Ingridek, esan nahi dut. Balizko semearen plazera ez zitzaidan une hartan hainbeste axola.

– Badakizu zer esaten duten ipotxei buruz.

– Ipotxak ohean egiteko gai direnaz ari al zara?

Baiezkoa egin zuen buruaz, azalpen gehiago eman behar ez izateagatik arindua hartuta, eta dzanga egin zion edariari.

– Amets bat besterik ez da, edozein kasutan. Eta, gainera, ez daukat seme-alabarik oraindik. Johannesek ez zituen nahi.

Amets inkietagarri hura desaktibatu eta jasangarri egiten zuen xehetasuna zen, itxura batera, hura beretzat. Ez nion galdetu seme-alabarik izan gabe nola

jakin ote zuen bere ametsean larrua jotzen zion hura bere semea zela preseski eta ez beste edozein ume. Agian ez nion galdetu nahi izan, banekielako zer erantzungo zidan: “Emakume batek badakizki gauza horiek”.

– Zuk zertan egiten duzu lan?

– Enbalatzeko materiala saltzen dut.

– Burbuiladun plastikoa?

– Horrelako zerbait.

– Salgaia bere helmugara onik iristea da zure lana, beraz.

– Baietz esan liteke.

Gauza apurtuen gainean mintzatu zen orduan. Bere bizitzan apurtu zitzaizkion objektu guztiei eta horrek ekarri zizkion atsekabeei buruz. Egurrezko zaldiko-maldiko bat, sei urte bete zituen egunean oparitu ziotena (“urtebetetze egunean bertan apurtu zitzaidan”). Argazki kamera bat, Canon etxekoa (“obturadorea sakatuta geratu zitzaion betirako”). Zorte ona ekartzen zion Maggie Simpsonen katilua (“saiatu nintzen belarria itsasten, baina puskatu egiten zen mikrouhin labera sartzen nuen aldiro”).

DayToDates aplikazioari esker egin genuen hitzordua estatuaren ondoan. Eggers izeneko hotel eder eta

dekadente bateko kafetegian afaldu genuen zerbait gero. Handik gertu bizi zela esan zidan, oinez joan gintezkeela nahi banuen.

– Suedia ez da dirudiena, badakizu?

Bi gau baino ez neramatzan bertan eta oraindik ez nekien oso ongi zer zirudien Suediak niretzat, baina ziur nengoen arrazoi zuela. Egokitu zitzaidan hotela ez zen batere diseinuzkoa, estuegia inondik ere, eta *Shanghaiko dama* filmaren amaiera baino ispiluz josiagoa. Apal traketsekin estropezu egiten zenuen etengabe, argiaren giltzak altuera ezberdinetan zeuden jarrita –ipotxentzat batzuk, erraldoientzat beste batzuk–, eta komuneko atea gontzetatik askatzen zen ukitu orduko. Askoz atseginagoa Ingriden etxea, inondik ere.

Harritu egin zen, edo dibertitu, enbalatzeko materiala saltzen zuen gizon batek aldean kondoirik ez izateaz. Berak bazituen, baina nahi ez banuen ez genuen zertan erabili, esan zuen. Eskua sabelean ipini nionean ulertu nuen soineko zabalarena.

– Lau hilabete eta erdi. Ez zaizu inporta, ezta?

Zutik jarri zen ohe gainean eta ni haren aurrean belauniko, ordenatzear den zaldun edo tenplario. Ni

zutitzen saiatu nintzenero eskua ipini zidan berak sorbaldan, makurtuta jarrai nezan.

– Egon geldi. Zu belauniko. Ni mugituko naiz.

Larrua jo ondoren bere mihia aski hezea ote zegoen jakin nahi izan zuen, beste ezer baino lehen.

– Nola aski hezea?

– Egon zaren beste emakumeekin alderatuta, esan nahi dut.

Kezkatuta zirudien oso kontu harekin.

– Senarrak esaten zidan mihia lehorra neukala, ez aski hezea, ez zegoela horrela ez kitzikatzeko ez larrutan egiteko modurik.

– Hori esaten zizun?

– Luzaro utzi nion nahi zuen guztia egiten, arrazoi zuela uste nuelako.

– Ba ez zuen.

Egia esan nion. Ez zuen arrazoirik. “Zinegileak inpresentable hutsak dira. Jostailuekin jolasten duten umeak”, nik nire artean.

Gustura egin nuen lo Ingriden aldamenean, baina oso goiz esnatu ninduen argiak. Errezelik ez zeukan etxeak, aiztoa ahoan estututa sartzen zen hara eguzkia. Haren izter esnekaren azpiko zainei begira berantetsi nintzen tarte batez: orein adar berdeak azalaren

azpian. Tatuaje bat ere bai ipurtaldean, *Johannes* zioena, hizki gotikoekin.

Gosaria prestatuko nuen Ingrid esnatzerako. Jolas bat izan zitekeen, laranja zukutzekoa eta katiluak, kafeteraren filtroa eta mozten zuen labana on bat isilka topatzen saiatzea sukalde ezezagunean, Maggie Simpsonen edalontzia ere barne, bizi balitz oraindik belarririk gabeko katilu hura. Hori guztia, lo zegoena esnatzeko adinako zaratarik atera gabe, beti ere. Komunean musua garbitzean, hiriko ospitale bateko logotipoa ikusi nion xukaderari, ordea. Sahlgrenska University Hospital. Hotel batetik lapurtutakoa balitz toalla, hainbestean, aurrera jarraituko nukeen ziurrenik gosaria prestatzen. Baina ospitale bat?

Arrazoi zuen Ingridek: Suedia ez zen zirudiena.

Eguzkiak, goitik barik, hiria orkatiletatik argitzen duela dirudien ordu hori zen. Kalean hain hotz ez izatera, smartphonea atera eta *swedish film director Johannes died in Sahlgrenska hospital* galdetuko niokeen akaso Google orakuluari, puzzlea osatzeagatik besterik ez bada ere. Aukeran, nahiago izan nuen eskuak patriketan gorde. Minberatuta neuzkan belaunak. Jaka laburregiaren botoiak lotu eta hotela ziurtasun handirik gabe abiatua nintzen norako hartantxe

topatzea opa nion nire buruari. Bitik bat, horiek ziren nire aukerak.

Ezpatadun edo ez, oso bestelako esanahia izango zuten zaldizko militarren estatuek aurrerantzean niretzat.

Safaria

The real thing agintzen zuen turismo agentziaren lemari men eginez, Etoshako parkearen bihotzera sartu ondotik utzi egin dituzte land roverrak eta karbono dioxidoaren erru zama. Zamaketarien laguntzarekin jarraitu dute oinez. Hamar kideko espedizioa banan-banan eta lerro-lerro ari da behiala laku izan zen lautada zabaleko kare-bidea zeharkatzen. Salbuespen bakarra dago: Roman Miguelezek alboan darama beti Kabali Simalindu, biko bilakatzen da harekin banako inurri errenkada.

– Kabali, ura.

Hernando Cabrera sendagilea da Roman Miguelezi orpotik jarraitzen diona. Berrogeita bost minuturo geldialdia egiten dute hari pultsua eta taupadak hartzeko.

– Atseden apur bat hartzea komeni zaizu, Roman.

Sandia erraldoiak aldean eraman eta atsedenaldietan matxeteaz haiei puska kentzea da zazpi namibiarretako baten zeregin bakarra. Haren izenik ez dakite gizon zuriek, zereginak ematen diolako haien begietara daukan bereizgarri bakarra: *sandien gizona*.

Roman Miguelez, Kabali Simalindu gida eta Hernando Cabrera sendagileaz gain, atzean geratu da Romanen adiskide min Noel Elorriaga ere; gainerakoengandik aparte antzean ari da laukotea atseden hartzen. Alferrik galdetuko dugu zergatik den zurbila gero eta zurbilago eta kixkalia gero eta kixkaliago, ez da ezer behartua edo bihurria, bakoitzak badaki zein den bere lekua, ia-ia genetikotzat har litekeen sen inplizitu batek agintzen du mugimenduetan eta ibilbidean. Afrikarrak eguzkitan, itzalean europarrak. Namibiarrak zutik, eserita zuriak. Esan liteke batzuetan bi espezie ezberdin bezala hurbiltzen direla elkarrengana, hasieran mesfidantza lirudikeen jakin-minez, talde bien arteko anaitasuna hipotesien maila lausoan burutan erabili ondoren ezinezkotzat baztertzen duenak legez. Kabali Simalindu gida da pribilegiatu bakarra, zubi-gizona, bi munduak senidetzera deitutako gazte adeitsua. Miguelezek ez daki Kabali izena duen eta Simalindu deitura, edo alderantziz ote den. Axola ere gutxi, egia esan. Berdin batean erabiltzen ditu biak land roverreko kanbio-palanka gaizki sartu eta ibilgailuari nahi gabe atzerantz ez eragiteko nola egin erakutsi dionetik, noiz bata noiz bestea, Kabali eta Simalindu, Simalindu eta Kabali, bitik batean hanka ez sar-

tzea ehiza-gida belxkoarekiko aski deferentzia delakoan. “Konfiantza gehiegi hartzea ere ez duk komeni, martxatrasa erakutsi besterik ez zidak egin”.

– Asko falta da, Simalindu?

Arrantzak zerikusi gehiago dauka fedearekin, ikusten ez dituzun gauzekin, zain egotearekin. Errekako arrantzaleak, kasu, ameslariak dira, konfiantza itsua dute amuko ezdeusetan, sinesmena eskulanaren erlijioan, fedea buztinean eta zizareetan. Ehiza beste gauza bat da, lehia eta arerio hitzak premiazko bihurtzen diren eremua –ez da halako hitzik batere arrantzan–. Pisuz eta indarrez gainditzen zaituen piztia bat menpean hartzeak, norbere neurri sinbolikoa handitzeko ez bada, norbere gizontasunaren soslaia azpimarratu eta berresteko behintzat balioko duelakoan. Arrantzaleak hari meheekin korapilo txikiak egiten daki, ilusionista hatzak izan ohi ditu, jostunarenak. Ehiztaria errementariagoa da, hatz erakuslea baliatzen du beste ezer baino gehiago, hatz oro bihurtzen zaio erakusle, buru eta gogo ere barne, gorputz osoa bektore, eta estutuz gero, testosterona makulu, begininia balizko eiakulazio gardenaren diana ispilatu. Pultsu ona, hori bai, arrantzale zein ehiztari, biek behar dute.

Kabali Simalindu, afrikarretan izenaren pribilegioa duen bakarrak, ezetz esan du. Ez dela asko falta. Baina ordurako eskarmentua hartuta daude Miguelez eta bere lagunak afrikarren distantzia eta denbora neurtzeko moduarekin.

– Only few, only a too much few.

Irribarrea ezpainetatik ezin kenduta, ingelesez esan diena itzuli die Hernando Cabrera sendagileak besteei: “Gutxi, larregi gutxi”. “Larregi gutxi” haren zirtoa ibili dute geroztik gizon zuriek tarte batez, eta haren aldagai ezberdinak asmatuz olgatu dira, “gertuegiagotzen ari gaituk”, “ikaragarri pixartxo bat” edo “puska txikaragarria falta duk”, ateraldi gehienek bezala denbora azkarrago pasatzeko balio izan dutenak.

– Pultsua begiratzeko unea, Roman.

– Berriz?

Administrazio kontseiluak ezarri dio taupaden mendizerrak begiratzeko betebeharra, joaten utziko ziotela, baina sendagilea alboan beti, bypass hirukoitza egin ziotenez geroztik ez dira-eta fidatzen, diru asko gal dezakete haren buruzagitzarik gabe. Indiako faktoria itxi zutenetik ez dago oso garbi berdimentsionatze estrategia “odol isurketa larregirik gabe” berak ez beste inork gauzatu ahal izango duen; ez dira ga-

rairik onenak kooperatibarentzat. Batek daki. Fede kontua baino ez da hori ere, agian, arrantza bezala. Termotik te izoztua edaten ari direla, Noel Elorriagak atera du gaia:

– Ez duk izorratzeagatik, Roman, baina hasieratik esan nian nik Indiakoa akats bat zela. Produktua nola egin ikasi nahi zitean, gero haiek fabrikatzen hasteko. Etekinaren ehuneko zortziarekin bakarrik konformatuko zirela uste huen benetan, ala? *Know how* guztia utzi zenuten haien esku. Eta trukean, zer? Galerak eta desinbertsioaren nekea. Erritmo kontua duk: polikiago egin behar dituk gauzak.

– Laneko konturik ez orain, Noel. Gozatzera etorri gaituk hona.

Biek dakite ez dela guztiz egia. Romanek badu oraindik Noelek iritzia aldatuko duen esperantza. Hernando Cabrerak Roman Miguelezen bihotza bere taupadetan dagoela ziurtatu bezain pronto agindu die Kabali Simalinduk isiltzeko.

– Quiet know!

Aginduak jasotzera ohituta ez dauden gizonak atezuan jarri eta otzan-otzan obeditu diote. Kabali Simalindu harritu egin da bere isiltasun eskaerak sortu duen berehalako erantzunarekin. Une horretatik au-

rrera ahalmen hori gehiago erabili beharko lukeela otu zaio, gustatu zaio lipar azkar batez gizon zuriak peko eta esaneko izatea. Obeditu hutsa baino gehiago egin baitiote: eskatutako isiltasunaz gain, erabateko paralisia oparitu diote zamaketarien buruari. Zirkinik egin gabe geratu dira, arnasa hartzera ausartu gabe apenas. Sandien gizona matxetea daraman bakarra ez denez, Kabali Simalinduk sasi gune bat seinalatu du berearekin.

Hasieran ez dituzte ikusi. Gero bai. Lo daude, lasai ederrean.

Hegazti eta erbiekin ez zen posible izaten, baina animalia handiagoekin arau sakratu bat zeukan Roman Miguelezek: piztiarekin begirada bat trukatu beharra lehenbizi, hura hil aurretik. Begirada hark ahalmentzen zuen haren iritziz hurrengo pausoa, tiroa, piztia basatia piztia zibilizatuaren eskuetara modu duin eta zilegian pasatzea. Heriotza noble baten aukera ematea zen kontua, barkamen edo errukizko begirada hartan iheserako edo erasorako lipartxoa ematea, egiaz hark heriotza saihesteko zeukan zirrikitua oso estua izan arren. *Eye contact*, esango zukeen Cabrera mediku anglofiloak. Jarduteko modu horrek asko zailtzen zuen kontua Romanentzat, jakina, baina

nola zintzilikatu horman artean bizirik zela sekula harekin begiradarik gurutzatu ez zenuen animalia baten burua? Ez, hori ez. Inolaz ez. Begiak atera eta gezurrezkoak ipiniko zizkion gero taxidermistak, hainbeste bazekien Romanek: ez zen tamalez piztiaren begirada hura betikotzeko modurik izaten inoiz; zerrautsa, egunkari paperak eta nakar-kristalak baino ez zeuden disekatutako animalien azal-zakuaren baitan, baina hala ere. Romanek begirada bere oroitzapenetan betirako iltzaturik gordetzea zen kontua, gero jasangarria izan zedin disekatutako piztiaren betiereko so itsua.

– Probatu nahi duk hik, Noel?

– Lehenbizikoa duk, hiri uzten diat. Hi haiz profesionala.

Ez dute, ordea, gehiago inguratzerik izan: norbaitek adar bat zapaldu eta lo ziruditenak ziztuan ezkutatu dira, harrigarriro modu zaluan.

– Eme bat zen. Bi kumerekin.

– Sentitzen dut... Nahi gabe izan da.

Hernando Cabrera taupada-zaina izan da kulpantea, adarra kraskarazi duena, hark jaso ditu Roman eta Noel ehiztarien behako gaitzesleak eta afrikarren errukizko soak. Talde biek ulertu dute gertatu denaren

pisua eta garrantzia, nork bere erara. Cabrera sendagilearen lehen safaria da izatez, ez dago ohituta lehoien atzetik ibiltzen, eta gertatzen zen lehen aldia ez balitz, nahita egin duela pentsatuko zuen, beharbada, Romanek, fusila hari eskaini bai baina hartu ez duen bakarra medikua izan denez gero. “Ni ez nago hemen inor akabatzeko, zu akaba ez zaitezen baizik”, entzun beharrik gabe ere badakite begiek entzuten, bai behintzat Romanen begiek, piztiei so egitera ohituak.

Kanpamentua landatu dute elorri zuri sakabanatuen artean. Laku erraldoia izan zen lautadak, hainbeste urteren ondoren ere, ez du bere edukiontzi idorraren izaera galdu. Baina ehiztariena da orain txanda. Utikan, jolasak. Ez lakurik, ez arrantzarik.

Izarren pean afaldu dute. Hainbeste daude, nekeza baita konstelazioak bereiztea. Beste bat eta bestelakoa da, guztiz, zeru hura. Sortatik jokorako banatu zaizkigun karta sastarrak baino gehiago daudela iradokitzen duen zeru askatzaile horietakoa. Samurra dago afrikarrek prestatutako okela.

– Zer da, Kabali?

– Meat, good.

“Okela, ona”. Hernando Cabrera saiatu da Kabaliren hitz ez-nahi-bezain-zehatzen itzulpen jolastiarekin

lagunen kopetilunak apur bat alaitzen, “arragia, emea ez den okela, alegia”, baina oraingoan ez da arestiko estrategia eraginkor suertatu.

– Hori adina ingeles bazakiagu, Cabrera.

Hernando Cabrera adar-zapaltzaile damutuaren ondotik Kabali Simalindu ere lotara erretiratu denean bakarrik berreskuratu dituzte hitz jokoak eta barreak Romanek eta Noelek, “okelegia ona izateko”, “on samarregia okela izateko”, edo “zer okela izango duk ba? Okelelea!”, gidaren lepotik trufatuz. Pipa piztu du gero Romanek, kardiologoak erretzea debekatu dion arren, izarren abaroak kontinenteen arteko kezko pangea hura merezi duelakoan. Bakanetan, baina gertatzen da: piezek bat egiten dutela sentitzen duzu. “Orain ala sekula ez”, pentsatu du agian pipatzaileak. Zeharka eta tentuz hasi da gaira hurbiltzen.

– Piztiak nola begiratzen duen. Ez begiekin derrigor. Errinozero beltzak, adibidez, ahoarekin so egiten dik eta kopetako zimurrekin. Zailena huraxe izan duk orain artekoetan, badakik? Baina gauza zailak ere batzuetan ondo ateratzen dituk.

Noelek ez dio hariari heldu. Erretzen jarraitu du Romanek, ketan den esnebideari so.

– Izatez, beltza esaten ziotek. Baina ez duk hain beltza errinozero hori.

Zirkinik ere ez, begiak ñarrotze soil bat, asko jota.

– Jendearekin ere gertatzen zaidak batzuetan, begirada begietan ez beste nonbait dutela sentitzea, aurpegiko gihar batekin edo kokotsarekin so egiten didatela, hiri ez?

– Bazakiat nondik jo nahi duan. Baina erabakia hartuta zagok, Roman. Sentitzen diat.

Mendian esnatu den edonork badaki hori. Erre usainak ez duela hainbesteko enbarazurik egiten egunsentiko aire freskoarekin batera datorrenean. Bezperan okela erretzeko egindako suaren errautsek azpimarratu egiten dute naturaren distira, oxigenoak biriketara dakarren mesedea, erregaitzat erabili zen zedroaren usainak gain hartzen dio bere kixkaliari. Bart izarren esne parrastadak bezala, naturak gaindiezin aurkezten du bere burua egunsentian. Hala sentitu dute gizon zuriek, sekula ikusi gabeko urdin hark gain hartzen diola beste edozeri. Txiki sentitu dira txiki. Txiki eta ezdeus.

– Koberturarik ez dago hemen, ezta?

Hernan Cabrerari luzea egiten ari zaio asteburua. Asteburua baita. Ezin bestela izan. Halaxe aukeratu zi-

tuzten abuztuko larunbat eta igande bat, Romanentzat urte osoan mugikorrik gabe ibiltzea posible zen egun bakarrak. Romani ez bezala, ordea, inkomunikazioaren luxua sufrikario zaio sendagileari. Gupida sortzen die orain arestian ehiza uxatu dien medikuak.

– Hago lasai, gizona, bihar hiriburuan izango gaituk berriz.

Kabali makurtzen denean ez dago jakiterik antzerkia egiten ari den –*the real thing*–, edo benetan antilope baten gorotza usaintzera ote doan, antilope bat den lekuan lehoia ere urrun ez dabilela ziurtatu eta espedizioa arrasto egokiaren atzetik jartzeko. Fidatu egin behar. Fedea izan behar Kabali Simalindurengan, nahiz eta horrek –fede premia horrek– arrantzaleago bihurtzen dituen ehiztari baino, jostunago erramentari baino.

– Honen ondoren elefantea baizik ez zaidak faltako. Ez nauk hilko, behin bederen, haren begirada sentitu gabe. Aire konpainia aldatu beharko diagu, hori duk txarrena: Lufthansak ere uko egingo ziok datorren hiletik aurrera animalia buruak garraiatzeari.

Zuzentasun politikoaren ageriko eta alboko kalteez aritu dira Noel eta Roman, genero berdintasunaren aldeko lege berriak ekarri dizkien buruhausteez.

Eta, azkenean, aurrez aurre, bezperan guztiz aletzera ausartu ez ziren gaira hurbiltzen joan dira.

– Eta esan, Roman, zenbat lanpostu galduko dituzue bidean?

– Zuek eman ez diguzuen kreditua medio, esan nahi duzu?

Adiskideak dira, baina batak ez du bestea kentzen. Urteak ziren arren Romanek Noel ehizara gonbidatzen zuela, aurten onartu behar izan du gonbita, hain zuzen, zorra ordaintzeko kreditua emateari uko egin dioten urte berean. Hegazkin txartelak enkargatu zituenean Noelek mailegua errefusatuko zietela ba ote zekien edo ez, hori darabil burutan Roman Miguelezek. Ez dio lagunaren erantzunari itxaron:

– Korporazioko parte da zuen aurrezki kutxa. Gure diruarekin eraiki zenuten. Mailegua emateko derrigortasun morala daukazue.

– Derrigortasun morala? Korporazioko kide izateagatik? Nork bere negozioaren alde egin behar dik, Roman, ongi dakik hori. Ala korporazioko bidaia agentziaren zerbitzuak baliatzen dituzue zuek Indiara bidaiatzeko? Ez, horixe: kanpoko enpresa bat, merkeago ateratzen zaizuelako. Ez al da hala?

– Ez duk gauza bera.

– A, ez? Aspaldi utzi genian elkartasuna aldarean, motel.

– Birfinantziazio plan bat aurkeztu diagu. Herorrek aipatu huen atzo. Erritmoa adostea duk giltza.

– *Birfinantziazioa*. Jakina. Hori duk hitza. Zenbatgarrena bost urtean?

– Hori ez duk kontua...

– Bai, Roman. Baduk kontua. Bat hondoratzen delako, ezin hondoratuko gaituk denok, ala?

“Laku bat, laku bat izan zuan behiala hau, eta gu hondoan gaudek eta berdin-berdin hartzen diagu arnasa”, pentsatzen du Roman Miguelezek, pentsatu behar baita zerbait adiskideak arrazoia izan eta hura hari ematea mingarriegia denean. Dena erlatibizatzea errazten zuen horizonte eskuzabalaren aurrean, eman ere emango ziokeen akaso arrazoia, topiko-trukerako esaldietan gehien gorrotatzen duen hura entzun izan ez balu Noel Elorriagaren ahotan:

– Ez duk ezer pertsonala.

Zerbait gehiago espero zuen adiskide batengandik.

– Esadak, behintzat, publiko egin aurretik hobeto pentsatuko duzuela.

Isilik geratu da Noel Elorriaga. Ezezkoa egin du buruaz. Romanek ez du desesperatuegi agertu nahi.

– Esadak badagoela atzera egiteko aukeraren bat.

Ezezkoa hain argi esan dizutenean, zer keinu geratzen da? “Burumakur agertu edo lepoa tente alde egitea baino ez”, otu zaio Romani. Greziako krisiaren harira Europak eman ditzakeen laguntzen inguruan Mariano Rajoy Espainiako presidenteak bota berri duen perla etorri zaio burura: “Gauza bat da solidarioa izatea, eta beste bat, ezerezaren truk solidarioa izatea”.

Ez dira elkarri begiratzera ausartzen.

– Arrazoi huen, hobe genikek laneko konturik ez hemen aitatu. Nire akatsa, gonbidapena onartzeagatik.

“Orduan bazekien”, pentsatu du Romanek, “gonbidapena onartu aurretik zekien ez zigutela mailegurik emango”. Noelek bi mopane zuhaitzen artean ipini du hamaka, lo kuluxka egiteko. Berehala dago aho zabalik eta adurra dariola. Ez dauka arazorik loak hartzeko. Ez da bera laurehun langile kaleratzearen ardura daukana, nonbait.

Goiza etsigarri joan da: eduki zezaketen hizketarako gogo apurra zapuztu die bero sapak, eta afrikarrek

atondutako olanaren abaroan te izoztua edan eta sandia zatiak jan besterik ez dute egin. Kabali Simalinduk, liskar guztiekiko ezjakin, pribilegiozko lekua dela dio –“hau da lekua”– eta itxaron besterik ez dutela egin behar. Denbora kontua besterik ez dela.

– Begietara begiratu ahalko diozu. Handik etorriko da.

Oso seguru mintzatu zaio Romani Kabali Simalindu, kristalezko bola eskuetan balu legez. Inportantea da fedea. Sinetsi, gizona. Liburuko irakaspenik ez ahaztu: sinetsi.

Fusila hartu eta Kabalirengana hurbildu da Roman Miguelez.

– Simalindu. Igo gaitezen hor gora, ea zerbait ikusten den.

Muino txiki bat da, esku baten eiteko konkor ganbila. Harantz abiatu dira oinez, eguzki babesgarririk gabe, nahiz eta ongi dakien Romanek ez lukeela halakorik egin behar. Ziztuan atera zaio atzetik Cabrera, bere sendagile maletina aldean dakarrela: “Ni ez nago hemen inor akabatzeko, zu akaba ez zaitezen baizik”.

– Pultsua hartu behar genuke, Roman.

– Orain ez.

Izerdi patsetan iritsi dira muinoaren gorenera Kabali eta Roman. Hantxe dago. Gizakiak bide atletiko eta ederzaleagoetan bere garapena ez egin izanaren atsekabea sentiarazten dizun lau oineko noblezia puska inkontestablea. Mopane arbolaren enbor etzanaren gainean kamera geldian oinez, azpian duen enborraren makurdura berera bizkar gihartsua egokitzeko gaitasunaren jabe, milurtekoetan atzera eramaten zaituen katu mitologikoa. Romanek sekula ikusi duen piztiarik ederrena, zalantza izpirik gabe. Piztia eta ez piztia. Sekula ikusi dituen gauza, leku eta izaki guztietan ederrena da: gepardo beltza.

Lepoa jiratu du orduan piztiak, Kabali eta Roman dauden aldera. Gepardoari so egin diote biek. Romanek Kabaliri gero, ez haren baimen eske zehazki, baina bai ametoa emango dion onespen konplize baten bila, agian. Atzerago dator Cabrera, eskopetarik ez daukan gizon bakarra, taupada-zaina, adar-zapaltzailea, piztia-uxatzailea; gaur, beste guztiak bezala, naturak eskaini dien ikuskizunaren lilurak irentsia.

Kabali Simalinduk hasperen totela egin du:

– Ez... Ez daukagu baimenik, jauna.

Jakin-minez begiratzen die gepardoak. Sua du begietan. Norbere arima lasaitu eta inori kalterik egiten

ez dion su orekatu hori da, ordea, bart gaueko adar erreen eztizko sugarrak, baina zurigunez eta urdingunez zipriztinduak. Pinporta elektrikoak han-hemenka, aldatu egiten zaio begien kolorea joan-etorrikoak diren irakinaldi azkarretan, horitik berdera, berdetik urrera, herrestan doan errekarri. Bere bizitzan lehen aldiz, argazki makina on bat eskura ez izatea deitoratu du Romanek. Irakurria du nonbait, argazkilariari "gillotinatzailea" esaten ziotela aspaldian Frantzian, haren estudiora erretratua ateratzera joandakoan lepoa zuzen eta prest jarrarazten zizulako, zure burua gorputzetik askatu eta pasaporterako potreta karratua saskira bota aitzin.

Romanek armaz destatu duenean soilik saiatu da piztia handik hanka egiten, baina beranduegi. Fede gehiegi izan du bere buruarengan, edo sabanako bisitari ezohikoenganako jakin-mina sobera. Erdiz erdi jo du Winchester eskopetaren hemezortzi milimetroko balak. Bakarra nahikoa. Agoniarik gabe erori da, ziplo eta duin.

Mutu geratu dira denak une batez.

"Zerbait baliagarria egin dezakek gutxienez: piztia hilik dela berretsi", bota dio Cabrera medikuari Roman

Miguelezek, bihotza azeleratuegi dabilkiola sumatu duenean.

Selfie bat atera du harrapakinarekin gero. Piztiari betazalak altxatzeko eskatu dio Kabaliri, eta izututa bete du gidak eskatu diotena, sineskeria gehiegiren kontra egin behar izan balu bezala denbora gutxiegian. Instagramera igoko du argazkia Romanek, baina ez dago filtrorik bizirik zela zeukan suzko begiradari ohore egingo dionik.

Izututa dakarte afrikarrek gepardoa kanpamenturaino. Izututa so egiten die Kabalik ere. Isunari dio beldur. Eta, agian, halako animalia bat akabatzeak eta haren hilotza ukitzeak ekar lezakeen aieru gaiztoari.

Haiek eskatu ezean, sandien gizonak ez die aspaldi sandiarik mozten. Goserik ere ez daukate, egia esan. Kezkatuta dago Noel:

– Ez ahal dugu paperekin arazorik izango.

Ehizakia erakutsiz harrotzeko joeraz beste, eguzkiaren kontra erabilitako olanaz estali dute land roverraren gurdian gepardoa resorterantz abiatu aitzin, zer gerta ere. Edonork atera dezake argazki bat, patrikako telefonoekin ez dago fidatzerik. Handik gutxira, geldialdia agindu du Kabali Simalinduk, inori baimenik eskatu gabe. Gazela bat putzutik ura edaten ari den

lekura hurbildu eta gogorik gabe egin du tiro. Gazelaren hilotza hartu eta gepardoa estaltzen duen olanaren gainean paratu du jeepean, dohakabe. Gero, bigarren olana batekin estali du gazela.

– Norbaitek zerbait galdetzen badu, egun txarra izan dugu. Gazela bat baino ez dugu harrapatu.

Edatekoa erosi dute bakeroz jantzitako aborigenen postu batean. Dortoka biziak ere saltzen dituzte. Ttipiak oso.

– Gero hazi egiten dira. Legezkoa da haiek Namibiatik ateratzea.

Romanek bat erosi du etxeko txikiarentzat. “Ziur Larraitzi gustatuko zaiola”. Bizirik ailegatzea espero du. “Patrikan eramango dut. Dibertigarria izango da Frankfurteko eskanerrean atzematen ote didaten ikustea”.

Namutoniko resortera hurbildu ahala, Cabrera sendagilea da lasaien doana. Patrikako telefonoan lehen kobertura marra azaldu orduko, piztu egin zaio aurpegia. Areago, postontzira mezu bat sartu zaionean. Mezua ez da berarentzat, tamalez.

– Zuretzat da, Roman. Arrasatera deitzeko. Premiazkoa.

Bazegoen ba! Zer abuztu eta zer abuztuondo. Cabreraren telefonoa maileguan hartu du enpresara deitzeko.

– Berri onak, Roman. Oso onak. Garate konbentzitu diagu. Eta Basagoiti ere bai. Noel duk orain traba bakarra... Zer diok? Moldatuko haizela uste duk?

Land roverrera bueltatu eta telefonoa itzuli dio Cabrerari.

– Berri txarrak?

– Ba al da onik igandeetan?

Kabali ari da ehizakia gurdian daraman jeepa gidatzen, sandien gizona alboan duela, eta atzean eserita datoz Roman eta sendagilea. Bigarren jeepean doa Noel, beste gidari batekin. Gainerakoak Etoshako parkearen sarrera baino lehenago geratu dira, poliziaren beldur.

– Esan egia, Cabrera, hiriburutik bostehun kilometrora dago Etosha. Tarte horretan guztian petrikilo etxola bakar bat ere ez dago. Zerbait egin ahal izango zenuke safariaren erdian bihotzekoak eman izan balit?

– Beti egin daiteke zerbait.

Kabali Simalinduk gidariaren leihatilatik burua ateratzen duenean, nahiago du zerura ez begiratu. Bada-

ki hor daudela. Belarriz ezagutzen ditu putreak. Jakinaren gainean egoteak ezinegona eta angustia areagotzeko baino ez du sarritan balio, ordea.

Ilunabarra da parkeko sarrerara heldu direnean. “Goizegi, argiegi”, oharteman dio Kabalik sandien gizonari. AK-47 fusilez hornitutako lau gizonek inguratu dute land roverra.

– Gazela bat –bota die Kabalik, irribarre murduskatuegi batekin.

– Gazela bat? Entzun duzue, mutilak? Gazela bat, esan dik! Gazela bat... eta zer gehiago?

Olana baten atzetik zabaldu dute bestea. Pauso bat atzera. Harriduraz so egin diote animaliari. Belduerrez ia. Zurbil dago Cabrera sendagilea. Romanek sorbaldatik heldu dio Kabaliri.

– Eta orain zer?

– Utzi niri. Esan: zenbat dolar dauzkazue?

Luzea izan da eztabaida, liturgia usatuegi baten praktika, balizko duintasun zaurituzko keinu, haserre imintzio, negoziazioa eteteko mehatxu eta bestelakoz josia. Romanek ez du horretaz jabetzeko haien hizkuntza ulertu beharrik: nahi baino era horretako negoziazio gehiagotan egona da honezkero bere bizitzan.

– Dena ondo, Simalindu?

– Orain ez. Later I explain. Let’s go.

Gasolina hartzen duten bitartean azaldu die tratua. Bostehun dolar izan dira. Ehun zaindari bakoitzarentzat eta beste ehun “natur parkeari egindako dohaintza” moduan. Noelen ibilgailua zeraman zamaketaria agurtu dute. Behin erreserbatik irtenda, errazagoa da gidatzea, eta afrikarren laguntza ez zaie hain premiazkoa. Ibilgailuz aldatu dira. Kabali, sandien gizona eta Hernando Cabrera sendagilea doaz orain aurretik jeep batean, eta Noel eta Roman bakarrik geratu dira bestean, olanaren azpian bi piztiak daramatzatela. Abailtzen ari da gaua, bere izar soberakinarekin.

Irribarretsu zuzendu zaio Roman Miguelez bere bizitza osoko adiskideari, bolanteari esku bakarrarekin eutsiz.

– Ez zaiguk hain garesti ere atera azkenean, ala?

– Hik uste? Ba al dakik zein den namibiar baten batez besteko soldata?

– Hik jakingo duk, Noel. Hi haiz ekonomista...

– Sinets iezadak. Lau aberats berri ekoitzi dizkiagu oraintxe bertan.

– Ez zitean pobre itxurarik lehen ere. Ray-Ban horiekin eta.

Hizketari arreta osoa emanda, polikiago gidatzen du orain Romanek. Hain poliki ze, handitu egin baita Simalinduk haien aurretik daraman jeeparekiko tartea. Kezkatu beharko lukeen galdetu dio bere buruari Hernan Cabrerak, zaindu behar lukeen gizonaren land roverra txikitzen ikusi duenean atzerako ispiluan, eta gauza bera egin du Noelek urruntzen doazen argi gorriei begira.

– Kontua duk onik atera garela. Eta gepardoa aldean. To.

– Hi ohituta hago.

– Zer esan nahi duk?

– Hirea egiten. Ohituta. Baina beti ez duk posible.

Isilunea. Izarrak. Gizon zuriek bereizten ez dakiten putreen hotsa.

– Bi gauza ezberdin dituk, Noel. Esan ez dagoela inolako aukerarik eta berrirotik hasiko gaituk. Akabo. Ez nauk gehiago setatuko. Galtzen ere jakin behar duk. Eta, hiri ez iruditu arren, nik bazakiat galtzen.

Samurtu egin da apur bat Noel.

– Ondo dakik estimatzen haudala. Nire eskuetan zegoen guztia egin nian.

Bigarren klixe gogaikarria. “Ez duk ezer pertsonala; nire eskuetan zegoen guztia egin nian”. “Ezer ez”

eta “guztia”, ez lirateke hitz horiek hain modu arinean erabili behar.

Bolantea une batez askatu eta esku biekin ia-ia Mekarako otoitz-makurtzea den akabo-ba keinua egin du Romanek; “hor konpon, esana dago dena”, zenbait kontu gehiago aipatuak izango ez diren promesa dirudi hark, hasiera berri baten arbel garbia. Isilik gidatu du beste tarte batez, bat-batean ezin hel daitekeen adiskideen arteko taula-arras horri bere liseriketa aldia errazteko. Irratia balebil, sikiera. Baina zintzilik dauden kable batzuk baino ez dira irratiak beharko lukeen lekuan ageri.

– Sumatuko diat Namibiaren falta. Izenik gabeko izar hauek guztiak.

Aurreko jeeparen argiak dira, halaber, izar txiki bilakatzeraino urrundu direnak. Laster ez dituzte ikusi ere egingo. Eta haiek ere ez bigarren jeepa. Begiak ñarrotuz, gero eta motelago gidatzen du Romanek.

– Zer iruditu zaik esperientzia?

– Panterarena latza izan duk. Lastima ez nengoen zuekin.

– Ez duk zehazki pantera bat: gepardo beltza duk.

– Hau bai, beltza: ez errinozeroa bezala, ezta?

– Hala duk: dastatu beharko diagu haren okelelea...

Barrez hasi dira berriz; badago, beraz, aukera bat. Berregingo da desegindakoa, osatuko da papurtutakoa, sortuko da ostera ere suak suntsitutako lurrean bizitza. Beti izan da horrela. Borrokalarien leinukoak dira. Aterako dira aurrera, nolabait.

Orduan gertatu da. Ziraldo bortitza egin du ibilgailuak. Derrepente sakatu behar izan dio Romanek balaztari.

– Zer izan duk hori?

– Ez duk ikusi? Zerbait harrapatu diagu! Gazela madarikatu bat!

– Ez nazak izorratu, Roman... Beste bat?

Noel, birritan pentsatu gabe, jeepetik jaitsi eta faroen argitan jarri da. “Zer?”, “Deus ez”. Sorbalda ezpainera eta ezpaina sorbaldara gerturatuz ezer ikusten ez duela adierazi dio Romani parabrisaren bestaldetik. Gidariak atzeko aldea seinalatu dio hatz lodiaz, karga ongi segurtatuta doala baieztatu eta atzean piztiaren baten arrastorik ba ote den beha dezan, badaezpada. Gurpilen artean egon liteke harrapaturik animalia, eta haiek jabetu ez. Hain azkar gertatu da dena.

Makurtu egin da Noel Elorriaga, baina ez du, oraingoan ere, ezer ikusi. Berriz zutitu denean, ibilgailua apur bat aurreratzeko eskatu dio Romani, gurpilen artean ezer kateatuta geratu ez dela guztiz ziurtatzeko. Atzerako ispiluan bereizi du Romanek Noel, esku biak jeeparen gurdian pausaturik, lokatzetan harrapatutako land roverrari bultzaka ari balitz bezala.

Ez da zehazki erabaki bat izan. Bere bizitzan asko eta mingarriak hartu behar izan dituelako daki hori Romanek. Baina, bat-batean, Kabali Simalinduk bi egun lehenago erakutsi zion atzerako martxak funtzionatzen ote duen, edo berak atzerako martxa hori zuzen jartzen asmatuko ote lukeen ziurtatzeko gogoa piztu zaio. Onurak ekar diezazkiokeen erronka bat da. Edo bere burua engainatu eta dena istripu bat izan dela azaltzeko modua izango lukeela otu zaio, beharbada. Ez zegoen ezer gurpilen artean, baina orain badago. Aurrera eta atzera erabili du koska, bere koska izaeraz ziur egoteko. Ondo erakutsi zion Kabali Simalinduk jeeparen maneiua.

“Ez duk ikusi? Gazela madarikatu bat!”.

“Ez nazak izorratu, Roman... beste bat?”.

“Ez duk ezer pertsonala; nire eskuetan zegoen guztia egin nian”.

Motorra eta argiak itzali eta jeepetik atera da, koska hura gepardoa estaltzen duen gazelaren gainean ipintzeko. Ez dago hirugarren olanarik eta nahiago du ez begiratu.

Errepide nagusitik apartatu eta saihesbide bat hartu du. Ez daki esaten zenbat denbora eman duen gidatzen, baina bai luze egin zaiola: oraindik ez da bakarrik doala barneratu ahal izateko adinako tarterik igaro, horretaz ziur dago. Beste pixka bat oraindik, Roman. Ez galdu fedea. Sinetsi, gizona. Liburuko irakaspenik ez ahaztu: sinetsi.

Errepidetik nahikoa urrundu dela iruditu zaionean, olanatik tiraka atera ditu bi koskak. Arrastaka eraman ditu zuhaitz baten altzoraino, ez daki oso ongi zergatik. Odolez zikindu denean, nahiago izan du, usainagatik, gazelaren odola dela pentsatu. Noelekin akordatu da, mopane arbolan zintzilikatutako hamakan nola etzaten zen, lo, adurra zeriola, duela hain ordu gutxi: aurrez bizi izandako estanpa baten samurtasuna imintziotu nahian dabil, beharbada, nahi gabe. Samurtasun bilaketa horri zor zaio gorpua zuhaitzeraino arrastaka eraman behar hura, olana dilindan den hamaka bailitzan.

Land roverra berriz arrankatu eta zerurantz begiratu du, zer bide hartu jakin gabe, aukera bila. Orduan lotu du entzuten ari zen hotsa irudi zehatz batekin. Haien izena ahoskatzera ere ausartzen ez den hegaztiak, sekula bakarrik ez datozenak.

Esku bat bolantean, jakako patrikan sartu du bestea, bat-batean zerbait garrantzitsua gogoratu edo huskeria bat ahaztu duenak bezala. Biak batera. Alderantziz, agian: gauza garrantzitsu bat ahaztu, huskeria bat gogoratu.

Hantxe jarraitzen du dortokak, sakelan. Bizirik dago, eta lau hankatan doa Romanen eskuan gora.

Ikea Crucifixion

Bikote bezala une gorena Marseillako apartamentuan bizi izan zuten, hala iruditzen zitzaion Manuri, astebete gelatik atera gabe igaro zuten hartan, zeru urdina gela barruan, eta handik kanpora, begiek teilatuei lapurtu ziezaiekeenaz aparte, ezer ez.

Etxerako bidean Marseillari buruzko gida-liburua erosi zuten aireportuan, hirian ikusi gabe utzitakoa turista berantiarraren begiekin irensteko. Ez zuten deus ikusi, baina Marseillako xehetasun eta pasadizoak kontatu zizkieten adiskideei: hiri mestizo, zikin eta borborkari horren gaineko marabillak, azpimunduak ezagutuko balituzte bezala, eta ez apartamentu bateko sabai altuko gela eguzkitsua soilik.

Marseilla, zer zeukan hiri hark haiek modu hartan liluratzeko? “Hona ziur itzuliko garela” esan zuten, beti esaten den legez, nahiz eta gero sekulan itzuli ez. Elkarrekin irteten hasi berriak ziren, *In the mood for love* zen euren film kutuna, Franz Ferdinanden Bartzelonako kontzertua euren bizitzako kontzertua –“It’s always better on holiday”–, eta larruaren sukarrak bizi zituen etengabe oraindik.

Gero, elkarrekin bizitzera joan eta gutxira, dena baretu zen, beti baretu ohi den moduan, eta elkarren kontu gogaikarriak azaleratzen hasi ziren apurka-apurka, itsaspeko nazien diskrezio marrazoarekin.

Dildoen kontua etorri zen lehenbizi, latexezko totem urdina, Manu ez zegoenean zeru puska hura Laurak masturbatzeko erabiltzen zuen aitorpena. Laura kontziente zen gertuegi egon zela gizonezko heterosexualei hain delikatu zaien kontu haren aipamena, gero egin zion galderatik. Zer esan, Manuri geratu zitzaion memelo aurpegiaren ondoren gauzak onbideratu guran okertu baino egin ez zituen zehaztapenaz ("Pasiboa, esan nahi dut"). Jakin behar zuen Laurak ez zituela bi kontuak zertan nahastu eta elkarrizketa berean aletu, gehiegi zela, komeni dela pixkana joatea zenbait kontutan, intimitate partekatua gutxitan egoten dela, guk kontrakoa uste izan arren, bat-batean edozein egia oldarri eusteko bezain erroturik. Manuk ez zuen, ordea, guztiz txarto erreakzionatu –arte kritikaria zen, progrea edo, gutxienez, progre itxura gordetzera derrigortua–, eta egun hartaz geroztik ez zuen arazorik izan dildoa ohean lagun izan eta erabiltzeko. Laurak orgasmorik lortu ez bazuen, gailu urdina erabiliko zuten, aurre edo atze, edo bietan, herabe hasie-

ran eta naturaltasunez gero, erreminta-kaxako tresna bat gehiago, bi, hiru edo lau aldiz. Mugagabea baitzen Laurak sexuaz gozatzeko zeukan gaitasuna.

Laurak, bere aldetik, ulertu zuen zein zen muga: dildoaren maneiua, biak elkarrekin zeudenean, Manuri zegokion –kontrola edo kontrol ustea beti: telebista aldatzeko mandoarekin antzeko zerbait gertatzen zen–. Bestelako sexu praktikei buruz, ostera, ez zuten gehiago hitz egin. Bakarkako masturbazioari buruz ere ez, nahiz eta biek jakin hor zegoela, nahiz eta Manuk gustura esango ziokeen astindu ondotik erakuslearen eta erpuruaren puntarekin presioa egitea gustatzen zitzaiola amaiera aldera, nahiz eta Laura gustura masturbatuko zatekeen Manuren agindueta-ra, haren begiak sentituz, hari irakatsiz hatzak eta dildoa non eta zertan eta zenbat denboraz baliatu. “Hau ere arte bat da, arte kritikari jauna, arte *kritikoa*”.

– Jotaren erakusketaren kritika enkargatu didate *Jot Down*ekoek.

– Artiumekoa?

– Bai.

– Ez da beste munduko ezer.

– Ikusi al duzu ba?

– Inaugurazioan izan nintzen. Rotterdamen egon zinen egunetan izan zela uste dut.

Jelosia ziztada bat sentitu zuen Manuk, Laura bere exaren erakusketan egon zela jakitean. Orain esaten zion? Nolakoa zen elipsiek hautsa lokazteko eduki lezaketen indarra.

Ondotxo ezagutzen zituen Manuk Lauraren estrategiak. “Ez da beste munduko ezer” hura sinetsi egin behar ote zuen? Ez ote zen bere exarekiko desatxikimendu adierazpen faltsu bat, arriskua uxatu eta Manu lasaitze aldera egindakoa? Alderantzizko koartada baten eraikuntza, *a priori* –edo *avant la lettre* esatea ote zen zuzena?–, Jota hurrengoan modu positiboagoan aipatu edo harekin hurrena bazkaltzera geratzeko komodina eta aukera errazteko modua, Manuren baitako lasaitasun itxuran kreditua erosiko zion gutxiespen ttipi bat: “Zaude lasai, jada ez dut maite, setati jarri delako soilik noa harekin bazkaltzera, nahiago nuke mila bider zurekin”.

– Nire iritzia jakin nahi baduzu, Jota estankatuta dago. Baina ez zaitut baldintzatu nahi. Ea zer iruditzen zaizun zuri. Jakin-min handia daukat.

Saiatu zen Manu egunkarietako iritzietatik ez kutsatzen, baina *Gara*ko kritikariak hitz ederrak baino ez

zizkion eskaini Jota Balerdiri. “Garaikide, ekintzaile, apurtzaile” goiburua ikusi eta hortik aurrerakoa ez irakurtzeko adinako odol hotza izatea espero bazuen, oker zebilen. Uste baino ahulagoa zen bere borondatea, nonbait. Jauzi egiteko beti gertu dagoen koiotea da masokismoa. Honela zioen kritikak: “Sakratua denaren eta ez denaren arteko mugak aztertu ditu Jota Balerdik, Agambenen ikuspuntutik profanazioak ikertu, eta objektu sakratuak, inoiz tenplutik at egon arren erlijioak bere egin eta tenplu barruan sartzearen poderioz sakratu bilakatu zituenak, atera egin ditu berriro ere handik, dagokien lekura, bere natura basati eta profanora, itzularazteko. Esanguratsuak dira, zentzu horretan, *Gurutziltzaketak,* gurutzeak seriean ekoizten dituen Ikeako aroztegiaren parodia, edota *Ur bedeinkatua, ez edangarria* izeneko instalazioa”.

Manuk betidanik uste izan du bera bezalako jeloskor bati gerta dakiokeen alukeriarik handiena andrearen exak soslai publikoa izatea dela. Denboratxoa zeraman Jota Balerdik medioetan agertu gabe, baina Artiumek atzera begirakoa eskaintzen zion berrogei urtetik beherako lehen euskal artista izateak egunkari eta telebista guztietara ekarri zuen berriro. “Pasako duk zaparrada”, pentsatu zuen Manuk, eta Artiumera

sartu zen gogorik gabe, bere lana bete asmoz, “profesional bat naiz ala ez naiz?”.

Objektiboa izatea kostatzen zitzaion arren, Manuk onartu beharra zeukan artista handia zela Jota Balerdi. Ahari-talka bideo hura, adibidez, politikarien eztabaidetatik ateratako off-eko ahotsekin bikoiztua, edota ia areto oso bat betetzen zuen *Ikea Crucifixion*, non arotz bati hogei gurutze berdin enkargatu zizkion, gero kale-inkesta batean gurutziltzaketei buruz jendeak zuen ikuspegiarekin landa-lan serio bat egiteko eta gurutziltzaketa fisiko zein metaforikoei buruz sakon hausnartzeko, errazkeriatik urrun. Ez zitzaion hainbeste gustatu gurutze hauetako batera eskaileratxoa jarri eta publikoari bertan zintzilikatzeko modua ematea, museoa jolas-parkera hurbiltzen zuen azken aldiko joerari egindako kontzesio merke antxa.

Profanazioen sailean, bi ziren aipagarriak: pospoloekin hogei euroko billeteak erretzen zituzten ume greziarren bideoa eta Ama Birjina itxurako irudiekin osatutako portzelanazko kontsoladore saila, Sotnas Anager B. artistarekin elkarlanean burutua. Ama Birjina estilizatuak ikusgarriak ziren benetan: zinezko artelanak, objektu erlijiosoak bezala argiztatuak egonagatik zakilaren itxura nabarmena zuten Ama Birjinak,

sexuaren-birjinitatearen-erlijioaren artean iradokitzen zuten lotura ezinezkoagatik shocka eragiten zutenak, ikusleari bere baitan zituenik ere ez zekien tabuak astinduz. Segurua zen durduzadura. Eta zenbait kasutan, arbuioa, edo are, higuina ere bai. Azken lan honen ikusgarritasuna zela medio, ziur aski, ez zuen Manuk hasieran latexez egindako pieza urdinean erreparatu. Posible ote zen? Jakina: interneten ere saltzen zituzten norbere tentea betikotzeko moldeak. Aurpegiekin egiten bazen, zergatik ez buztanarekin? P/A jartzen zuen errotuluan, gainera, *autorearen* proba bat zela, alegia –literalki–, eta sorta serialeko bat baino ez, beraz. Gehiago ere bazeuden seinale. Hura ikusi zuenez geroztik, ezin izan zuen Manuk erakusketako beste ezertan arreta paratu.

Atzerapena eskatu zien *Jot Down*ekoei. Mesfidantzarik sortu ez zedin, erakusketa ikaragarri gustatu zitzaiola argitu zion kultura arduradunari, eta, kritikaz gain, bi orrialdeko elkarrizketa luzea ere egin nahiko liokeela artistari. “Nahi adina luzatu, badakizu webgunean osorik jarriko dugula”. Jakina bazekiela: lan doblea eta prezio erdia.

Balerdik ez zuen elkarrizketa egiteko eragozpenik jarri. Museoan bertan lotu zuten hitzordua, handik bi

egunera. Kolore askotako pinturaz zipriztindutako levis zarpail belaunetik behera moztuekin eta eguzkitako betaurrekoekin azaldu zen, kanpoan eguzki izpirik ez zen arren, surf egitetik letorkeen brokerraren trazako. The Clash taldearen kamisetaren gainetik amerikana berde bat zeraman, arina baina garesti itxurakoa. “Julian Schnabelen imitatzaile bat gehiago”, otu zitzaion Manuri, eta derrepente batean erakusketa gutxiago gustatzen hasi zitzaion.

– Argazkilaria ez da etorri?

Ezin izan zuen bere dezepzioa saihestu, Manuk berak dozena erdi argazki atera zizkionean eskuko kamera lotsagarriarekin, bakarra aterata ere nahikoa zatekeen arren: Balerdik aurpegi berbera jartzen zuen beti, irribarre estudiatuegi bat, ahoa ireki gabe eta begiak zorrotz, are modu maleziatsuagoan Manuri so egiten ziola jakinik (eta ez edozein argazkilariri). Baina agian bere irudipenak baino ez ziren horiek.

Laura zer moduz zebilen ere ez zion galdetu, seinale txarra, horrek esan nahi baitzuen ondo asko zekiela nola zebilen Laura, harreman estuan jarraitzen zutela biek, e-mailez, mezutxoz, whatsappez. Nola zen, bada? “Nire iritzia jakin nahi baduzu, Jota estankatuta dago”.

– Has gaitezen *Kutxa bat ez zabaltzeko arrazoiak* lanarekin. Kutxa itxi bat, aldiro gonbidatu bati ematen diozuna, hark azal dezan zergatik ez duen ireki nahi.

– Ondo zagok. Zein dira kutxa bat ez zabaltzeko arrazoiak? Hasteko eta behin, lehergailu bat egon daitekeela barruan, eta amak aspaldi irakatsi zigula poltsa bat, motxila bat, kutxa bat, edozer topatuz gero kalean urrundu egin behar dugula handik lehenbailehen, ez diogula amore eman behar geure jakin-minari... Baina ez hori bakarrik. Izan gaitezen serioak: denok dakigu kutxa honetan ez dagoela lehergailu bat, eta zabaldu egin nahi genukeela, barruan dagoena beharbada guretzat hartu ez arren, nahiz eta hori izan egiaz geure gurari intimoa, haurtzarotik datorrena, *inoren jostailua gure egitea*, fantasia hori ez baita sekula agortzen mendebaldeko gizarte kapitalistan... Enigmaren bat konpondu, enigma txiki bat, ados, baina enigma finean, eta gero aurrera segitu gizakiak hain berea duen jakin-mina aserik, jakinda zer zegoen kutxa haren barruan.

“Ez da beste munduko ezer. Ea zuri zer iruditzen zaizun. Kuriosidadea daukat”. Edo “jakin-mina” esan ote zuen Laurak?

– Bereak ez diren arazoak konpontzea da gizakiaren garapenaren funtsetako bat, ez?

– Horixe zioat nik, Manu: eskertu egiten ditugula arazo horiek, artifizialak edo beste norbaitenak, horrekin ere aurkitzen dugula, ez soilik kontsolamendua eta baretasuna, baizik eta plazera. “Sobera arrazoi dut gaur, hemen, zuen aurrean kutxa hau zabaltzeko, beraz, barruan dagoena deskubritu eta zuei erakusteko, norbaitek enbalatzeko zintaz kuidado handiz bilduтako kaxa hau bere zigilutik askatzeko; baina are arrazoi gehiago dauzkat ez zabaltzeko, objektuaren indar potentziala bere horretan uzteko, kutxa itxiaren alde eginda errelato irekiaren alde ere egiteko, eta modu horretan kutxa itxi batek duen potentzialtasuna eta indar iradokitzailea ozen aldarrikatzeko”. Berdin alda baitezake mundua kutxa batean egon daitekeen kalaxnikov sorta batek zein kutxa itxi batek berak eragin diezagukeen hausnarketa infinituak.

– Pandoraren kutxaren arriskua saihestea...

– Horrelako zerbait... Kartoizko kutxa itxi baten inguruan gauzatzen da bakarrizketa osoa, kontu guztiz teatrala. Ez dago modurik jakiteko kartoizko kutxaren barruan zer dagoen, ezta bere pisua zenbatekoa den ere, ekitaldia hasi aurretik norbaitek lurrean jartzen

baitu hura eta performerrak bereziki arduratu behar duelako kutxa inolaz ere ez ukitzeaz, ez desplazatzeaz, kutxaren barruan egon daitekeenari buruzko zantzurik txikiena ere ez emateaz. Mintzaldia aldiro aldatzen doan arren, performancearen amaiera berbera da beti: ez dugu sekula kutxa zabalduko. Kutxa aldatzen doa hiri batetik bestera, eta haren tamaina eta itxura ez da beti berbera izaten.

– Eta publikoaren erreakzioa?

– Antzerki ikusle bokazioa duten haiek zapuztuta itzultzen dira etxera. Zer pentsa geratzen dira joera berrietara bihotz-begiak zabalik dituzten artearen militante gutxi batzuk. Eta, aitor dezadan, indiferentzia erabatekoak jota, gehiengoa.

Izatez, *Arrazoiak* saileko lehena izan zen *Kutxa bat ez irekitzeko arrazoiak*, eta ez, ziur aski, saileko obra guztien artean esanguratsuena. Haren ondoren etorri zen, 90eko hamarkadaren amaieran, *Hemen denok elkarrekin biluzteko arrazoiak* konbentzionalagoa. Publikoari bizkarra emanda hasten zen beti, bere bizitzako azken kontzertuetan sarri jarrera hartan jotzen zuen Miles Davis tronpeta-jotzailearen omenez agian, eta bere biluzte progresiboari laguntzen zion bakarrizketa luzea zen hura ere. Publikoari bizkarra emanda ari-

tzeak bazuen azalpen bat: fede egintza bilakatu nahi zuen performancea, eta publikoa berarekin biluzten zela ziurtzat emango balu bezala jokatzen zuen, nahiz eta nekez eta bakan biluzten zen publiko zurtu eta urriaren artean inor. “Desjabetu ditzagun Venus eta Apolo biluztasunaren jabe bakar izatetik, desjabetu ditzagun depilatutako gorputz perfektu horiek biluztasunaren jabe bakar izatetik, emakumezkoak ez ziren biolontxelo izateko jaio, gizonezkoak ez ginen Michelangeloren David izateko jaio, aska gaitezen Man Rayren tiraniatik, pentsa dezagun zer duen kitzikagarritik gorputz bakoitzak, harrotu gaitezen garen fruitu arraroak izateaz. Gorputz orok du bere xarma”. 60ko hamarkadaren amaieran eta 70ekoaren hasieran, body artearen leherketaren ildotik mundu zibilizatuan nagusitu ziren performance gisako haiek berandu heldu ziren gurera, baina berandu heldu izanak egiten zituen zentzugabe? Kritikari esnobenek Jota Balerdiren ekintzak pasatako kontutzat jotzen zituztenean, ez ziren erabat justuak, ahaztu egiten zutelako herri bakoitzak bere erritmoak dituela lekuetara eta ideietara iristeko, eta bertatik igaro ezean zailak zirela beste zenbait bilakaera artistiko eta estilistiko. Ez zegoen

Andy Warhol Getxon jaio izan balitz bezala euskal artea epaitzerik.

Baina beste performance bat izan zen Balerdiri ospe eta arazo gehien ekarriko zizkiona. *Inor hiltzeko arrazoiak* performance bat zela esatea bera aski zalantzagarria zen, egiaz. Hura bai, gehiago zen antzerkirako bakarrizketa baten antzekoa. Egia zen testua, *Arrazoiak* saileko gainerako guztiak bezala, aldatu egiten zela emanaldi batetik bestera –batzuetan goitik behera–; ezin esan, beraz, bakarrizketa zurrun eta buruz ikasitako bat zenik. Horrek ematen zion, beharbada, performance estatusa, eszenaratzea erabat teatrala izanagatik. Testuak oinarri filosofikoa zuen, Kanten dilematik hasi eta Albert Camusengana heldu ("justiziaren eta nire amaren artean, nire ama aukeratuko dut"). Muturreko egoera eta arrazoietatik abiatzen zen, inor gutxik zalantzan jarriko lukeen "norbere buruaren defentsa" eta antzeko kausa justifikatzaileetatik hasita. *Inor hiltzeko arrazoiak* emanaldia 56 aldiz eskaini zuen Balerdik 1998. eta 2000. urteen artean, eta Bartzelonako MACBAren zentsuraz eta artxibatuak izan ziren hiru kereilez gain, izentxo bat ere eman zion performancearen zirkuituan. Emanaldiek aurrera egin ahala, testuez aparte, jendearen inplika-

zioa ere aldatzen joan zen, publikoari txartelak banatzen baitzizkion, emanaldian zehar zerrendatzen ziren “Inor hiltzeko arrazoi” haietatik zeintzuekin ote zegoen ados galdetzeko, modu anonimoan.

Baina hura guztia iragana zen jada. Jota Balerdik aitortu zion gurutziltzatura igotzeko aukera emateare-na Madrilgo bere martxantearen ideia izan zela, eta damu zela amore eman izanaz: “umeek rokodromo bezala erabiltzen ditek”. Hortik aurrera, diskurtso landua zeukan eta ongi bete zuen bere elkarrizketatu papera.

– Ideia da: nor gurutziltzatuko zenuke zuk? Gurutzekoa trukagarria da, Lego estiloko zerbait, jainko Playmobil bat... Baina aski zintzoa bazara, zuk zeure burua gurutziltzatu beharko zenuke lehenbizi, eta berdintasun egoeratik behatu gero gainerako gurutziltzatuei. Biblian ere esana dago, Lukasen ebanjelioan: “Osagile, osatu ezazu zeure burua”. Kontu oso garaikidea, bestalde, jendeak Googlen begiratuta sendatu nahi baitu bere burua... Baina nik diot: “Ikusle, gurutziltza ezazu zeure burua”. Gurutzearen atzean dagoena, zenbait antropologoren ustez, nik baino hobeto dakik hik, Manu: koitoa duk, emakumea eta gizonezkoa elkarturik.

Bai, azken horretan arrazoi zuen, Manuk ongi ezagutzen zuen kontatzen ari zitzaion guztia, eta atariko luzeegia eta malkartsua begitandu zitzaion latexezko zakil urdinera arteko bidea.

– Eta hau?

– Ama Birjinarena?

– Ez, bestea, urdin hori: “P/A” dioena. Kontestutik kanpo dagoela dirudi.

– Egia esan, pantone kolorearengatik jarri diat hor. Yves Kleinen urdina gustatzen zaidak.

Narritagarria zitzaion, berak zuka egindako galderei hika erantzute hura. Gehiegizko konfiantza salatzen zuen, berak beretzat nahi ez zuena, eta hikaren laztanari eta ezpatari zukaren atzerapausoarekin eta ezkutuarekin erantzuten zion beti Manuk.

– Kolorearengatik, diozu?

– Ama Birjinak zuriak dituk eta portzelanazkoak, eta dildo hori berriz, urdina eta latexezkoa. Ezkontzetako sineskeriekin dik zerikusia, ulertzen? Nola duk ba? “Zerbait berria, zerbait zaharra, zerbait mailegatua, zerbait urdina...”. Zergatik interesatzen zaik hau bereziki?

Ez baleki bezala. Zalantza egin du Manuk aurrera segi aurretik.

– Dildoak seriean fabrikatzen dira normalean, eta zure horrek P/A dauka jarrita.

– Halaxe da-eta: autorearen proba bat duk. Prototipo bat.

– Interesatzen zait hori. Serializazioarekin kritiko agertu izan zara orain arte eta... zure lanen errepro-dukzioa debekatzera ere heldu izan zara. Dildo hau enpresaren mundura egindako hurbilketa bat dela uler daiteke, ikuspegi aldaketa bat zure ibilbidean?

– Ez, ez zaukak horretatik batere. Nire estudioan egindako prototipo baten lehen alea duk. Hiru zaudek guztira. Eta ez ditiat gehiago egingo.

Balerdik distira zuen begietan hori esan ziolarik. Manuk gehiegi zekien harrezkero.

Elkarrizketa ahalik eta modu zintzo eta desapasio-natuenean transkribatu eta kritika idaztea besterik ez zitzaion geratzen. Aldekoa. Ñabardura ezkorrik ez, ba-tere. Ez zuen gurutziltzatua rokodromo bihurtzearen xehetasunari buruz deus aipatu.

Laurak afaria zeukan lagunekin eta portatilaren aurrean lanean harrapatu zuen ordu txikietan Manu, txispatuta etxera iritsi zenean.

– Zer iruditu Jotarena?

– Gustatu zait. Pentsatzen nuena baino gehiago.

– Benetan?

– A-ja.

– Eman dizkizu eskumuinak niretzat?

Gezurra esatea erabaki du:

– Bai.

Laurak portatila itxi eta eskumuturretik heldu dio.

– Zatoz, oparitxo bat daukat zuretzat...

Alderantziz egingo balu, sikiera: bera biluzten hasi ere egin aurretik ateratzen zuen beti kaxoitik totem urdina. Erabili edo ez, gertu izateko hasiera-hasieratik. Etsaia edo etsaiaren zati bat etxean izatea zer den. Ez al zen gehiegizko umiliazio horren dotorezia ezaz jabetzen? Benetan uste zuen ez zela konturatu erakusketakoaren berdina zela P/A dildo hura? Egilearen proba, P/A, *prueba del autor*.

Zerbait berria, zerbait zaharra, zerbait mailegatua, zerbait urdina. Hitz maiztuen eta objektu erabilien mugak eta batzuek zein besteek eragindako asperdura etorri zitzaizkion gogora Manuri, eta ezin izan zuen elkarrizketari jarri zion azpititulua gogoratzea saihestu: “Bizitzak kopiatzen du artea, eta ez alderantziz”. Dildo urdina ez bezala, hitz haiek ez ziren Jota Balerdirenak, Oscar Wilde handiarenak baizik, eta hori, nolabait, kontsolagarri suertatu zitzaion: “traizio-

en eta maisulanen egiletzaren iturria, zenbat eta urrunago, are hobeto”. Bikote bizitzaren aro berri eta apalago batean sarturik, zera iruditu zitzaion Manuri, Klein urdinarekin eta letra larriz egindako artearekin, haiekin ez, haragiak ezin duela konpetitu. Okerrenaren zain zegoen, baina ez zen berak espero zuena izan.

– Ze oparitxo da, ba?

– Astebeteko oporrak erosi ditut, Manu! Sitgesera goaz, zinemaldi fantastikora!

Ez zuen Laurarekin Marseillako astebetea bezalakorik berriro biziko: zeru urdina gela barruan, eta handik kanpora, ezer ez.

Danubio mekanikoa

Angela Merkelek azken ordubetean berrehun metro eskas aurreratu duela egin du kontu. Martxa honetan ez da sekula ailegatuko. Esku-frenoan ahurra, izerdia galtzarbeetan; norbait balu ondoan aringarri, hizketarako. Bolantea atxikitzean, besapeak freskoago, baina sorbalda gainak heze sumatu ditu, hatzak likatsu. Bularretakoaren gomak urratu egiten dio bizkarra.

Irratia piztu du, krisi ekonomikoaren kalakarekin aspertu den arte. Fidagarria bezain zaharra da Mercedes autoa, irrati-kasetea ere bai. Bob Dylanen zinta maiztuari aukera laburra eman dio, baina leihatilak zabalik utzi behar bertan urtuko ez bada, eta kanpoko zaratari sartzen utziz gero, ez da musika ondo entzuten (“I used to care, but... things have changed”). Brigitte Reimannen liburu bat darama gidalagunaren eserlekuan. Irakurle porrokatua den arren, ez dauka hura leitzeko gogorik. Idien parekoa gaur, jendearen eramana. Egonarri handiz portatzen ari da Biriatuko xagu-tranpan harrapatuta dagoen gidari saldoa. Klaxon hots alerik ez. Motorra itzalita berrogei minutu daramatzala jabetu orduko, bi kamioilari ikusi ditu, elka-

rri keinu egin eta kabinatik salto batean jaisten, tabernara bidean animoso; kasu profesionalei, haiek badakite zertan den hau.

Kontua ez da hobetuko.

Ama bat, txadorra soinean, haur besoetakoari sehaska kanta dirudiena abesten. Zangoak luzatzera atera dira bizpahiru gazte. Mahukarik gabeko kotoizko kamisetaz jantzitako jubilatuak petankan jolasten. Gasoil usaina sakonagotu egin da, behin betikoa dirudien argazki baten eran finkatu arte. Udan berandu iluntzen badu ere, Angela Merkelek badaki ilunabarrak errepidean harrapatuko duela. Etxera deitu behar luke; kopilotuaren eskularru-kaxan laga du, ordea, telefonoa, eta hura eskuratze hutsa energia gastu eskerga iruditu zaio. Kanpora doa bera ere, arraio beltza. Lau antxume pauso aski Biriatuko *souvenir* dendara txango egiteko: Osborne zezenak marraztuta dituzten hondartzako toallak, zezenketetako kartelak, buztinezko harrijasotzaile *kitsch*ak, pizgailu ikurrindunak. Deus ez etxerako modukorik. Hegoalde madarikatua. Hurrengo astean Greziara joan behar du, gainera. Euli bat jarri zaio betileen puntaren puntan: akabatuko luke horrelakoetan, eta ez eulia bakarrik. Kopeta xukatu eta hatzekin orraztu ditu bere kazola-adatsak,

halamoduz. Ezer erosi gabe itzuli da autora. Ikusten dueino, ibilgailuetako ateak irekita dago jendea; ezin jakin zertan eta non datzan istripua, kontrola, zernahi dela ere ilararen arrazoia.

Honda Civic bat du Angela Merkelek parean, karabana familiar bat aurreraxeago, eta hari itsatsita, ardiz betetako trailer bat: manex burubeltzak. Bat-bateko burutazio zoroa izan da, birritan pentsatuz gero sekula egingo ez zenukeen zerbait. Honda Civic autoaren kapotara igo eta, handik eskaileretan gora, Civicaren aurreko autokarabanako sabaian paratu da. Biraoa bota dio gidariak Angela Merkelek ulertu ez duen hizkuntza batean. Ez du asko iraun autokarabanako sabaian. Handik, beste jauzi batez, ilarako hurrengo ibilgailua den trailerraren ateko maratilan oina jarri eta gurdira igotzekoa egin du, eguzki izpiak datozen lekurantz begiak eramateko bezain zentzugabe diren gidari bakanen harridurarako. Gustura sentitu da Angela Merkel han goian, ardiz betetako trailerraren sabaian artzain zakur; western batean bezala, tren baten asaltorako prestatzen. Baikortasun suerte bat erne zaio. Ederki egoten da hor, libre eta arin: behean nabaritzen ez den haize leuna dabil.

Txapazko terraza estuan tarte bat igaro ondotik, laster bere Mercedesera itzuliko dela ebatzi du. Baina ez oraindik. Trailerraren kabinara pasatuko da lehenbizi. Hozkailu-kamioi txikixeago bat ikusi du aurrean. Hain daude kamioiak elkarrengandik gertu, nahikoa litzatekeela jauzi ttipi bat batetik bestera igarotzeko. Nola eutsi tentazioari? Birritan pentsatu gabe egin du salto. Himalaia izoztuaz akordatu da, mendizaleek aipatu ohi dituzten pitzadura horiez, eta pitzadura horien gainetik jauzi egitean sentitzen duten amildegiaren erakarmen indarraz. Bereak, derrepente, dema baten itxura hartu du; bere buruari apustu egin dio noraino helduko ote litzatekeen hartara jarriz gero, kamioi batetik bestera, auto batetik bestera, errepidea ukitu gabe sekula, ibilgailuen errenkada hari segika, sabairik sabai.

Segitzea erabaki du. Ez dauka deus galtzekorik.

Ilarak bere horretan jarraitzen du. Jendea burua jertsean bildu eta leihatilaren kontra jarrita gaua eserlekuetan kukututa pasatzeko prestatzen ari da. Jada ez du bere autoa ikusten, urrun geratu zaio eskularrukaxa, patrikako telefonoa. Ia egurtu dute marseillar batzuek, haien BMW Serie 4 Coupé zilarreztatuaren sabaia maspildu duenean. Baina onik atera da. Zalan-

tza dauka, hala ere, alde egiten utzi izanaren arrazoiaz: ezagutu dutelako utzi diote joaten, edo, alderantziz, ezagutu *ez* dutelako? Madarikatutako loresorta bat oparitzen duenak bezala, adineko emakume batek arrosa zuri zimelduak diruditen kleenex painelu zimurtuz gainezka dagoen autora sartzera gonbidatu du, baina esker onez errefusatu du gonbita Angela Merkelek.

Gauarekin freskura iritsi den arren, sukar gisako bat sentitzen du; gaixotasunarena ez, nekearen ondorio behar duela erabaki du, gauza horiek norberak erabakitzerik balu bezala. Prentsa alemaniarrak atera zuen zurrumurruaz akordatu da: lehen senarra utzi zuenean hozkailu eta guzti alde egin zuela etxetik. Ezin horren kontra txintik esan. Hala izan zen, egiaz.

Sinapsi larregi. Trumilka datozkio eta trumilka doazkio pentsamenduak, modu erabat desinhibituan, neuronek zoratu eta koordinazio oro galdu izan balute legez. Bururatu zaio itzelezkoa eta amaiezina dela ibilgailuen suge hura, ibai berri bat sortu dela Europaren bihotzean, kolore anitzeko zain nabigagarria, Danubio mekaniko bat. Otu zaio, halaber, Frantzia osoa zeharka lezakeela akaso handik hasita, autorik auto, trailerrik trailer, karabanarik karabana, zuhaitzez popula-

tuago zegoen garaian tximinoek adar batetik bestera, arboletatik jaitsi gabe Pirinioetatik Gibraltarreraino penintsula iberiarra zeharkatzen zuten ber gisan. Eta zer topatuko ote luke Frantzian barrena? Bordelen Victor Hugok hitzaldi ospetsua bota zuen plaza hura, esate baterako ("Eraiki ditzagun Europako Estatu Batuak. Osa dezagun konfederazio kontinentala elkarrekin, i-zan-gai-te-zen-as-ka-ta-su-na!"); zilborrak bezalako biribilguneak, frantziar txobinismoaren metafora, berrehun gazta diferente eta gerezi marmelada eskainiko zizkioten etxekoandre musugorriak, Napoleonen sindromearen peko ministro eroxkak, *cherchez la femme*, kamioien gurdietan Gallimard argitaletxeko liburuak utziko zizkioten irakurleak, *La possibilité d'une île,* trailerren gainean festak antolatuko zituzten rapero aljeriarrak. Komeniko ote zen handik Suitzako elefante hiltegira txangoa egitea, euren suizidio-turismo instalazio zoragarriak ezagutzeko? Gero helduko zen Belgika, Frantziari ezarritako asterisko izateko bokazioarekin sortu zen herrialde hori, Tintin alkoholikoen antzeko pederasta erretiratuekin, Utrechteko eraztuneko ostiral gauetako auto pilaketak, zuk jakin gabe azpi-aseguratzen zaituzten Holandako aseguru konpainiak, Black Widow erretzeko coffee-shop zoraga-

rriak Amsterdamen, bizikleta sendoak tranbia errail hondoratuen gainetik ziztuan pasatzen Rotterdamen; bere Alemania kuttuna, Berlingo lau Operak, horietako bat bufoa izaki, Bavariako bihotzean errezel eta pertsianarik gabeko etxeetan bizitza pribatua agerian eta siesta arriskua urrun; Poloniako gaztedi berria, haien gurasoei mendeku hartzeko katoliko bihurtzen zena orain; golf makilekin hortzak ateratzen dizkizuten austriar jatorrak, akaso; Hungariako errege zaharren oinordekoak, zarpail jantzita dabiltzanak eskaleekin nahastuta eta haiekin lehian; Elvis Presleyren lilurak eta *Dirty Dancing* filmeko musikak kolonizatutako gazte kroaziarrak Rijekako portuan rockabillyen modura orraztuta. Hori dena ikusiko zuen ibilgailuen sabaietatik jaitsi ere egin gabe. Eta oinez-oinez Moskuraino ailegatuko balitz Danubio mekanikoa? Eta tintontzia buru gainean erori zitzaion Gorbatxov handia topatuko balu Lada Niva auto baten sabaian vodka edaten; edo egun agintean zegoen samurai ilehoria, tanke baten gainean xakera jolasten eta galtzen bazuen arerioari *shashka* batekin zintzurra mozten? Ikus ditzake Volvo autoak eta Scania kamioiak, limusinak, Renault Meganeak eta Xsara Picassoak, surfa egiten ari da guztien gainetik, olatuak hartzen ari da; kasu

Merkeli, ez dio bakar batek ere ihes egiten. Eta berriro hegoalderantz jo eta Abkhazia harrapatuko balu, bere hondartza harritsuetan egunkari orrien gainean kartetan jolasten duten turistaz betea? Zenbat elkarrizketa eta zenbat barre, zenbat eztabaida eta zenbat besarkada, orduan bai jarriko ziotela komunikabideek merezi zuen arreta, “Angela Merkel! Lurra ukitu gabe dabilen Europako erromes bakezalea, Danubio mekanikoko aingeru urdina!”.

Geldi hor, stop.

Zerbait mugitzen ari da errepide ertzean. Zuhaitzen artean, hamaka zuri bat dirudiena daramate oihuka lau gaztek, barre ozarren artean. Erratuta dago Angela Merkel: bai zera, hamaka, neskatila bat da oihuka. Angela Merkelek ez du ongi ikusten. Trailerraren gurdi ertzeraino inguratu da. Bai: emakumea da, ez dago dudarik horretaz, orban zuri hura iluntzen ikusi du, haragiaren edo azalaren ilunera belzten gauaren erdian. Lagun kuadrilla jolasean ariko da ziurrenik, jende gazteak halako jolas bizarroak egiten ditu sarri, otu zaio, espainiarrak izango dira, zibilizatu gabeak edo erdi zibilizatuak, hoteletako balkoietatik igerilekuetara jauzi egiten duten Liverpoolgo grunge garungeak bestela, edo tixertak bandana gisara bu-

ruan jarrita pektoral bistan ibiltzen diren turista amerikarrak, sanferminetatik bueltan. Aspertu egingo ziren eta elkarren ezagutza egingo zuten gazteek auto buxaduraren erdian, disko-festa eta gero basorantz, lagun artera sartuta, ardo tantekin poztuta. Merkelek ere egin zituen halako erokeriak unibertsitatean –bere erara– Leipzigen Fisika ikasten zuen garaian.

Tupustean eten dira neskaren oihuak.

Ondo pasatzen ariko direla ondorioztatu nahi luke Angela Merkelek, nahiz eta, adi-adi so eginez gero, trapu bat ere izan daitekeen emakumeak ahoan daukan hori. Ala ez? Begiluze ez izaten, inoren kontuetan muturra ez sartzen erakutsi diote umetatik. Angela Merkelek zer egin dezake ba, han goitik? Ezer gutxi. Jarria dio araua bere buruari Danubio mekanikotik ez jaistekoa, eta arauak betetzeko dira, ala? Urrunegi dago, bestalde. Eta haiek lau dira eta bera bat bakarra. Ez dago fisikaria izan beharrik galtzeko guztiak dauzkala ulertzeko. Nahikoa izan du jada BMWko marseillarrekin. Uju egitea pentsatu du, badaezpada ere. Ez du egin. Neskak ere ez: ahoa lotuta du, nonbait, nahiz eta entzun duen gizon gazteetarik bat esaten: “kendu hori, nola oihu egiten duen entzutea gustatzen zaidak”.

Hankazpi xuriak ikus ditzake gauaren erdian, mugitzen eta astintzen hasieran, tinkatzen eta etsitzen gero. Newtonen hirugarren legearen arabera, gorputz batean eragiten duen indar bakoitzeko, gorputz honek indar hori sorrarazi duen gorputzean indar berdina egingo du, aurkako zentzuan.

Zuhaitz baten kontra bakarrik intzirika geratu da emakumea. Negarrez ari da, tu egiten du, izterra amorruz igurzten du hatz lodiarekin, gurinezkoa balu bezala, puska kendu nahi balio bezala bere gorputzari. Begiak ohitu zaizkio iluntasunera eta orain argi eta garbi ikusten du dena Angela Merkelek. Zikin eta zeken sentitu da. Ez da lau mutilen arrastorik, irentsi egin ditu basoak. Putakume dohakabeak. Emakumearengana jaitsi behar luke, hari laguntzeko jada beranduegi den arren. Horren ordez, trailerrik trailer, karabanarik karabana, autorik auto, ardiz betetako trailerraren gurdiraino heldu da. Amaitu da jolasa. Ardietako batek burua gurdi-kaiolatik aterea du eta adi-adi begiratu dio Merkeli.

Angela Merkel bere autoraino irristatu da, umil eta isilik. Gidariaren leihotik sartu da ostera barrura, gimnasta errumaniar baten zalutasunarekin, egunean

zehar pilatutako sargoriaren uhin estatikoa emeki-emeki egozten duen asfaltoa ukitzera ausartu gabe.

Telefonoa hartu du kopilotuaren eskularru-kaxatik. Etxean kezkatuta egongo dira. Deitu behar luke esateko dena ondo doala, egoteko lasai, berandutu egin zaiola eta hasteko afaltzen bera gabe.

Etxeko giltzak

Izen polita zeukan sandwichak, baina hor bukatzen zen bere xarma guztia.

– Noiz joango gara Burger King-era?

– Ez al dago ona bikinia, Izaro?

– Sandwich bat besterik ez da.

Saiatu da ama hondartzako txiringitoan giltzak patata-zorro apurtuaren azpian ezkutatzen, baina Jone konturatu egin da.

– Etxeko giltzak, ama.

Apartamentuko giltzak hartu ditu, sutan gori-gori baleude bezala, eta eskuaren balantzan pisatu, tasatzaile paperean. Alokairuzko pirautxoen txabola paretik pasatzean, ahalik eta urrunen jaurti ditu, bere bi alaben harridurarako. Uretara heldu aurretik erori da sorta, urak miazkatzen duen lerrora iritsi ere gabe. Izarok jaso ditu, zakur batek makila nola, jolasean. Giltzak bueltan ekarri dizkionean, ama da zaunkari aurpegia daukana.

“Zergatik zarete hain esaneko komeni ez denean?”.

Ez du ozenki adierazi, baina pentsatu egin du, eta Jone konturatu egin da.

Amak giltzak galdu nahi dituela jakingo ez balute legez.

Zumezko kapazoaren hondo-hondoan sartu du giltza-sorta. Metalezko objektuak irensteko ahalmena ote du poltsa handi hark? Apartamentura iritsi direnean, honela esan die alabei:

– Ikusten? Ez daude. Galdu egin ditut.

Jonek hasperen egin du eta Izarok kapazoa irauli. Ez da lehenbiziko aldia. Eguzkitarako krema, fresbeea, palak, toalla. Eta giltzak. Han zeuden, beraz.

Izarok lurretik gauzak berriro poltsara sartu bitarte, amak giltzak hartu eta buzoikoarekin egin du apartamentuko atea zabaltzeko ahalegina, nabarmen txikiegia den arren giltza hori sarraila hartarako.

– Alferrik da. Ez dabil. Ezin da ireki.

– Saiatu bestearekin, ama. Hori postontzikoa da.

– Zer diozu? Zuk uste? Hau da atekoa, beraz?

Jonek, baietz. Nazkaz begiratu dio giltzari amak, zopatan topatu duen ile beltz bati begiratzen zaion eran. Luze egon da horrela. Sarrailan giltza sartu eta bertan utzi du beste tarte batez, azken jira emateko deliberoa hartu ezinik, autoa arrankatzeko adorerik ez

duen gidari hasiberri. Gero, giltza handik atera eta esku banarekin alabei helduta abiatu dira eskaileretan behera.

– Goazen hemendik.

Alabak kontrapisua dira: hegan ateratzea galarazten diote. Eskerrak horri. Gainpuztuta dagoen gaitasuna da hegan egitekoa.

Hondartza garbitzen ari direnei begiratuta, iruditzen zaio hondarra erratzarekin pasealekurantz bultzatzen ari ote diren, hiria desagerrarazi arte hura hareaz estaltzeko. Aukeran, nahiago zuen zuzenean zaramaren kamioia, baina oraindik ez da pasatu. Zaborrontzi batera bota ditu.

– Giltzarik ez, etxera sartzerik ere ez –esan du, bihurri.

Zerbait badago han aukeran, hori, lo egiteko lekuak dira. Retamar hotelean hartu dute gela bat. “Ez da doblea”, ohartarazi diete harreran. “Berdin zaigu”.

Hotelean ez dago giltzarik. Txartel magnetikoarekin zabaltzen dira ateak.

– Lurrean lo egin beharko dugu, ama?

– Ze ondo, ezta? Kanpamentuan bezala.

Izaro engainatu du. Jone, ez.

Amak ezin du gehiago leiho ondoan eta lokartu aurretik txanda eskatu dio Joneri:

– Aita ikusten baduzu autoz etortzen, esna nazazu.

Jonek telebista piztu du. Hari bizkarra emanda, leihotik begirada apartatu gabe igaro du gaua sofan eserita, offeko ahotsak entzuten, amak eta Izarok ohean lo egiten duten bitartean. “Do Not Disturb” dioen txartelarekin hegazkin bat egin du. Egunsentia urrun ez dela, aita ikusten du hoteleko atarira hurbiltzen, baina oinez dator, ez autoz. “Aita ikusten baduzu autoz etortzen, esna nazazu”. Duda egiten du, ama iratzarri behar ote lukeen edo ez, baina ez du iratzartzen.

Hoteleko gelako atea kolpatzen ari da aita. Telebistan sukaldeko tresnak iragartzen ari dira, ahapeka, merkatu beltzeko gaiak legez: kutxilloak eta azenarioa birrintzeko tresnak.

– Uste zenuten ez zintuztedala aurkituko?

Amak bi alabei eskutik heldu eta alde egiten dute handik. Txikia da ama eta txikiagoak dira Jone eta Izaro; makurtzea aski, gazta zatiari eta zepoari iskin eginda saguen zulotik ihes egiteko. Sute-eskaileran behera doaz.

– Nora goaz, ama?

– Burger King-era ez zenuen joan nahi, laztana?

Retamar hotelaren aurrean motx-motx dago belarra, halaxe moztu nahiko lieke amak ilea. Masta asko daude banderadunak: Izarok uste du handia izatean herrialde horiek guztiak ezagutuko dituela, eta banderek ez dutela gehiago misteriorik izango beretzat. Tristea iruditzen zaio egun hori ailega daitekeela pentsatzea. Soropilean suge baten gisara kiribildutako mangera horia tanta jario dago, txarto itxita. “Faltako ez da ba ura, berriz ere”.

– Eta aita?

– Aita, zer?

– Bizikletan ibiltzen erakutsi zidan.

– Agian bai. Hori. Eta besterik zer gehiago?

Aspersoreen zomorro txistua. Kalean inor ez. Dendetako pertsianak itxita, merkantzia gordeta. Giltzarrapoak oso eskasak dira, ordea; agerian dago gordailatutako litxarreriekiko estimaziorik eza eta salgai iragankorren ezdeuskeria. Inork ez luke hor lapurretarik egin nahiko.

Txu-txu trena bera geldirik dago oraindik. Ezin dira ikusi hari esker eskuragarri diren herriko mirakulu eta atrakzio nagusiak: estatuko bigarren etxeorratz luzee-

na, belar artifizialeko errugbi zelaia, Sofia Lorenek behin campari bat hartu zuen taska.

– Nekatuta nago, ama. Nora goaz?

– Burger King-era.

– Burger King-a itxita dago tenore honetan.

Burger King-eko gauzarik onena kartoizko errege koroa da. Hori gustatzen zaie alabei hanburgesak baino gehiago.

– Nik egingo dizuet koroa bana. Baina orain azkarrago joan behar dugu.

Miradero pasealekuan pilatuta daude aulkiak bata bestearen gainean. Mahaiak ere bai: sasoi bateko bideojoko aitzindarietako martiztarrak dirudite, euren pixel lodi eta karratuak nork deuseztuko zain. Laser pistola bat balute.

– Ba al dakizu gutxienez nora goazen?

– Leku batera.

– Ze leku da hori?

Goliat balitz –edo David al zen?–, alaba bat itsasora jaurtiko luke birritan pentsatu gabe, baina bi eskuak dauzka okupatuta, eta nola, gainera.

Erdi Aroan sentitu da eliza erromaniko zaharraren paretik igarotzean. Edo western bateko protagonista. Gero, udal kiroldegia ikusteak deprimitu egin du, era-

bat. Ez dute konparaziorik onartzen: kristau bihurtzeko arrazoi bat dira kiroldegiak. Noiz eman zuten amore arkitektoek, iraungo zuten eraikinetan pentsatu beharrean, txakur etxolak egiten hasteko?

Pabilioi batean “Kontuz, zakur arriskutsuak” dioen kartela ikusi du, baina zakurrak lo daude edo beldur diote emakume bat bere bi alabekin presaka oinez kale hutsak zeharkatzen ikusteari. Munizio larria da hura, beste norabait begiratzea hobe. “Rufo, ikusi al duk zerbait?”. “Ez”. “Nik ere ez”.

Alabak arrastaka daramatza, apur bat bortitz, baina ongi erantzuten diote bere erritmoari. Kasketarik ez. Ohituta daude. Albo banatan alaba bana, amaren zainei tiratzen dieten bi zaintiratu ibiltari, oinez segi eta segi. Nahiago luke, aukeran, biak pisu bera izatea, baina nabarmena da Izaro dela arinena. Desoreka eragiten dio horrek. Martxa honetan, zapata berriak beharko dituzte laster, blues kantuetako ume beltzek bezala. Espaloia telebistan iragarritako azenario birringailu horietakoa balitz, orkatiletaraino gastatuta leudeke honezkero Izaro eta Jone, oinez hainbeste ibiltzearen poderioz.

Txorroskiloak datozkio burura: punta errazegi puskatzen zaielako etengabe zorroztu behar diren arkatz horiek, berehala ttipitzen direnak.

– Asko falta al da, ama?

Zer erantzun horri? Jakina asko falta dela. Beraiei falta zaie asko, batez ere. Amari, ez hainbeste. Pazientzia galtzeko, kasu. Markesina baten azpiko bankuan eseri dira, atseden hartzera.

– Ordu honetan ez da autobusik, ama. Gainera, usain txarra dago hemen.

– Arrazoi duzue.

Damutu dira alabak iruzkin hura egin izanaz. Hobeto zeuden autobus geltokian eserita.

Oinez jarraitu dute. Ez dago beste erremediorik. Jende guztiak dauka egiteko bat eta hura da haiena. Ama ez da atzera begiratzera ausartzen, alabak belaunetaraino higatu ote zaizkion beldur. Bada tarte bat ezer esaten ez dutela. Kexa izpirik ere ez. Arnasarik ere apenas entzuten dien. Esku banari lotutako buru parea ote darama arrastaka, ba? Alabakateak itsusiak baitira, amaren gorputzean. Halako arintasun bat sentitu du. Uste zuena baino indartsuagoa da beharbada.

Negua balitz, hiri irteerako pinudira iristerako, alaben eskularru bana baino ez litzaioke eskuetan geratuko. Negua balitz, jasangarriagoa litzateke airearen ustela.

– A ze kiratsa.

Gero eta usain txarragoa dago.

Jone mutuen itsasotik atera eta hizketan eta galdezka hasi da berriro, hasperen artean:

– Zabortegirantz al goaz, ama?

– Bai. Ea giltzak aurkitzen ditugun.

Belaontzia

Anneliri iruditzen zitzaion Telmok ez zuela belaontzia sekula amaituko. Egurrari eitea ematen zion bitartean, tabernatik aparte mantentzen zen, gutxienez. Bi garagardo baino ez zituen hartzen lanetik irten eta portu zaharraren ondoko estalperako joan-etorrian: bi joaneran, beste hainbat itzulerakoan. Egun argiz, garagardo argia; ilundu bazuen, beltza. Nork bere era dauka naturarekin bat izan eta harremanetan sartzeko. Batzuetan, beretzat ez ziren egurrez kargatutako kamioiak pasatzen ziren errepide ondotik, eta enbor haietarik bere ontziaren popako gilaordea, zuakerrak edo karel-errematea egiteko egokiak zeintzuk ote liratekeen hausnartzen zuen Telmok, beste zenbaitek sekula biziko ez diren etxeetan zer konponketa egin amesten duten modu berean.

Annelik jada ez zion galdetzen noizko. Telmok ere ez zion galdetzen non. Non egoten ote zen bera egurlanean zebilen bitartean.

Txirbilaren usaina gustatzen zitzaion Anneliri, eta Telmoren zapatetako zerrautsa tabernan ez beste edozein lekutan erantsitakoa izatearekin konforma-

tzen zen, haren izerdia lekuko. Ariketa nork bere kasa egin eta elkarren izerdia usaindu. Bikote bizitza.

Telmok aroztegitxoa moldatu zuen estalpean, zerrategikoek utzi zioten zintazerra zahar eta guzti. Bere hatzetara eginak zeuden heldulekuak zituzten erremintak zeuzkan han, horma-erloju atzeratu bat zegoen, pattar marka baten izena leku seinalatuan zuena, eta denok erretzaile ginen garaian paretan itsatsitako debeku ohar zurbilkara, Realak 1981eko liga irabazi zueneko posterraren ondoan. Gainerako horma guztiak arkatzez egindako planoz josita zeuden. Anneliri, estalpean izan zen azken aldian, gilaren gainean elkarzut jarritako zuakerrak ikustean, bale ttipi baten hezurdura begitandu zitzaion belaontziaren egitura. Ebatzi zuen, inondik ere, ontzi hura orduantxe zegoela osatuen eta ederren, ez zela sekula bukatuago egongo. Hezur haiek itsuste prozesu baten hasiera baino ezin zitezkeela izan. Ontzi baten eskeletoa ezin duela krosko amaituak eta masteria osatuaren gorputzak hobetu. Horrek zer pentsa eman zion giza gorputzaren etorkizunaz. Eta baita hil ostean bere burua errautsarazteko hartuta zeukan erabakiaz ere.

Zapal samarra geratu zitzaion, baina gozoa. Telmok ez zeukan zertan hain zakar mintzatu:

– Zer da hau?

– Gaur zerbait berria egiten saiatu naiz.

– Ba ez zaizu atera.

Ez zen errua baina bazen, Sandrorekin egon ondoren bere senarrarentzat sukaldaritza errezeta berriak egitera eramaten zuena. Itsaskiz betetako bi krepe eta hiru souffle geroago jabetu zen bere burua gutxietsi eta Telmo iraintzeko modu bat baino ez zela hura, eta harrika bota zuen ustez-errazak-ziren-errezeten liburua.

Telmok gitarra erosi zuenetik, gero eta ordu gehiago ematen zituen estalpean. Gaizki jo eta okerrago abesten zuen, baina bost axola: nazkatuta zegoen abil zen gauzak egiteaz. Izatez, komeni zen argi ibiltzea ongi egiten zenituen gauza haiekin, arriskua baitzenuen zeure bizitza osoan besterik ez egiteko. Norentzat hasi zen belaontzia eraikitzen, funtsean? Beretzat, ala Annelirentzat? Bientzat, agian? Zergatik benetako belaontzi bat, zer erakutsi nahi zion eta nori? Zergatik ez ontzien maketekin konformatu, beste asko bezala?

Sandrok guardiaren aitzakiarekin astebete telefonoari erantzun gabe daraman gau batean, rooibos bat eskaini dio Annelik Telmori.

– Nola doa belaontzia?

– Orain belaontzia interesatzen al zaizu?

Patrikako telefonoarekin ateratako argazkiak erakutsi dizkio Telmok, gogo txarrez. Harritu egin da Anneli. Kroskoa amaituta dago. Ontzi-bizkarra ere bai.

– Oso aurreratua daukazu. Badauka izenik?

– Ez oraindik.

“Denbora izan duk, bada, pentsatzeko”, otu zaio Anneliri, baina berdin otu dakioke Telmori, “Hik ere bai, galdetzeko”. Kutxa batean gordeta, altzairu herdoilezinezko hainbat hizki zeuzkan molde bezala erabiltzeko, ez alfabeto osoa, ordea. “I” hizkia ez zeukan, esate baterako, baina “N” letraren makiletako batekin aise konpon zezakeen hori. Frogak ere egiten zituen lehen tarteka letra-zopa harekin. Kontua zen, behiala pentsatutako izenak ez zuela jada balio. Usteldu egiten dira ideiak garaiz gauzatu ezean. Irauten ikasi behar, usteldutako ideien orbeletik sortzen den ore horrek ito gabe. Eta hor onik ezer izan daitekeela sinetsi. Bada onik zerbait, agian.

Aspaldi ilundu du eta Telmok ez du edalontziko infusiorik dastatu.

– Ez dauka teinarik.

– Baleuka ere. Guinnessik ez al da gelditzen?

Kalean doala Sandro eta Anneli ikusten dituenean kristalaz bestalde taberna irlandarreko argi laranjaren babesean hizketan, Telmori iruditzen zaio bikote ona osatzen dutela. Benetan pentsatzen du, herrarik gabe. Jada gazte ez izatea zer den, pentsamendu horren nobleziak harritu egiten du, eta bere buruan erne den eskuzabaltasun harekin itsasontziaren masta bataiatzea erabakitzen du: hura da, ziur dago orain horretaz, masta zut ipintzeko egun aproposa. Eskuzabaltasunak zorte ona ekartzen du, inoren aurrean hartaz harrotzeko bezain ergela ez bazara. Izan eskuzabala eta ez inori esan. Indartsuago bilakatzeko modu bat, beste edozein bezain ona.

Estalpetik kanpora atera eta masta ipini dio belaontziari.

Oihalak aspaldi erosi zituen. Lo kuluxkak ere egin ditu haien gainean etzanda tarteka, gitarrarekin betiko akorde zarpailak saiatzeaz aspertutakoan. Bikeztatzeke eta margotzeke dagoen azalera kalkulatu ondoren, Garberara igo da falta zaion materiala erostera. Nahi zuen kolorea ez dago.

– Gaur eskatuta, datorren astelehenerako edukiko genuke.

Zer da astebete belaontzia egiten urteak daramatzan gizonarentzat? Beste kolore bat erosi du, haatik. Zer axola dio. Bataiatze noblea zen garrantzitsuena. Hautatu duen kolore berriak taberna irlandarreko argi laranjen eta hizki berdeen antzik batere ez izatearekin konformatzen da.

– Non lan egiten du?

Zertan, esan nahi du. Lana inportantea da Telmorentzat.

– Medikua da. Zirujaua. Oso ezaguna bere arloan.

– Ezkonduta al dago?

– Banatze bidean.

Hasperen egin du Telmok.

– Harekin bizitzera joango zara?

Zerrautsa astindu dio Annelik izter ondotik eta magaletik, zalantzati.

– Ez.

Ez da “ez” osoa, “ez” erdia baizik, “ez dut uste” bat dena ukazio biribila baino gehiago, baina egiatia. Nahikoa, oraingoz.

Alabak Manchesterretik deitu die euria ari duela eta Gabonetan etorriko ez dela abisatzearren. Esan duen posturan, badirudi zerikusia daukala batak bestearekin. Ez dela etorriko Gabonetan, Manchesterren

euria ari duelako. Aitak esan nahi lioke ongi doala dena, nobedaderik ez, baina deus esan gabe alabak ondorio berbera ateratzea espero du. Horrela izan da beti. Manchesterreko albisteei dagokienez, alferrik da luzamendutan ibiltzea: euria ari du eta zoriontsua da alaba. Bekatua litzateke ez izatea, edo krimena, hogeita bost urte bete gabe izanik. Baina gauza arraroagoak ikusi dira.

– Norbaitekin al dabil?

– Stuart. Zortzi hilabete izango dira honezkero. Esan nizula uste nuen.

– Ez zenidan esan.

Gasolindegiko Antoniori eskatu dizkio furgoneta eta gurdia, eta haren laguntzarekin nahikoa eta sobera litzatekeen arren, tristea iruditu zaio belaontzi bat biren artean bakarrik itsasoratzea. Tristea, eta ez batere eskuzabala. Adur txarrekoa behar du belaontzi batentzat ikuslerik gabeko uretaratzeak. Gainera, lotsagarri geratuko litzateke bera eta deseroso sentituko Antonio, haiek biak balira brankako erraboila uretan nola sartzen den ikusten bakarrak. Taberna irlandarraren parean, Sandro bistatu du, kanpoan erretzen.

Ezustean bostekoa eskaini diola ikusita, Sandrok urduri ipini du zigarroa ezpainetan, Telmoren eskubikoa bere erretzaile hatz horituekin estutzeko.

– Telmo naiz.

– Sandro.

Gertutik, zaharragoa iruditu zaio Sandro. Abian da dortoka lepo leizea, urteen opari. “Eta hatz horitu horiekin ebakuntzak egiten uzten ote ziotek?”. Annelik, tabernatik irten orduko, harrituta begiratu die tropak lurralde neutraletik erretiratzeko ituna sinatu berri diruditen gizonei. Telmoren hortzak horituta daude, baina ez nikotinarengatik. Sandrorenak zuriak eta karratuak dira, baina ez ditu bereak. *Protesi* hitzean pentsatzeak eman dio Telmori hizketan jarraitzeko kemena.

– Bukatuta dago. Etorri nahi al duzue ikustera?

Antonioren laguntzaz garabiari belaontzia uhalekin lotu eta uretan jarri dute. Eusten dio hondoratu gabe.

– Ez dugu xanpainik ekarri –dio Antoniok.

– Ezta transatlantiko bat balitz ere –Telmoren arrapostua.

Berdin esan zezakeen: “Edan beharrekoak edanda etorri nauk ni etxetik”.

– Itzuli bat eman nahi?

Sandrok duda egin du, baina Annelik lepoaz baiezkoa ebatzi duenean ontzira igo da, zer erremedio, jauzi batean.

– Hobe ontzian erretzen ez baduzu.

Kubierta, karel, branka eta soto, zura besterik ez du ababor nahiz istriborrean, ez da ausartzen zigarroa inon itzaltzen. Bestelako egoera batean inolaz ere egingo ez lukeena egin du: mutxikina uretara bota.

Kasiopea izena jarri dio ontziari, baina Anneli ez da zergatia galdetzera ausartu, istorio on bat egon daitekeen arren agian hor atzean. Istorio kontalari trebea izan ohi zen Telmo garai batean, bereziki inspiratua larrua jo ondoren. Konbinazio horrek maitemindu zuen agian. Hurrenkerak, bereziki. Aspaldiko kontuak dira horiek, edonola ere. Telmok ontzia bukatu duelarik, arratsalde libreak eta opor egunak ere amaitu ote zaizkio Anneliri? Zer txorakeria: orain gau eta egun nabigatzen ibiliko ez da, bada, haren senarra? Bakarrik nabigatzen? Ez derrigorrez. Arratsalde hartan, esate baterako, bazuen konpainia.

Hego-ekialdetik jotzen du haizeak eta aurki utzi dute atzean Tximistarri. Ubeltzen ari da zerua. Marinel kapelua jantzi du Telmok, ezaguna egin arren ez San-

drok eta ez Annelik identifikatzen ez duten melodia bat txistukatu ahala. Sandrok ez darama itsasoan ibiltzeko jantzi egokirik. Annelik, bai. Hamar urte baleramatza bezala egun haren zain. Badaramatza agian. Harrigarria badirudi ere, kalerako baino egokiagoak dira ontzirako haren arropak, gorputzera estuki itsatsiak. Uste baino itsastarragoa dela zure nortasuna, itsasontzi batera igo arte ez zara horretaz jabetzen.

– Hegazkinekin bezala gertatzen da itsasontziekin: berriak direnean dago istripuak izateko arrisku gehien.

– Ez egin kasurik, Sandro. Adarra jotzen ari zaizu.

Sandrok zeri oratu bilatu du, eta, besterik ezean, fermuki eutsi dio sotora daraman kubiertako eskotillaren heldulekuari. Pertsiana baten eran zabaldu eta ixten da, Sandro lehenaz beste aztoratuz.

– Sentitzen dut: azken erremateak egin gabe dauzka.

Olatuak baretu direnean, Telmok izotzetan ekarri dituen ostrak eta lanpernak afaldu dituzte sauvignon blanc batekin lagunduta. Telmorena da topa egiteko gonbita ere, Anneliri eta Sandrori ez litzaieke egoera hartan halakorik burutik pasatuko.

– Begietara begiratuz, alemaniarrek bezala: hamar urteko zigorra dator bestela.

Kristalaren zarata Telmok berak egin du, “txin-txin”, edalontziak plastikozkoak direnez.

Karelari gonbitoka lotu zaio handik gutxira Sandro, Annelik sorbaldatik amoroski heltzen diola. Ez al da polita irudia? Pietate moduko bat, magalaren ifrentzua den kontsolamenduzko klixea. Telmok, bien bitartean, tinko darama ontziaren lema, alboetara begiratu gabe, tarteka ardoa botila muturretik edanez.

– Ostrak loteria bat dira.

– Liseritu ere ez ditu egin oraindik, Anneli. Ontzia da. Ohitura falta.

Anneli sotoan etzan da Sandrorekin. Antzinako kerosenozko *vintage* esku-argien itxura duen LED lanparatxoaz gain, etxean erabiltzen ez dituzten manta zaharrak eta kuxin estanpatu japoniarrak ekarri ditu Telmok, Annelik ahaztuta zeuzkanak. Han dago gitarra ere.

Aingura bota du kapitainak eta zain geratu da, Anneli sototik noiz igoko.

– Hobeto al dago?

– Kuxin japoniarrak ekarri dituzu. Txoko goxoa geratu zaizu.

Isilik doaz senar-emazteak elkarren ondoan. Annelik besotik heldu dio Telmori.

Bokalera hurbiltzen ari direla, Sandro agertu da pertsianadun eskotilan gora. Balantzaka dator. Annelik besotik heldu dio honi ere, Telmorena askatu gabe; ez hainbeste elkartasunez, bien artean epelago egoteko baizik.

– Zenbat izar ditu Kasiopeak?

– Bost, esku bateko hatzak adina. Baina gaur ez dira ikusten.

Matxitxako, ordea, bai, ikusten da urrunean.

Sandrok ez du aurpegi onik eta Telmori iruditu zaio zerbait egin behar lukeela hori konpontzeko. Bere *etxean* daude, finean. Baina kafea ekartzea ahaztu zaio. Zer beste modu dago zure emaztearekin larrua jotzen duen gizonarekin senidetzeko?

– Esan gutxienez ez zarela Athleticekoa.

– Gaztetan Real Unionen jokatu nuen, baina ez naiz bereziki futbolzalea.

– Real Union. Ulertzen dut.

Hirurek ulertu dute.

– Igoko mesedez irratia, Anneli?

Annelik LED lanparatxoa piztu behar izan du sotoan irratia bilatzeko. Estalpeko arotz-lanetarako erabil-

tzen zuen berbera da, zerrautsa dauka zoko-moko guztietan sartuta. Lehorreko irratia, ez itsasokoa. Sakon usaindu du zerrautsa gora igo aurretik. Realaren futbol partidua harrapatzen saiatu dira, hirurak, hurrenez hurren, bata bestearen segidan dialaren gurpiltxoari tentuz eraginda, Anneli lehenbizi, Telmo gero, Sandro azkenik. Zorterik gabe.

“Hainbeste zirujau eta hainbeste kopla... eta irratiko diala harrapatzeko gai ere ez duk?”, Telmok, bere artean.

Radio Clásica da ongi entzuten den bakarra. Marinel kapelua erantzi du kapitainak eta ozenago jarri du aparailua.

– Ez dago Bach bezalakorik.

– San Mateoren pasioa.

– Hori. Pasioa.

Galdutako gauzei buruz hitz egin gabe galdutako gauzei buruz pentsatzeak eragiten duen nekeak azpiraturik sartu dira portura. Galdutako gauzak berreskuratu ezinaren ziurtasunak eragindako aje mikatzarekin. Insomnioa bazkatzeko balio izango zuen txango hark ere, adin batetik aurrera gertatzen diren beste kontu deseroso askok bezala.

Sandrok ez daki zeri buruz ari den zehazki Anneli, esan dionean:

– Ez da hain gaizki egon, ezta?

Telmoren agindua etorri da gero.

– Heldu amarrari ontzia inguratzen dudan bitartean.

Txikota hartu du Sandrok, esaneko. Telmok gaizki kalkulatu du, ordea. Eta kareleko bikea ongi lehortu gabe dagoelako agian, edo auskalo zergatik, ezin aparta ditzake hatzak garaiz, ontziak harrizko hormaren kontra zapart egiten duenean. Eskua handik erretiratu duenean, kroskoan itsatsita geratu da Telmoren ezkerreko hatz erakuslearen erdia, erabat zanpatuta.

Oraindik Sandroren hatsa duen kuxin estanpatuari azala kendu eta harekin ahalik eta estuen lotu dute Telmoren eskua. “Torniketea egiten bazakik, behintzat”.

Sandrok nahi baino denbora gehiago behar izan du non aparkatu duen gogoratzeko. Herio batean doaz kaian barrena autorantz korrika. Ez nahi bezain azkar: Telmo herrenka doa, zorabioarengatik. Ez litzateke esku batetik odolusten den lehena izango.

Autoaren argiak itzalita gidatzen ari direla konturatzerako, ospitale atarian daude jada.

Ostrak gordetzeko erabilitako izotzetan dakar Annelik hatza larrialdietaraino. Argizariaren mintza da Telmoren azala. Bere hortzadura horituak eta Sandroren erretzaile hatzek tropikoetako ortzadarra dirudite, aurpegiaren zurbilarekin alderatuta.

– Sandro...

– Bai.

– Hatza...

– Hago lasai, Annelik zekarrek.

– Hik jostea nahi diat.

– Nola?

– Hori duk hire lana, ala?

– Bai, baina...

– Heuk josi. Mesedez eskatzen diat. Egik hire lana.

– Nahi duan bezala, baina...

– Baina zer.

– Ez zioat hire emaztea ikusteari utziko.

– Hori bazakiat.

Isilik eta adi geratu da Sandro Anneliri begira. Annelik biei begiratu die eta Telmoren esku odolduari gero. Ez du ezer esateko premiarik sentitzen. Ez da momentua.

– Egingo duk, bai ala ez?

– Ez kezkatu. Ondo aterako duk dena.

Ezagutzen dute Sandro Lafont doktorea han, ari zaizkio erizainak operazioen teatrora sartu aurretik latexezko eskularruak eskaini eta besoetan barrena bata sartzen, dena egongo da gertu segundo gutxitan, bizkarreko lokarriak lotzea baino ez du falta.

Kirofanora baino lehen sartu dioten fentanilo zizta-dak anpolaitu dio Telmori masaila apur bat, eta begietako sute iraungia berpiztu.

– Mediku bitxia haiz hi, Sandro.

– Zergatik diok hori?

– Orain arte ezagutu ditudan guztiak txarrenean jartzen direlako beti. Dena beltz ipini lehenbizi, eta ostarte oro duk gero egunsenti. Beti jendea zuekin zorretan sentitzeko egiten duzue.

– Gure lanak ez dik zorrekin zerikusirik, Telmo. Ahal duguna egiten diagu jendeak ez sufritzeko.

– Ez duzue beti lortzen.

Gizon-emakumeen ordez arnasa hartzen duten makinen hotsak gain hartu die gero. Telmo, Anneli eta Sandro desagertu egin dira, aurrerantz zein atzerantz zabal daitezkeen eta Sandrok sorbaldarekin bultzatuta ireki dituen ateen bestaldean.

– Zein odol talde du?

– Zero positibo.

Zero positibo eta zero negatibo. Gauza zentzugabeak badira medikuntzan ere.

– Hemendik aurrera ezin duzu pasa.

Annelik ostra oskolen artean gordetako hatz zatia eman die erizainei. Anestesia ipini diotenean txantxetarako gogoz segitu du Telmok medikuaren aginduen aurrean.

– Zenbatu beherantz, hamarretik hasita.

– Bederatzitik, inporta ez bazaik.

Itxarongelako kafe makinaren aurrean geratu da Anneli, bere bizitzako bi gizonen artean sortu den intimitate berria ulertu nahian. Akordeoi baten teklatuaren pare sentitzen du kafe hutsa azukrearekin edo gabe eskaintzen dion gailuko botoi bakoitza. Zero negatibo eta zero positibo, saiatzen da burutazio zentzugabea baztertzen, baina, oso motel pentsatzen duen arren, Telmo gogoratu du, Kasiopeari buruz hitz egiten eta botila lepotik ardo zuria edaten, eta dena nahita egin duela iruditu zaio.

“Nahita egin du”.

Korridoreetan tirriki-tarraka, Donejakue bidean erromes doaz gaixo txabusinadunak, zundekin euren makuluetara eta euren kondenara loturik. Leihoaz

bestalde, mehar eta eskas dira ospitalearen rigore sobietarra ezkutatzera heltzen ez diren arbolak.

Izar ozenak

No sólo de amor,
del aire también se vive.
RAFA BERRIO

– Hasieratik ohartu ginen Bidarte ez zela hona datozen besteak bezalakoa.

– Marmokarik ba ote zegoen galdetzen zuen etengabe, eta guk ezetz esanagatik ere, hura konformatzen ez...

– Ez zen sekula uretara sartzen...

– Harik eta behin baietz esan genion arte, egun hartan bazirela ale batzuk eta ibiltzeko tentuz.

– Ez du geroztik irribarrea erantzi. Leku honek hori dauka. Ardo zuria eta jende zoriontsua ekoizten ditugu: ekoizpena mugatua izatea...

Bidarteren bila etorri naiz irla honetara. Urmaelaren erdian botatako hurritz hostoa ematen du hegazkinetik, bi karrileko errepidea izaki irla erdi-erditik ze-

harkatzen duen zain bakarra, kostako herrietaraino iristen diren bide estuagoetan adarkatzen dena, tarteka. Hostoaren puntako hortzadura osatzen duten labarretara iristeko erarik onena itsasontzia dela iradokitzen dute beste gune ez hain populatuek. Edo hori, edo bidezidorra. Labar horietako batetik hurbil bizi da Bidarte. Idazlea da, edo idazle izandakoa. Argitaratuko didaten gauza segurua ez den arren, hari elkarrizketa egitea da nire asmo bakarra hemen. Oraingoz, ordea, irlako jendearen kontuak baino ez ditut bildu. Bidarte ez da inon ageri.

– Alkandora erantzi eta uretara jauzi egin zuen arroketatik, birritan pentsatu gabe.

– Lehen aldia zuen, baina umetatik besterik egin izan ez balu bezalaxe murgildu zen. Bidartek bazekien non zapaldu eta nondik sartu.

– Hegan egiteko modu motelago bat da igeri egitea, bazenekien? Jende apalak hegan egiteko daukan modua.

– Bidartek, besteek ez bezala, heltzea nahi izaten zuen. Marmokek, esan nahi dut.

Pipari tiratu dio marinel zaharrak, eta euren printzekin istorioa biribiltzen lagundu dioten kideei begiratu die konplizitate bila, denak kontakizunaren partai-

de bihurturik, nire harriduraren bila edo errendizio eske.

– Ez zuen beti lortzen. Badakizu gauza horiek nola suertatzen diren: arriskuari dei eginez, arriskuak ihes...

– Mendizaleekin askotan gertatzen da: buruarinenak eta arduragabeenak, haiexek elur jausietatik salbatzen direnak. Edo itsasoan: ekaitzaren bihotzera jakinaren gainean doazen suizidekin barkaberatasun arraro samarra erakutsi ohi du Poseidonek.

– Menditarra zaitugu zu, ala kostaldekoa, andereño?

Zurrumurru asko zeuden Bidarteri buruz, aukeran eta denen gusturako, nahi hainbat. Entzunda neukan lehendik pozoiaren kontua. Hiriburuan ere hitz egiten zen horretaz, marmoka batek heldu zion egunean ia hogei ordu eman ote zituen aulkitik altxa gabe *Urpeko lorategia* idazten, sukar batean, eta bere bizitzako libururik ezagunena sortzera eraman zuen inspirazio oldarraldi hura marmokaren ausikiari atxiki ote zion berak. Geroztik, ziztada bila joango zen egunero, hutsik egin gabe, beste batzuk basamortura peiote bila edo aldirietako ijitoen txaboletara zaldi dosi eske joaten diren gisa berean. Izaki mitologikoa ere bada mar-

moka, musen esparrutik sobera urruntzen ez dena. Baina pozoiaren kontua ez da oso sinesgarria, mito hutsa ziurrenik, edo, behintzat, ez zion aldi hartan baizik funtzionatu, hamar urte baino gehiago baitaramatza Bidartek lerro bat bera ere argitaratu gabe.

– Elkarrizketa bat egin nahi diozu? Bainujantzia ekarriko zenuen orduan, ezta?

– Igerian iritsi behar da Bidarterengana, ala?

Adarra jotzen ari zaizkidala uste dut. Eta ari zaizkit. Baina ez hainbeste, ez erabat, ez hori bakarrik.

Kalako arrokak seinalatu dizkidate. Urak estalitako arrokak, marea goian dela ikusten ez direnak. Igerian baino ezin bertara ailegatu. Behin hara iritsirik, jendea bertan eseri edo zutitzen da, atseden hartzeko, jolas egiteko, kontenplaziorako edo txipli-txapla tertuliarako. Eserleku naturalak dira putzuaren erdian, eta badute xarma naturaz gaindiko bat ere: bertan zutik ipintzen dena uraren gainean oinez dabilen irudikeria sortzekoa urrunetik so egiten duenari. Norbait zutik, itsasoaren erdian iltzatuta.

– Asteazkenero-asteazkenero kasinoko lagunekin elkartzen da arroka zapal horretan. Beste askotan bakarrik egoten da, bizar zuriari hazka, eguzkipean.

Harritu egin nau horrek apur bat, argazki guztietan bizarrik gabe eta ilea beltz agertzen baita Bidarte, baina jakina, aspaldiko kontua da hori. Bere bizilekua non dagoen galdetutakoan ez dit inork garbi erantzun nahi izan. Hatzarekin soilik seinalatzen didate bidea, puntu kardinal lausoa, inoiz helbide zehatzik eman gabe. Herri txikietako portaeratzat jo dut argibideak emateko modu izu-mutu hau. Ezin hatz haien arrastoari segika etxerik topatu. Mendia soilen den lekuan amildegi ertza seinalatu dit norbaitek, krimenaren lekurantz egiten duenak legez, eta bertan, zaldi-xenda harritsuan tarte batez oinez ibili ondoren, bidea makotu egiten dela jabetu naiz. Hari segika, hasierako puntu berberean amaitu dut, baso ttipi batean. Eta han ez dago jada nori galdetu. Itsaso parean aire zabala ia latitude guztietara hedatuagatik, irteerarik gabeko kalestu batean sentitu naiz. Existitzen da klaustrofobia espazio irekietan ere. Eta ez naiz zehazki agorafobiaz ari, naturako elementuak irteerarik ezagutzen ez diogun labirinto bat bezala antolatuta daudela ohartzen garen une beldurgarriaz baizik.

Haur bat inguratu zait hondartzan: jartzeko karakola belarri parean.

– Zer entzuten duzu?

– Itsasoa.

– Baina ez da kanpoko berbera. Karakola kanpokoa bat da, eta barruan entzuten dena beste bat. Bi itsaso ezberdin dira.

Gero, karakola hartu eta lasterka alde egin du.

Zerbait afaldu ote dezakedan galdetu dut herriko taberna bakarrean.

– Ez eskuarki.

Ez eskuarki. Hori esan ondotik, nire durduzadura artean gainditzeke, jabetu naiz mahaia otordua egiteko janzten ari direla.

– Bakarra izango zara?

Adarra jotzen ari ote dira berriz? Pribilegiotzat hartu beharko, zer erremedio. Adarra jotzea pribilegiotzat hartu, eta inork mokadu bat eskaintzea ere bai. Ez didate zer aukeraturik eman: itsas trikuak eta olagarroa hasteko, San Pedro arraina gero, eta birigarroak sagar saltsan amaitzeko. Ez dakit nola moldatu naizen denak jaten. Postrerik nahiko ez dudala suposatu egin dute, ongi suposatu ere, eta kafea batere eskatu gabe atera didate mahai gainera, hutsa eta esnez lainotzeko aukerarik eskaini gabe, marinel saldoa begira dudala.

– Caleta kafea da.

Rona dauka eta azukrea. Ez dago txarto. Galdetzeko adorea eman dit.

– Bidarte etortzen al da hona?

Elkarri begiratu diote denek, erlojuaren orratzen norantzaren kontra, begiekin mandatu zirkular bat eginez.

– Ez da lekurik aldrebesena hura topatzeko. Baina, aste honetan... Aste honetan ez dut uste etorriko denik.

Kasinoan gosaldu dut hurrengo goizean. Zerbitzariak “musa eta musak!” bota dit, Bidarteri buruz galdegin diodanean. “Zer egun daukan, aizu: izan litezke musak lehenbizi eta musa gero”, errepikatu du, azalpen gehiago eman beharrik ez balego bezala, begia kliskatuz. Misterio handiz erantsi du: “Topatzen duzunean galde iezaiozu Picassoren lore sortarena”.

Egunkarira deitu dut kasinoko telefonotik.

– Beste egun bat beharko dut. Oso harrapatuta dabil itxuraz, oraindik ez dut hitzordurik lotu.

– Zuk ikusi. Aparteko gauak zure patrikatik ordaindu beharko dituzu.

– Lasai, aberatsa naiz: artikuluko ordaintzen didazuenarekin sobera daukat gastuetarako.

Grapagailua zanpatuko banu legez zintzilikatu dut telefonoa. Betiko miseria. Caleta kafe baten premia. Eta edan ezina.

Garraio publikoz heldu nintzen bezperan. Autobus zuzenik ez zegoenez, La Esparcidatik pasatzen zena hartu behar. Hirigunetik hamar minutura zegoen Cala Morelia, baina itzulinguruari esker hiru ordu laurdenera luzatzen zen bidea. “*Paradiña* bat egingo dugu lehenbizi La Esparcidan, eta gero Cala Moreliara” ohartarazi zidan autobus gidari baikorrak. *Paradiña*, hobe urdaila ongi asentatuta egitea, La Esparcidako hondartza nudistarainoko jaitsiera estua baitzen benetan; ezinezkoa ematen zuen autobus batek hain bihurgune traketsak hartzeko modurik izatea. Gidariak, ordea, ongi bai ongi ikasita zeukan bidea. Sei bider egiten zuen joan-etorria egunero: hiru aldiz goizean, beste hainbatetan arratsaldean. Horrenbeste nudista bazenik ere. Lan astun samarra zirudien, bereziki udako saparen erdian, baina tenple onekoa zen gizasemea, kexa fazialik gabe lan egiten zuen gizon saiatua, “baldin eta autobusa amildegian behera eroriko balitz inoiz, jakin dezala nik, behintzat, bere alde deklaratuko dudala epaiketan”, pentsatu nuen bihurguneetan nola asmatzen zuen ikusita.

– Ondo samarrean lo egin duzu?

Marinel pipaduna arrokak zaintzen ari da: mugituko balitz bakarren bat, berak luke harkaitzen dardara aktan jasotzeko ardura. Badiatxorantz seinalatu du. Soslai bat dago han argi-kontra. Gizon bat, arroka batean eserita.

– Bidarte da?

– Galdetu egiten duzu? Oraintxe daukazu okasioa.

Bikinia janztea ahaztu zait goizean, baina ezin utziko diot ihes egiten txorakeria horregatik. Arroketako notarioak bere kabutan apuntatu duen zalantza une bat behar izan dut, barruko arropa, beltza dakardala gogoratzeko. Erantzi eta uretara sartu naiz, ez ziurrenik Bidarte bezain trebe ("umetatik besterik egin izan ez balu bezalaxe murgildu zen. Bidartek bazekien non zapaldu eta nondik sartu"), pipadunak masailen eta bekainen artean desagerrarazi dituen begilerro irribarretsuen onespenarekin. "Gutarra dun; gutarra haiz", ulertu uste izan dut haren behako ezkutuan.

Ez naiz bereziki iaioa igerian, eta bizkarrez azkarrago iritsiko nintzatekeela badakidan arren, nahiago izan dut bular estiloa, ez dut-eta Bidarte bistatik galdu nahi, etenik gabeko lotura bisuala idazleari dagoen le-

kuan eusteko garantia irmoa balitz bezala. Soslai horri begiradarekin lotzeak badu bere prezioa, jakina: ezin dut azkarrago igeri egiteko burua murgildu, nire bular estiloa zakur-txaplaren pare jartzeraino. Begira izan ditzakedan lehorreko marinelen zelatak lotsatuta –iruditzen zait dagoeneko ezin duela pipaduna bakarrik izan, hauek beti dabiltza taldean–, igeriketa txukunago bat galdatu diot nire buruari. Burua sartzen hasi naiz, tximak kiribildu eta urrituko zaizkidala jakin arren. Gazia da oso hemen itsasoa, eta betaurrekorik gabe ezin zabal ditzaket begiak urpean. Behingo batean, ausartu egin naiz, eta burua atera dudan unean jabetu naiz hutsik dagoela arroka. Berriro ere burua urpean murgildu dut, luzeago oraingoan eta begirik zabaldu gabe, nire buruari sinetsarazi nahian okertu egin naizela aurreko soakoan, lepoa bigarrengoz ateratakoan arroka berriro ere soslaidun topatzeko itxaropenez. Baina ez da halakorik gertatu. Bidarte ez dago. Arroka huts baterantz noa igeri. Ez dut, hala ere, buelta erdirik hartu. Bidarte zegoen arrokaraino iritsi naiz, duintasuna itxuratuz, han mezuren bat topatzeko itxaropenarekin. Alferrik, jakina.

Erresuminduta ertzera itzuli naizenerako, ez dago inor begira. Badira hori bezain sentiberak marinel za-

harrak. Lotsa pribatuki irents dezadan utzi didate. Irudipena, nire arropak, azkar kendu eta arroka gainean motroilo utzi ditudanak, txukunago ote dauden tolestuta, gertatuko zenaren jakinaren gainean zegoen pipadunaren kortesiaz. Orain bai, ez daukat zalantzarik: adarra jotzen ari zaizkit. Eta Bidarte tartean dago, duda gutxi horretaz. Edota, agian, Bidarte jada ez da hemen bizi ere egin, eta maskarada hutsa da hau dena, herri osoak parte hartzen duen pastorala.

Kasinoan zeuden denak, pentsatzekoa zenez, musean. Usaindu egin dute nire purrustada, badute aurre hartzeko dohaina.

– Bidartek gaur gauean hartuko zaitu bere etxean. Berak prestatuko du afaria, ongi iruditzen bazaizu. Pargoa gustatzen zaizun galdetu du. Ez da bixigua, baina badu bere puntua, maneatzen jakinez gero.

Urduri eman dut arratsaldea, kasinoko mahai batera eserita. Egiteko neuzkan galderak ez zaizkit orain egokiak iruditzen. Isolamenduaz, Robinson Crusoe sindromeaz eta antzeko tokian topikoez galdetu asmo nion, zergatik apartatu zen mundu literario eta sozialetik, zergatik, hain zuzen, horren onarpen handia zuen garaian, halako gaitasun enpatikoa izanik jendearengana gerturatu eta haren idazkera gustuko ez

zutenak ere xaramelatzeko. Kritika, publikoa, sariak... denak izan zituen alde. Goiz utzi zion enkarguak onartzeari, literaturatik osoki bizi zen egile bizidun gutxietakoa zen gure artean. Pribilegiatu bat. Mundu osoko azoketatik gonbidatzen zuten bere poemak eta narrazioak irakurtzera. Eta, gauetik goizera, desagertu egin zen. Uko egin zion elkarrizketak emateari, ez zuela gehiago deus argitaratuko ematen zuen, agortu egin zitzaiola bere obsesioen iturritik zetorren fikzio itxurako ale ederren emaria, egin –edo *kometitu*– zitzakeen errepikapenekin izutu egin zela, edo bere lanaz aspertu; literaturaren pozoian zuen fedea galdu zuen agian, edo, batek daki, egia zen beharbada marmokena eta ez zioten jada hozka egiten, haien pozoia zen falta zitzaiona. Ezin esan abisatu ez zuenik, *Ni ere izan nintzen behin zarataren parte* izeneko ipuina profetikoa zatekeen nolabait, Thoreauren *Walden* zoragarriari egindako omenaldia, txabolaren gaia hartuta idatzitako narrazio labur eta ezezagun samarra. Entzuna nuen Tom Waits bera, Kaliforniako landa eremuko herri ttipi eta ezkutu batean bizi zela; asfaltoko parrandak, kabareteko keak eta klubetako liskarrak aski dastatu ondoren hori ote, bada, gizakiaren patu saihetsezina? Erretiro bat aukeratu eta baztertzea, natura

besarkatu eta elefanteen hilerrira borondatez isolatzea? Sasoi bat zio bakoitzarentzat eta ekiteko zio bat sasoi bakoitzean, hori zen dena, single eta aratz, beti errepikatzen zen paradigma bat? Horri buruz galdetu nahi nion, baina askoz gehiago ere bai, azken egunotan herritarren esamesak entzunda jabetu bainaiz pertsonaia literario gisako bilakatua dela nolabait Bidarte, herritarrek hari buruz hitz egiteko postura ere halakoa dela. Agian gustuko fikzio bat topatu zuen herri honetan, eta gezurmamizko pertsonaien ordez hezur eta mami ziren haiekin idazten zuen orain bizitzaren lerro artean, liburu maxkaletatik urrun taupatzen zuen fikzio bizidun bat zen bere bizitza, fabula antzeztu bat bere egunerokotasuna. Zer egiten zuen, zerbait egiten bazuen? Zein zen bere eguneroko martxa? Benetan ez zuen deus idazten, edo, argitaratzeari uko egin arren, jarraitzen zuen pribatuki kuartillak zirriborratzen, eskuz beti, hil ondorengo altxor diferitu bat sortzen? Konfiantzazko Max Brodik ba ote zuen, edo Max Broden rola beteko lukeen inor begiz joa –lagun pipaduna, akaso?–. Edo, agian, sinpleki oinarrizko gauzetara itzultzen ari zela sentitu zuen, beharrizan funtsezkoenetara: karramarroak bezala arroketan etzan, haien oskol-trakzioaren lilurarekin lehiatu

zezakeen amaren Proustik ez zegoela onartu, eta, horrekin kontsekuente izaki, karramarro bilakatzea erabaki al zuen berak ere?

– Nola asmatuko dut bidea?

– Brunok eramango zaitu bizikletan.

Kasinoko semea zen Bruno, “musa eta musak! Zer egun daukan, aizu: izan litezke musak lehenbizi eta musa gero”. Bizikleta ez zen hitzik doiena ibilgailu hura izendatzeko, egiaz, atzealdean aulki eroso bat itsatsita zuen gurditxoa baitzen, Indiako *rickshaw* horietakoa, Brunok karga-deskargarako erabiltzen zuena eta, hala esaten zidaten pipadunaren begiek, okasio bakanetan baino ez bidaiarien garraiorako. Berriro ere pribilegiatu senti nintekeen, honenbestez, azenario eta alberjinia usaineko eserleku hartan jesarrita.

Atzo hatzekin seinalatu zizkidaten bideetan barrena abiatu gara ilundu orduko, eta une jakin batean, malda pikotzen hasi aurretik, elorriak eta sasiek erdi estalitako mendi-bide bat hartu du Brunok, niri atzo oharkabean pasatu zitzaidana.

– Hau da lekua.

Kare zuriz estalitako etxe guztiak bezalakoa begitandu zait Bidarterena, baina xumeetakoa: ez igerileku, ez aberaskeriarik, ez burdina herdoilgaitzezko pe-

tril deigarririk. Hiriburuko arkitekto kreatiboen esku jartzen zarenean egiten dizuten autore-txikizio arrastorik ez. Zaharra da eraikina.

– Hor da. Bidarte zure zain dago.

Nire zain? Benetan? Eta nola zekien berak, bada? Denek hitz egiten dute hemen etengabe Bidarteren borondateari eta nahiei buruz, mentalki harekin hari zuzena balute bezala, haien mirabe eta zerbitzari. Nolatan, ordea? Uhinen bidez? Herrira iritsi naizenetik ez dut patrikako telefono bakar bat ere ikusi, eta izatez, nirea badabilen arren, estaldura oso eskaseko tokia dela ohartarazi zidaten. Bidartek leku honi buruz bereziki gustuko zuen zerbait zela hori. Une batez gorrotagarriak egin zaizkit: Bidarte, Cala Morelia, herritarrak.

– Asmatuko duzu itzultzen?

Jakina. Ez nuen horretan pentsatu, baina bai, asmatuko dut.

– Ez ahaztu Picassoren lore sortarena.

Bai seta Picassorekin. Galdetzeko gogoa kentzen zidan. Zergatik egin nahi dute denek nire lana, alajaina?

Brunok atarian bakarrik uztean, musikak harritu nau lehenbizi. Antzinako jazz aire bat, orratzarekin jarria edo grabazio analogiko baten arrasto zikin-garra-

tzak mantentzen dituena. Art Blakey and the Jazz Messengers? Robinson espartar hutsa ez da, behintzat. Badu argindarra eta badu, itxura batera, musika erreproduktorea ere, luxu ttipi horietaz ez da desjabetu. Ez dago mundutik at, ez da guztizko karramarroa, badu loturarik hilkorrekin. Erabat dezepzionatuko ninduke, baina, tupustean MacBook Air bat edo wi fi konexioa dituela jakingo banu.

Etxea inguratu dut atea jo aurretik. Arrain errearen usain sarkorra heldu zait, keak itsasoarekin elkartzean seduktore izateko daukan modu hordigarria.

Sarrera nagusiaren ondoan, arrantzarako aparejuak eta sareak nonahi, hormatik zintzilik. Labanda sortaren bat. Tamaina eta neurri ezberdinetako amu handi samarrak. Eta ez dirudite, inondik ere, dekorazioaren parte. Harri artean, sugandila ttipiak, harrapaezin. “Harriak murruan kieto egiten du bere lana”, otu zait, esaldi hura nork esan zuen oroitzen ez badut ere.

Zabalik dago, baina edukazio txarrekoa iruditu zait atea jo gabe sartzea.

– Bidarte jauna?

Eskuzapi zuri bat dauka sorbaldan eta egurrezko koilara handi bat eskuan.

Bera da.

Bizarzuri, burezurrak berea zena kendu dio ilaje narras eta urriari. Gizenago eta irribarretsuago dago egunkariko azken argazkietan baino. Azala beltzaran eta uniforme, arropek ezkutatzen dizkioten gorputzaren zatiak ere antzeko irudikatu ditut, manikien badaezpadako brontzeatu adabakiekin konformatzen diren turista ipurzurien hain ezberdina. Urteek azala higatuagatik ere gihartsu dago, nola da posible, keinua gazteagoa du orain, inposturarik gabea, horixe lehen buru-oharra. “Adinean gora goazela, den-dena ez dun galera”, pentsatu dut, eta beste hitz haiekin gogoratu naiz: “Ardo zuria eta jende zoriontsua ekoizten ditugu: ekoizpena mugatua izatea...”.

– Azkenean bixigua ekarri didate, gustuko izatea espero dut.

Ez dit izenik ere galdetu. Badakiela suposatu dut. Bere inteligentziari iseka egitea litzatekeela nik nire burua aurkeztea. Ez dugu literaturaz hitz erdirik ere egin. Bidarteren entzuteko gaitasunak harritu nau gehien, ez da ohikoa idazleen kasuan, beti dira prestuago edonori katixima emateko, deus galdetu eta inori arretaz entzuteko baino.

Mareaz jardun du, eta jendearen ustearen kontra Mediterraneoak izan lezakeen oldartzeko gaitasunaz. “Tramontana, badakizu”. Marmokei buruz ere esan du zerbait. Haizeak iparraldetik jotzen duenean hegoaldeko hondartzetan ez dela batere egoten, eta alderantziz. Tentatuta egon naiz pozoiarena galdetzeko, baina, hala iruditu zait, ez zela hura momentua bizitza literaturarekin zikintzen hasteko.

Bixigua dastatu orduko, zerbait ezaguna sumatu dut ahosabaian.

– Kasinoan atera zidaten San Pedro arraina... zuk prestatu zenuen, ezta?

– Esan zidaten fina zinela.

Nire lanaz eta nire bizitzaz jakin nahi zuen. Harritu egin naiz ikusita uste baino gehiago neukala kontatzeko. Gazte izateari uzten ari naizela jabetzeko modu samurra izan da. Bere opari bat?

– Ederra zegoen. Atrebentzia litzateke orain caleta kafe bat eskatzea?

Pozik altxatu da. Pipadunaren antza hartu diot, begiak desagertu zaizkionean. Irletan bizi direnen nortasuna eta mimetismoa. Irribarre bihurria. Eta betzuloen ordez, marrak.

– Zureak dira hormako akuarelak?

– Zirriborroak, bai.

Kafearen ondotik, pattar hutsa baso berean. Eskaini didan arren, “ez, eskerrik asko”, errefusatu egin dut edalontzi berria: goxoagoa dago rona azukre kondarrekin nahasita.

– Zergatik erabaki zenuen desagertzea?

– Apartatu egin nintzen, ez da gauza bera.

Eta orduan kontatu dit ez dela isolatuta sentitzen, ez duela munduarekin loturarik galdu, nahiz eta daukan lotura ez den, agian, gaurkoarekin, baizik eta garai batekoarekin.

– Nahikoa buru-argia izan beharra dago horretarako ere, aukeratzeko zein den norbere garaia eta bertan planto egiteko, edo bertara bidaiatzeko denboran atzera, ez baita beti gustukoa eta dagokiguna gu bizi garen sasoi bera izaten. Ez dugu zertan gure garaiko izan, ez heroi eta ez kaletar, ez gure garaiaren eta baloreen garaikide ere. Egon gaitezke atzeratuta edo aurreratuta, eta akats larria eta galera alferra litzateke *gure sasoian* bizitzen setatzea hori jakinik, baldin eta uste osoa badugu zoriontsuago izango ginatekeela beste aro bateko baliabide, trepeta, jantzi, pentsamendu eta liburuekin bizitzera jarrita.

Labanda sorta ikusi dut orduan. Ea Picassoren loreez galdetzeaz akordatzen naizen.

– *Birtual* berba hitzetik hortzera erabiltzen den sasoiotan, harrigarria da jendea horretaz ez ohartu izana, edo jada ahaztu izana, ziberespaziotik haraindiko birtualtasunaren aukerez.

Orduak eman ditugu hizketan, gauari hortzaka txikiak kenduz, itsasoaz eta irlez berbetan, batik bat, eta irletan bizi diren biztanleen buruaskitasunaz; nola giza jendearen konpainia premia samur eta patetikoaz, hala premia horri ihes egiteko ditugun baliabide urriez.

– Bazenekien, batez beste, zazpi urte luzatzen duela bizitza zakur bat ondoan izateak? Bada, itsasoa ere bada zakur bat adina eta gehiago. Bere kasako zakurra nahi baduzu, zakur berdeentzako zakur urdina.

Disko zaharrak atera ditu, Italiako, Frantziako eta Greziako kantariak batez ere, gehienak ez ditut ezagutzen. Ez dut apunterik hartu eta ez nago seguru elkarrizketa on bat transkribatzeko gai izango ote naizen bihar, ezarian-ezarian ron botila azken kondarreraino edan dugula kontuan hartuta. Argazkirik ere ez diot atera, eta itsusia iruditzen zait, behin honetaz gero, proposamen horrekin gauaren xarma apurtzea.

Ez zaio batere gustatuko, baina izorra dadila sailburua, nire patrikatik ordaintzen ari naiz gaur gaueko pentsioa.

– Picassori buruz galdetzeko esan didate.

– Lore sortarena jakin nahi duzu?

Horma guztietan arreta jarri arren, ez dut Malagako maisuarena lirudikeen irudirik batere topatu. Ez dirudi oso bere izaerarekin bat datorrenik halako obra baten jabe izan eta hura ezkutatzea ere.

– Bere koadro bat al daukazu? –ausartu naiz.

Gogotik egin du barre.

– Nahi bai... Ez, ez da batere hori. Baina bera ezagutu nuen, umea nintzela.

– Pablo Picasso ezagutu zenuen?

– Ez al da hori koadro bat baino hobea? Picassori buruzko historia bat izatea, alegia, nire-nirea.

Beste ron botila bat hasi du, patxadaz. Hau ez da kiribil-tapoia duenetakoa, kortxoarekin ixten denetakoa baizik. Etiketarik ere ez du.

– 50eko hamarkadaren amaiera izango zen. Vauvenargueseko gaztelua erosi berri zuen orduan, eta udan hara joaten zen gure ama zerbitzari. Etxean ez zen umerik falta izaten haiekin jolasean ibiltzeko. Debeku bakarra geneukan: tailerrera baimenik gabe sar-

tzea. Haserretu egiten zen lanean ari zela enbarazuan ibiltzen baginen. Egun batean, lore sorta bat bildu genuen, bitxiloreak eta, belarren bat, Picassori hura emanda bihotza samurtuko geniolakoan. Begi handiak zituen, arrain begiak, begiratzen zizunean buruaren erdia begi haiek zirela ematen zuen, eta gure lore sortari ere halaxe begiratu zion, begi izugarri haiekin. Lore sortari lehenbizi eta guri gero. Lore sortari berriz eta guri ostera.

Rona hurrupatu eta niri ere hurrupa egiteko eskatu dit, simetriari jarraitu ezean bere historiak segidarik izango ez zuela iradokiz. Halaxe egin dut.

– Ume moko batzuk besterik ez ginen. Onez onean egon zitekeen eta muxu bana eman, edo gu ujuka handik haizea hartzera bidali... Zaila zen igartzen, eta igarri nahiak estekatzen gintuen han. Orduan, gure lore sorta pintura poto handi batean plaust sartu, eta hura brotxatzat hartuta jarraitu zuen margotzen, han geundenik erabat ahaztuta. Korrika atera ginen, negar batean.

– Jenioen jenioa.

– Picassok egin zezakeen hori eta gehiago. 1881. urtean jaio eta laurogeita hamar urtetik gora bizi izan zen. Garai ezberdinak zeharkatu zituen. Dena barka-

tzen zitzaion, ez zegoelako hari dena barkatu beste erremediorik. Oraindik jaio ez zen jendearentzat margotzen zuen, eta berak bazekien. Ez zegoen txorakerietarako. Baina hori Picassok baino ez lezake egin. Guri haur batek lore sorta ekartzen digunean, gogo onez hartu behar dugu eta loreontzi batean jarri, ez da hala? Hori da gizalegea. Eta, aldi berean, ez al da tristea geure buruari Picasso bezain aske eta basati jokatzeko lizentziarik eman ezina?

Nahigabe arrasto bat sumatu uste izan dut, lehen aldiz, Bidarteren baitan. Faro baten segak erdibitutako begirada. Ausartu egin naiz, hala ere:

– Jada ez duzu deus idazten?

– Irakurleak behar ditugu, ez idazleak.

Ez da zehazki erantzun bat, baina ez daukat hau baino ñabardura xeheagorik ateratzeko esperantzarik.

– Eta bikote bizitza? Eta familia? Literaturak ezin du hezur haragizko seme-alabekin lehiatu.

– Ez, ezin du. Baina ni ez naiz hona lehiatzera etorri.

Beste ron bana edan dugu, isilik, edalontziari hurrupak txandaka kenduz. Gero, zutitu egin da. Gauza

bera egin dut nik ere. Gonbidatuak jakin behar du oraindik ongietorria den sasoian alde egiten.

– Akuarelak itsasokoak dira denak. Ez duzu, kasualitatez, autopotretik izango?

– Zure elkarrizketa ilustratzeko da?

– Oraindik ez dakit argitaratuko den.

– Kazetari ona, beraz.

Mahai azpitik pintzel bat eta egunkari horitu bat atera eta kafeontziko kondarretan busti du.

– Badakizu enperadorearen eta karramarroaren ipuina, ezta?

Erantzunari itxaron gabe, burtsako indizeen gainean, lau trazotan marraztu du bere burua. Hitchcocken soslaiaren eta Hemingwayren arteko nahasketa bat. Irribarre egin dut: bizarrak, nondik begiratzen zaion, masailetan gora letorkiokeen karramarroa dirudi.

– Balioko du?

– *Ez eskuarki*, baina baietz uste dut.

Orain bera da irribarre egiten duena.

– Ez dakit zergatik setatzen zareten argazkiekin. Arruntegia da. Italian bada aldizkari bat argazki guztiak marrazkiekin ordezkatu dituena, sinesgarritasunaren mesede.

– Joan beharra daukat, bihar goiz aterako da hegazkina. Plazera izan da, Bidarte jauna.

– Bideraino lagunduko dizut, harritsua da-eta xenda.

Izartsu dago gaua. Ilargiaren zurbil harroa ere ez da gutxiestekoa. Oinez ez balihoa bezalako arnasa du Bidartek. Lasaia, pausatua. Bixigu ketuaren usainari lurrarena nahastu zaio, hezetasun izatera iristen ez den gauaren freskurak bildua. Bururatu zait begiak itxita egin nezakeela errepiderainoko bidea, entzumen hutsez, Bidarteren arnas pausatuari eta oin hotsei jarraiki. Oker nengoen: estropezu egin dut berehala. Lurrera erortzear nintzela, ordea, eskutik heldu dit Bidartek, irmo eta garaiz. Ez dakit nola egin duen, zin dagit bi pauso aurretik zihoala.

Une bat baino ez da izan. Bidarteren eskua nirean, haren oinak xenda harritsuan ongi landatuta, xenda harritsua munduaren xerlo kiribil, auzoak lo, labarrean behera erortzeko arriskurik ez, nahita ere ezinezkoa: ez gara amildegi bat merezi izateko bezain garrantzitsuak. Xenda ziztrin eta harritsu bat da eskuragarri daukagun amildegi baten gauzarik antzekoena.

Hori dena eta izarrak, kilkerren errepika ozenak azpimarratuak.

– Laster arte.

Gau osoan esan duen gezur bakarra izan da, ziur aski.

Xendatik atera eta bide asfaltaturantz noalarik, pudoreak lepoa jiratzea galarazi dit segundo batzuez. Jiratu dudanean, ez nuen gutxiagorik espero, jada ez dut inor ikusi, hostoen berdetik adarrak askatu eta, aliritzira edo apropos, gizakiaren patxada eta gizakiaren angustia axolagabetasun berberarekin itxuratzen duten enbor okerrak baino ez.

Zeruan, horrek laburbiltzen du dena, kilkerren taupadekin piztu eta itzaltzen diren izarrak. Duela bi mila urte bezalaxe, etxerantz naramaten izar ozenak.